# Nokia N97 mini erabiltzailearen gida

Argitalpena 2

# Edukia


| | |
|---|---|
| **Segurtasuna** | **7** |
| Zure telefonoa | 7 |
| Bulegoko aplikazioak | 8 |
| Sareko zerbitzuak | 8 |
| Memoria partekatua | 9 |
| ActiveSync | 9 |
| Imanak eta eremu magnetikoak | 9 |
| **Laguntza bilatzea** | **10** |
| Laguntza | 10 |
| Telefonoko laguntza | 10 |
| Zure telefonoarekin gauza gehiago egin | 11 |
| Gailuaren softwarea eguneratzea | 11 |
| Ezarpenak | 12 |
| Sarbide kodeak | 12 |
| Urruneko blokeoa | 13 |
| Bateriaren iraupena luzatu | 13 |
| Memoria erabilgarria | 14 |
| **Lehen urratsak** | **14** |
| Teklak eta atalak (aurrealdea) | 15 |
| Teklak eta atalak (atzea) | 15 |
| Teklak eta atalak (alboak) | 16 |
| Teklak eta atalak (gainaldea) | 16 |
| SIM txartela eta bateria sartzea | 16 |
| Memoria-txartela | 17 |
| Antenen kokapena | 18 |
| Gailua piztea eta itzaltzea | 19 |
| Bateria kargatzea | 20 |
| Aurikularrak | 20 |
| Eskumutur uhala lotzea | 21 |
| Ukimen-pantailaren ekintzak | 21 |
| Testua idaztea | 23 |
| Teklak eta ukimen-pantaila blokeatzea | 27 |
| Nokia transferentzia | 27 |
| Profilak | 29 |
| **Telefonoa** | **29** |
| Hasierako pantaila | 29 |
| Pantailako adierazleak | 31 |
| Lasterbideak | 32 |
| Bilaketa | 32 |
| Bolumenaren eta bozgorailuaren kontrola | 33 |
| Deskonektatuta profila | 34 |
| Deskarga bizkorra | 34 |
| Ovi (sareko zerbitzua) | 35 |
| **Deiak egin** | **37** |
| Hurbiltasun sentsorea | 37 |
| Ahots deiak | 37 |
| Dei batean zehar | 37 |
| Ahotsa eta bideo deien postontziak | 38 |
| Deiak erantzun edo ukatu | 38 |
| Telekonferentzia bat hasi | 39 |
| Telefono zenbaki baten markatze bizkorra | 39 |
| Deia zain | 39 |
| Ahots bidezko markatzea | 40 |
| Bideo dei bat egin | 40 |


 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Bideo dei batean zehar 41
Bideo deiak erantzun edo ukatu 41
Interneteko deiak 42
Partekatu bideoak 43
Erregistroa 45

**Kontaktuak (agenda) 47**
Izenak eta zenbakiak gorde eta editatu 47
Kontaktuen tresna barra 47
Izenak eta zenbakiak kudeatu 47
Zenbaki eta helbide lehenetsiak 48
Kontaktuen fitxak 48
Kontaktuak gogoko gisa ezartzea 48
Kontaktuen tonuak, argazkiak eta deietako testua 48
Kontaktuak kopiatu 49
SIM zerbitzuak 49
Kontatuen taldeak 50

**Ovi kontaktuak 51**
Ovi kontaktuak aplikazioari buruz 51
Ovi kontaktuak erabiltzen hasi 51
Zerbitzura konektatu 51
Sortu eta editatu zure profila 52
Lagunak bilatzea eta gehitzea 53
Txateatu lagunekin 53
Ovi-ren sinkronizazio zerbitzua 54
Zure kokapena partekatzea 54
Ovi kontaktuak zerbitzuaren ezarpenak 55
Nokia kontuaren ezarpenak 55
Presentzia ezarpenak 56
Pertsonalizazio ezarpenak 56
Konexiorako ezarpenak 57

**Mezuak 57**
Mezularitzako ikuspegi nagusia 57
Mezuak idatzi eta bidali 57
Mezularitzako sarrera ontzia 58
Postontzia 59
Mezuak SIM txartelean ikusi 61
Informazio zerbitzuko mezuak 61
Zerbitzu komandoak 61
Mezularitzako ezarpenak 62
Mail for Exchange 66
Nokia Mezularitza 67

**Konektagarritasuna 67**
Datu konexioak eta sarguneak 67
Sare ezarpenak 68
Haririk gabeko LAN 68
Sarbideak 70
Datu konexio aktiboak 73
Sinkronizazioa 73
Bluetooth konektagarritasuna 74
USB 77
PCrako konexioak 77
Administrazio ezarpenak 78

**Internet 79**
Sarea arakatu 79
Arakatzailearen tresna-barra 79
Orrietan nabigatu 80


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

| | |
|---|---|
| Web jarioak eta blogak | 80 |
| Eduki bilaketa | 81 |
| Laster markak | 81 |
| Cachea ezabatu | 81 |
| Konexioa amaitu | 81 |
| Konexio seguruak | 82 |
| Web ezarpenak | 82 |

| **Kokatzea (GPS)** | **83** |
|---|---|
| GPS zerbitzuari buruz | 83 |
| Lagunduriko GPSa (A-GPS) | 84 |
| Eutsi telefonoari behar bezala | 84 |
| GPS konexioak sortzeko gomendioak | 85 |
| Posizio eskaerak | 85 |
| Mugarriak | 85 |
| GPS datuak | 86 |
| Kokapenaren ezarpenak | 87 |

| **Mapak** | **88** |
|---|---|
| Mapak aplikazioari buruz | 88 |
| GPSari buruz | 88 |
| Mapan zehar mugitu | 89 |
| Pantailako adierazleak | 89 |
| Kokapenak bilatu | 89 |
| Ibilbideak antolatzea | 90 |
| Kokapenak gorde eta bidali | 90 |
| Gordetako elementuak ikusi | 90 |
| Zure kokapen faboritoak Ovi Mapak erabiliz sinkronizatzea | 91 |
| Bilaketa historia | 91 |
| Lizentziei buruz | 92 |
| Zure helmugara ibili | 92 |
| Zure helmugaraino gidatzea | 93 |
| Trafikoa eta segurtasuna | 94 |
| Kokapenaren xehetasunak | 95 |
| Mapak iparrorratzarekin erabiltzea | 95 |
| Iparrorratza kalibratzea | 95 |
| Mapa ezarpenak | 95 |
| Interneteko ezarpenak | 96 |
| Nabigazio ezarpenak | 96 |
| Ibilbide ezarpenak | 96 |
| Mapa ezarpenak | 97 |
| Sinkronizazio ezarpenak | 97 |
| Mapak eguneratu | 98 |
| Mapak aplikazioa eguneratzea | 98 |
| Nokia Map Loader | 98 |

| **Kamera** | **99** |
|---|---|
| Argazkiak atera | 99 |
| Bideoak grabatzea | 103 |
| Kameraren ezarpenak | 104 |

| **Argazkiak** | **105** |
|---|---|
| Argazkiak | 105 |
| Argazkiak eta bideoak ikusi | 105 |
| Fitxategiaren xehetasunak ikusi eta editatu | 106 |
| Argazkiak eta bideoak antolatu | 106 |
| Argazkien tresna-barra | 107 |
| Albumak | 107 |
| Fitxak | 107 |


 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Diapositiba aurkezpena 108
Telebista irteera-modua 108
Editatu irudiak 109
Bideoak editatu 110
Inprimatu irudiak 110
Partekatu on-line 111

**Musika 111**
Abesti edo podcast bat erreproduzitu 111
Erreprodukzio zerrendak 112
Podcastak 113
Ordenagailu batetik musika transferitu 113
Nokia Musika Denda 114
Nokia Podcasting 114
FM irratia 117

**Bideoak 118**
Deskargatu eta ikusi bideoklipak 118
Bideo jarioak 119
Nire bideoak 120
Bideoak zure ordenagailutik transferitu 120
Bideo ezarpenak 120

**Telefonoa pertsonalizatzea 121**
Telefonoaren itxura aldatu 121
Profilak 121
3-D tonuak 122
Hasierako pantaila aldatzea 122
Menu nagusia aldatu 122

**Aplikazioak 122**
Egutegia 122
Ordularia 124
RealPlayer 124
Grabagailua 126
Oharrak 126
Bulegoa 126

**Ezarpenak 131**
Telefonoaren ezarpenak 131
Aplikazio kudeatzailea 138
Dei ezarpenak 140

**Arazo konponketa 142**

**Aholku berdeak 145**
Aurreztu energia 145
Birziklatu 145
Aurreztu papera 145
Informazio gehiago 145

**Osagarriak 146**

**Bateria 146**
Bateria eta kargagailuaren informazioa 146
Nokia bateria autentikatzeko jarraibideak 146

**Telefonoa zaintzea 147**
Birziklatu 148

**Segurtasun informazio gehigarria 148**
Ume txikiak 148


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

Inguru eragilea 148
Aparatu medikoak 148
Ibilgailuak 148
Balizko ingurune leherkorrak 149
Larrialdi deiak 149
Ziurtagiri informazioa (SAR) 149

**Aurkibidea 150**

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

# Segurtasuna

Jarraibide erraz hauek irakurri. Jarraibideok ez betetzea arriskutsua edo legez kanpokoa izan daiteke. Informazio gehiago behar izanez gero, erabiltzailearen gida osoa irakurri.

## MODU SEGURUAN PIZTU



Ez piztu telefonoa haririk gabeko telefonoak erabiltzea debekatuta baldin badago edo interferentziarik edo arriskurik sor baliteke.

## ERREPIDEAN KONTUZ IBILTZEA DA GARRANTZITSUENA



Herri bakoitzeko arau guztiak bete. Gidatzeko orduan, eskuak beti libre eduki autoa gidatzeko. Gidatzen ari zarenean, errepidean kontuz ibiltzea da garrantzitsuena.

## INTERFERENTZIAK



Haririk gabeko telefono guztiek interferentziak jasan ditzakete, eta horrek telefonoaren jarduna kaltetu dezake.

## DEBEKATUTAKO TOKIETAN ITZALI



Telefonoa erabiltzeko murrizketa guztiak bete. Hegazkinetan eta medikuntzako tresneria, erregai, produktu kimiko edo leherketen arriskua duten guneen inguruan telefonoa itzali.

## ZERBITZU HOMOLOGATUA



Langile homologatuek bakarrik instalatu edo konpondu dezakete telefonoa.

## OSAGARRIAK ETA BATERIAK



Osagarri eta bateria onartuak soilik erabili behar dira. Ez konektatu produktu bateraezinik.

## URAREKIKO ERRESISTENTZIA



Zure telefonoak ez du urarekiko erresistentziarik. Lehor manten ezazu.

## Zure telefonoa

Gida honetan deskribatzen den haririk gabeko telefonoa (E)GSM 850, 900, 1800,1900 eta UMTS 900, 1900, 2100 sareak erabiltzeko homologatuta dago. Sareei buruzko informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Telefonoak konexio-metodo ugari onartzen ditu eta, ordenagailuak bezala, birusen eta bestelako eduki kaltegarrien eraginpean egon daiteke. Mezu, konektibitate eskaera, bilaketa eta deskargekin kontu berezia izan. Instalatu eta erabili soilik segurtasun eta babes egokia eskaintzen duten iturri fidagarrietako zerbitzu eta softwareak, hala nola, Symbian Signed ziurtagiria duten aplikazioak edo Java Verified™ azterketa gainditu dutenak. Zure telefonoan eta hari konektatutako edozein

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

ordenagailutan birus kontrako edo bestelako segurtasun softwarea instalatzea gomendatzen da.

Baliteke telefonoak laster-markak eta Interneteko hirugarrenen guneetarako estekak instalatuta izatea; beraz, hirugarrenen guneetan sartzeko aukera izan dezakezu. Hauek ez daude Nokia konpainiarekin afiliatuta eta Nokia konpainiak ez du hauen inolako erantzukizunik bere gain hartzen. Gune hauetan sartzen bazara, kontutan hartu segurtasuna eta edukiak.

**Abisua:**
Iratzargailua ez beste aukerarik erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa, haririk gabeko gailuen erabilerak interferentziarik edo arriskurik sor badezake.

Telefonoa erabiltzeko garaian, bete lege guztiak eta errespetatu tokian tokiko ohiturak eta besteen pribatutasun eta legezko eskubideak, copyright eskubideak barne. Copyright babesa dela eta, argazkiak, musika eta bestelako edukiak kopiatu, aldatu, igorri edo bidali edo birbidaltzea galarazita egon liteke.

Telefonoan gordetako informazio garrantzitsuaren segurtasun-kopiak egitea edo informazio hori idatziz gordetzea gomendatzen da.

Beste edozein gailutara konektatu aurretik, gailu horren erabiltzaile-gida irakurri, segurtasunari buruzko xehetasunen berri jasotzeko. Ez konektatu produktu bateraezinik.

Baliteke gidako irudiak zure telefonokoen berdinak ez izatea.

Jo ezazu erabiltzailearen gidara zure gailuari buruzko informazio garrantzitsu gehiago izateko.

## Bulegoko aplikazioak

Bulegoko aplikazioek Microsoft Word, PowerPoint, eta Excel-en (Microsoft Office 2000, XP, eta 2003) ezaugarri orokorrak onartzen dituzte. Ez dira fitxategi formatu guztiak onartzen.

## Sareko zerbitzuak

Telefonoa erabiltzeko haririk gabeko zerbitzu-hornitzaile baten harpidedun izatea beharrezkoa da. Zenbait aukera ez daude erabilgarri sare guztietan, zenbait funtziok zerbitzu-hornitzaileekin akordio bereziak izatea eska dezakete. Sareko zerbitzuak erabiltzean datu-transmisioak gauzatzen dira. Jo zerbitzu-hornitzailera zure hornitzailearen sareko eta roaming sareetako datu-transmisio tarifak ezagutzeko. Zure zerbitzu-hornitzaileak zer kostu aplikatuko den azal dezake. Zenbait sarek sareko laguntza behar duten funtzioak erabiltzeko moduan eragiten duten murrizketak izan ditzakete, TCP/IP protokoloetan funtzionatzen duten eta hizkuntzaren araberako karaktereak dituzten WAP 2.0 protokoloak (HTTP eta SSL) bezalako teknologia zehatzak esaterako.

Zure zerbitzu-hornitzaileak telefonoko zenbait aukera ezgaitzeko edo ez aktibatzeko eskatu liezazuke. Kasu horretan, aukera horiek ez dira telefonoko menuan agertuko. Telefonoak menuaren izenak, menuaren ordena eta ikonoak bezalako elementuak pertsonaliza daitezke.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Memoria partekatua

Telefonoaren ondorengo funtzioek memoria bera erabil dezakete: multimedia mezularitza (MMS), posta elektronikoko aplikazioa, istanteko mezularitza. Funtzio hauetako bat edo gehiago erabiltzeak gainontzeko funtzioen memoriaren eskuragarritasuna murritz dezake. Telefonoan memoria beteta dagoela jakinarazten dizun mezu bat agertzen bada, ezabatu memoria partekatuan gordetako informazioa.

## ActiveSync

Mail for Exchange aplikazioaren erabilera PIM datuen hari gabeko sinkronizaziora mugatuta dago Nokia telefonoaren eta baimendutako Microsoft Exchange zerbitzarien artean.

## Imanak eta eremu magnetikoak

Mantendu telefonoa iman eta eremu magnetikoengandik urrun.

# Laguntza bilatzea

## Laguntza

Zure produktua erabiltzeko moduari buruzko informazio eskuratzeko edo telefonoaren funtzionamenduari buruzko zalantzak badituzu, ikus laguntza orriak www.nokia.com/support helbidean edo zure tokiko Nokia-ren webgunean, www.nokia.mobi/support (mugikorraren arakatzailean), telefonoko Laguntza aplikazioa edo erabiltzailearen gida.

Modu honetan arazoa konpontzea lortzen ez baduzu, egin hurrengo ekintzetako bat:

- Berrabiarazi telefonoa: itzali telefonoa eta kendu bateria. Minutu bat geroago, berrezarri bateria eta piztu gailua.
- Telefonoaren jatorrizko ezarpenak berrezarri, erabiltzailearen gidan agertzen den bezala. Zure dokumentuak eta fitxategiak ezabatuko dira leheneratzerakoan, beraz, lehenengo datuen kopia bat egin.
- Eguneratu maiz telefonoaren softwarea errendimendu ona eta ezaugarri berriak lortzeko, erabiltzailearen gidan azaltzen den bezala.

Honela ere arazoa konpontzen ez bada, jarri harremanetan Nokiarekin konpontzeko aukera gehiago lortzeko. Ikus www.nokia.com/repair helbideak. Telefonoa konpontzera bidali aurretik, egin telefonoko datuen babeskopia.

## Telefonoko laguntza

Telefonoak aplikazioak erabiltzen laguntzeko argibideak dauzka.

Menu nagusitik laguntza irekitzeko, aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Laguntza** eta argibideak behar dituen aplikazioa.

Aplikazio bat irekita dagoela, uneko ikuspegiaren laguntzara sartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Laguntza**.

Argibideak irakurtzen ari zarenean, laguntza testuaren tamaina aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Txikitu letra tamaina** edo **Handitu letra tamaina**.

Baliteke laguntza testuaren amaieran lotutako gaietarako estekak aurkitzea.

Azpimarratutako hitz bat aukeratzen baduzu, azalpen labur bat azalduko da.

Laguntzak ondorengo adierazleak erabiltzen ditu:

Lotutako laguntza gai baterako esteka.

Dagokion aplikaziorako esteka.

Jarraibideak irakurtzerakoan, laguntza testuen eta hondoan irekita dagoen aplikazioaren artean aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Erakutsi aplik. irekiak** eta nahi duzun aplikazioa.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Zure telefonoarekin gauza gehiago egin

Badaude telefonoarekin gauza gehiago egitea ahalbidetzen duten aplikazioak, Nokiak eta beste software-garatzaileek hornitutakoak. Aplikazioak bilatzeko eta deskargatzeko, zoaz Ovi dendara store.ovi.com helbidean. Aplikazio horien azalpenak produktuaren laguntza orrietan aurki daitezkeen gidetan daude erabilgarri www.nokia.com/support helbidean edo Nokiaren tokiko webgunean.

## Gailuaren softwarea eguneratzea

### Software eguneratzeak zuzenean

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **SW-eguner.**.

Software eguneratzea erabiliz (sare zerbitzua), zure gailuarentzako aplikazioen eguneratze eskuragarriak bila ditzakezu, eta horiek gailuan deskargatu ere bai.

Software eguneratzeak deskargatzean datu kantitate handiak transferi daitezke (sareko zerbitzua).

Eguneratzea hasi aurretik behar adina bateria duzula egiaztatu edo kargagailura konektatu.

**Abisua:**
Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da telefonoa erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa amaitu eta telefonoa berrabiarazi arte. Egiaztatu datuen segurtasun-kopiak egiten dituzula softwarea eguneratu aurretik.

Gailuaren softwarea edo aplikazioak Aplikazio eguneratzea erabiliz eguneratu ondoren, baliteke erabiltzaile gidako deskargatutako aplikazioen jarraibide funtzionalak edo laguntzak eguneratuta ez izatea.

Eguneratze eskuragarriak deskargatzeko, hautatu . Deskargatu nahi ez dituzun eguneratze jakinei marka kentzeko, hautatu eguneratzeak zerrendan.

Eguneratze baten inguruko informazioa ikusteko, hautatu eguneratzea eta .

Aurreko eguneratzeen egoera ikusteko, hautatu .

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

**Egunerat. ordenag. bidez** — Eguneratu gailua ordenagailu bat erabiliz. Aukera honek Ekin eguneratzeari aukera ordezkatzen du eguneratzeak bakarrik Nokia Software Updater ordenagailu bidezko aplikazioa erabiliz eskuragarri daudenean.
**Ikusi eguneratz. historia** — Ikusi aurreko eguneratzeen egoera.
**Ezarpenak** — Aldatu ezarpenak, eguneratzeak deskargatzeko erabilitako sarbide lehenetsia, esaterako.
**Ezespena** — Ikusi Nokia lizentziaren kontratua.

### Eguneratu softwarea ordenagailuaren bidez

Nokia software egiaztatzailea telefonoaren softwarea eguneratzeko ordenagailurako aplikazio bat da. Telefonoaren softwarea eguneratzeko, ordenagailu bateragarri bat, Interneterako banda zabaleko sarbidea eta telefonoa ordenagailura konektatzeko USB datu-kable bateragarri bat behar dituzu.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Informazio gehiagorako, azken software bertsioak noiz atera diren ikusteko eta Nokia Software Updater aplikazioa deskargatzeko, ikus www.nokia.com/softwareupdate edo lekuko Nokia web orria.

Telefonoaren softwarea eguneratzeko, jarraitu ondorengo pausoak:

1. Deskargatu eta instalatu Nokia software egiaztatzailea ordenagailuan.
2. Konektatu telefonoa ordenagailura USB datu-kable bateragarri bat erabiliz **PC Suite modua**.
3. Ireki Nokia software eguneratzailea. Nokia software egiaztatzaileak fitxategien babeskopia egiten, softwarea eguneratzen eta fitxategiak leheneratzen lagunduko dizu.

## Ezarpenak

Telefonoan normalean MMS, GPRS, streaming eta Internet mugikorra automatikoki konfiguratuta datoz, zure sareko zerbitzu-hornitzailearen informazioan oinarrituta. Baliteke zerbitzu-hornitzaileak ezarpenak telefonoan instalatu izana edo baliteke zerbitzu-hornitzailearen mezu berezi gisa ezarpenak jasotzea edo eskatzea.

Ezarpen orokorrak telefonoan alda daitezke, hala nola, hizkuntza, egonean modua, pantaila eta teklatuko blokeoaren ezarpenak.

## Sarbide kodeak

Koderen bat ahaztu baduzu, jar zaitez harremanetan zerbitzu hornitzailearekin.

Identifikazio zenbaki pertsonaleko kodea (PIN) — Kode honek zure SIM txartela baimendu gabeko erabileraren kontra babesten du. PIN kodeak (4tik 8 digitura) gehienetan SIM txartelarekin batera dator. PIN kodea hiru aldiz segidan gaizki idazten baduzu, kodea blokeatu egingo da eta PUK kodea beharko duzu desblokeatzeko.

UPIN kodea — Kode hau USIM txartelarekin batera dator. USIM txartela SIM txartelaren bertsio hobetu bat da eta UMTS telefonoekin bateragarria da.

PIN2 kodea — Kode hau (4tik 8 digitura) SIM txartel batzuekin dator eta beharrezkoa da zure telefonoko funtzio batzuetara sartu ahal izateko.

Blokeo kodea (edo segurtasun kodea) — Blokeo-kodeak zure gailua erabilera baimendu gabearen kontra babesten lagunduko dizu. Kode lehenetsia 12345 da. Kodea sor eta alda dezakezu eta zure telefonoak kodea eska dezan ezar dezakezu. Kode berria ezkutuan, leku seguru batetan eta telefonotik urrun gorde. Kodea ahazten baduzu eta telefonoa blokeatuta badago, telefonoak laguntza teknikoa beharko du. Kostu gehigarriak aplika daitezke, eta telefonoko datu pertsonal guztiak ezaba daitezke. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan Nokia Care gunearekin edo telefonoaren banatzailearekin.

Desblokeatzeko kode pertsonala (PUK) eta PUK2 kodea — Kode hauek (8 digitu) beharrezkoak dira blokeatutako PIN edo PIN2 kodeak aldatzeko, hurrenez hurren. Kodeak SIM txartelarekin batera ez badatoz, jar zaitez harremanetan zure SIM txartelaren operadorearekin.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

UPUK kodea — Kode hau (8 digitu) beharrezkoa da blokeatutako UPIN kodea aldatzeko. Kodea USIM txartelarekin batera ez badator, jar zaitez harremanetan zure USIM txartelaren operadorearekin.

## Urruneko blokeoa

Telefonoa baimenik gabe erabiltzea saihesteko, telefonoa eta memoria-txartela urrunetik blokea ditzakezu testu-mezu baten bidez. Zehaztu mezuaren testua eta zure telefonoa blokeatzeko, bidali testu-mezua telefonora. Telefonoa desblokeatzeko, blokeo-kodea beharrezkoa da.

Urruneko blokeoa gaitzeko, eta mezuaren testua zehazteko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Seg..-ezarpenak** > **Telefonoa eta SIM txart.** > **Urruneko tel.-blokeoa** > **Gaituta**. Sakatu testua idazteko eremua testu-mezua idazteko (5 eta 20 karaktere bitartekoa), hautatu ✓ eta egiaztatu mezua. Idatzi blokeo-kodea.

## Bateriaren iraupena luzatu

Telefonoko funtzio askok bateria gehiago behar dute eta bateriaren bizitza murrizten dute. Bateria aurrezteko, hurrengoa kontuan izan:

- Bluetooth teknologia erabiltzen duten funtzioekin edo beste funtzioak erabili bitartean hauek atzealdean funtzionatzea onartzen duten funtzioekin, bateria gehiago erabiltzen da. Desaktibatu Bluetooth teknologia behar ez duzunean.
- Haririk gabeko LAN (WLAN) Bluetooth teknologia erabiltzen duten funtzioekin edo beste funtzioak erabili bitartean hauek atzealdean funtzionatzea onartzen duten funtzioekin, bateria gehiago erabiltzen da. Nokia telefonoko WLANa desaktibatzen da konektatzen saiatzen ari ez zarenean, sarbide batera konektaturik ez bazaude edo eskuragarri dauden sareak bilatzen ari ez zarenean. Bateria kontsumoa gehiago murrizteko, eskuragarri dauden sareak atzealdean ez bilatzeko edo gutxiagotan bilatzeko ezar dezakezu telefonoa.
- Konexio ezarpenetan **Pakete-datuen konexioa** aukera **Eskuragarri denean** gisa ezartzen baduzu eta datu pakete estaldurarik (GPRS) ez badago, telefonoa etengabe saiatuko da datu pakete konexio bat ezartzen. Telefonoaren funtzionamendu denbora areagotzeko, **Pakete-datuen konexioa** > **Behar denean** aukeratu.
- Maps aplikazioak mapa berrien informazioa deskargatzen du mapako zona berrietara mugitzen zarenean, honek bateriaren kontsumoa areagotzen du. Mapa berrien deskarga automatikoa galeraz dezakezu.
- Zure eskualdean telefonoak jasotzen duen sarearen seinalea asko aldatzen bada, telefonoak eskuragarri dauden sareak bilatu behar ditu behin eta berriro. Horrela, bateriaren kontsumoa areagotzen da.

  Sare modua modu dualean ezarrita badago sare ezarpenetan, telefonoak 3G sarea bilatuko du. Telefonoa GSM sarea soilik erabiltzeko ezar dezakezu. GSM sarea soilik erabiltzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Sarea** > **Sare modua** > **GSM**.
- Pantailaren atzeko argiak bateria eskaera handitzen du. Pantailaren ezarpenetan, argiaren denbora-muga alda dezakezu, tarte honen ondoren pantaila itzal dadin. Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** >

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

**Pantaila** > **Argiaren iraupena**. Argitasun baldintzak egiaztatzen dituen eta pantailaren argitasuna egokitzen duen argi-sentsorea doitzeko, pantailaren ezarpenetan, hautatu **Argi-sentsorea**.

- Aplikazioak atzealdean funtzionatzen uzteak bateria eskaera handitzen du. Erabiltzen ari ez zaren aplikazioak ixteko, erantzuten ez badute hautatu **Aukerak** > **Erakutsi aplik. irekiak** eta zoaz aplikaziora menu tekla erabiliz. Eduki sakatuta menu tekla aplikazioa irekitzeko eta hautatu **Aukerak** > **Irten**.

### Memoria erabilgarria

Datu mota desberdinentzako eskuragarri dagoen memoria ikusteko, aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Fitxat. kude.**.

Telefonoaren funtzio askok memoria erabiltzen dute datuak gordetzeko. Telefonoak jakinarazten dizu memoria kokapen ezberdinetan memoria libre gutxi badago.

Memoria libratzeko, transferitu datuak bateragarria den memoria-txartel batera (eskuragarri badago) edo bateragarria den ordenagailu batera.

Behar ez dituzun datuak ezabatzeko, erabili Fitxategi kudeatzailea edo beharrezkoa den aplikazioa ireki. Ondorengoak ezaba ditzakezu:

- Mezularitzaren karpetetan dauden mezuak eta postontzian jasotako posta elektroniko mezuak.
- Gordetako web orriak
- Kontaktuen informazioa
- Egutegiko oharrak
- Aplikazio kudeatzailean agertzen diren baina erabiltzen ez diren aplikazioak
- Instalatuta dauden aplikazioen instalazio fitxategiak (.sis edo .sisx). Transferitu instalazio fitxategiak ordenagailu bateragarri batera.
- Argazkietan dauden irudiak eta bideoklipak. Kopiatu fitxategiak bateragarria den ordenagailu batean.

## Lehen urratsak

**Oharra:** Telefonoaren gainazalak ez du nikelik nikeleztaketetan. Telefono honen gainazalak altzairu herdoilgaitza dauka.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Teklak eta atalak (aurrealdea)




**1** Hurbiltasun sentsorea
**2** Entzungailua
**3** Ukimen-pantaila
**4** Menu tekla
**5** Deitzeko tekla
**6** Bigarren kameraren lentea
**7** Argi-sentsorea
**8** Amaitzeko tekla



Ez estali ukimen-pantailaren gainaldea, adibidez, estalki edo zinta babesleekin.

## Teklak eta atalak (atzea)




**1** Kameraren flasha
**2** Kameraren lentea

## Teklak eta atalak (alboak)




**1** Bozgorailu estereoa
**2** Kargaren argi adierazlea
**3** Micro USB konektorea
**4** Blokeo-tekla
**5** Bolumena igo/Zooma gerturatu
**6** Bolumena jaitsi/Zooma urrutiratu
**7** Argazkiak ateratzeko tekla

## Teklak eta atalak (gainaldea)




**1** Pizteko tekla
**2** Nokia AV konektorea (3,5 mm)

## SIM txartela eta bateria sartzea

Jarraitu argibideak atzeko estalkia ez hondatzeko.

Segurtasunez kentzea. Bateria kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

1 Kendu atzeko estalkia telefonoaren beheko aldetik altxatuta.



2 Bateria sartuta badago, altxa bateria geziaren norabidean eta kendu.




© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

3 Atera SIM txartelaren euskarria eta sartu SIM txartela. Ziurtatu txartelaren urre koloreko kontaktua behera begira dagoela eta txartelaren koska euskarriaren koskarekin bat datorrela. Sartu SIM txartelaren euskarria bere tokian.




4 Parekatu bateriaren konektoreak bateriaren zirrikituko dagozkien konektoreekin eta sartu bateria geziaren norabidean.



5 Atzeko estalkia jartzeko, kokatu goiko mihiak haien zuloetan eta estutu estalkia bere lekuan sartzen den arte.




## Memoria-txartela

Erabili soilik Nokiak telefono honetan erabiltzeko onartuta dituen microSD txartelak bateragarriak. Nokiak onartutako sektoreko estandarrak erabiltzen ditu memoria txartelentzako, halere baliteke marka batzuk guztiz bateragarriak ez izatea. Bateraezina den txartel bat erabiliz gero, txartela eta telefonoa kaltetu eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

### Sartu memoria-txartela

Agian memoria-txartela dagoeneko telefonoan sartuta dago. Sartuta ez badago, jarraitu pauso hauek:

1 Kendu telefonoaren atzeko estalkia.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 



2 Sartu memoria-txartel bateragarria dagokion zirrikituan. Ziurtatu txartelaren kontaktua zirrikituari begira dagoela.



3 Bultza txartela barrura. Txartela bere lekuan geratzean klik bat entzungo duzu.

4 Ezarri atzeko estalkia bere lekuan. Mantendu telefonoa beherantz begira estalkia ezartzerakoan. Ziurtatu behar bezala itxi dela.

## Memoria-txartela kentzea

**Garrantzitsua:** Ez atera txartela eragiketa batean txartela erabiltzen ari zaren bitartean. Hori eginez gero, txartela eta telefonoa kaltetu eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

1 Txartela kendu aurretik, sakatu pizteko tekla eta hautatu **Kendu memoria-txartela**. Aplikazio guztiak ixten dira.

2 **Memoria-txartela kenduz gero, irekitako aplikazioak itxiko dira. Txartela kendu?** bistaratzen denean, hautatu **Bai**.

3 **Kendu memoria-txartela eta sakatu 'Ados'** bistaratzen denean, kendu telefonoaren atzeko estalkia.

4 Sakatu memoria-txartela zirrikitutik ateratzeko.

5 Atera memoria-txartela. Telefonoa piztuta badago, hautatu **Ados**.

6 Ezarri atzeko estalkia bere lekuan. Ziurtatu behar bezala itxi dela.

## Antenen kokapena

Baliteke zure telefonoak antena barruan eta kanpoan izatea. Saihestu antena behar ez denean erabiltzen antena transmititzen edo jasotzen ari den bitartean. Antena ukitzeak komunikazioaren kalitatean eragina du; gainera, telefonoak beharrezkoa baino bateria gehiago gasta lezake eta, ondorioz, bateriaren iraupena murritz liteke.




© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.



## Gailua piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko:

1 Pizteko tekla eduki sakatuta.



2 Telefonoak PIN kode edo blokeo kode bat eskatzen badu, idatzi eta hautatu **Ados**. Blokeo kode lehenetsia **12345** da. Kodea ahazten baduzu eta telefonoa blokeatuta badago, telefonoak laguntza teknikoa beharko du eta baliteke zerbitzu hau ordaindu behar izatea. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan Nokia Care gunearekin edo telefonoaren banatzailearekin.

Telefonoa itzaltzeko, sakatu labur pizteko tekla eta hautatu **Itzali!**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Bateria kargatzea

Bateria partzialki kargatuta dator fabrikatik. Baliteke aurretik bateria kargatzea beharrezkoa ez izatea. Gailuak karga baxua dela adierazten badu, egin hurrengoa:

### Kargatze arrunta



1 Konektatu bateria hormako hartune batera.
2 Konektatu kargagailua telefonora. USB konektorearen ondoko kargatzearen argizko adierazlea piztuta dago bateria kargatzen den bitartean.
3 Gailuak bateria guztiz kargatuta dagoela adieraztean, deskonektatu kargagailua gailutik eta ondoren hormako hartunetik.

Ez duzu bateria denbora zehatz batean zehar kargatu behar, eta kargatzen den bitartean erabil dezakezu. Bateria guztiz deskargatuta baldin badago, kargatzailearen ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

**Aholkua:** Deskonektatu kargagailua entxufetik erabiltzen ari ez bada. Entxufera konektatutako kargagailu batek argi-indarra gastatzen du, telefonora konektatuta ez badago ere.

### USB bidez kargatzea

USB bidez karga dezakezu horma entxufe bat eskuragarri ez duzunean. USB bidez kargatzerakoan, telefonoa kargatu bitartean ere datuak transferi ditzakezu.

1 Konektatu bateragarria den USB gailu bat zure telefonora USB kable bateragarri batekin.

   USB bidezko kargatzearen eraginkoratsuna oso ezberdina izan daiteke. Hainbat kasutan, baliteke kargatzea hasteak eta gailuak funtzionatzen hasteak denbora luzea eramatea.

2 Gailua piztuta dagoenean, USB moduaren aukeren artean hautaketa egin dezakezu gailuaren bistaratzean.

## Aurikularrak

Aurikular bateragarriak konekta ditzakezu telefonora. Baliteke kable modua aukeratu behar izatea.

Zenbait aurikular bi zatitan datoz, urrutiko kontrol unitatea eta aurikularrak. Urrutiko kontrol unitateak mikrofonoa eta deiak egin edo amaitzeko teklak, bolumena egokitzeko teklak eta musika edo bideoak erreproduzitzeko teklak dauzka. Aurikularrak urrutiko kontrol unitatearekin erabiltzeko, konektatu unitatea telefonoko Nokia AV konektorean eta, ondoren, konektatu aurikularrak unitatera.

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.



**Abisua:**
Aurikularrak erabiliz gero, kanpotik datozen zaratak entzuteko gaitasuna galdu dezakezu. Ez erabili aurikularrak zure segurtasuna arriskuan jar badezakezu.

Irteera seinala igortzen duen produkturik ez konektatu, gailua kalte bailezakete. Ez ezazu tentsio iturririk konektatu Nokia AV Connector-era.

Nokiak telefono honekin erabiltzeko onartu ez duen entzungailu edo bestelako gailu osagarriren bat Nokia AV Connector-era konektatzerakoan, ahots mailei arreta berezia ipini.

## Eskumutur uhala lotzea



Albainutu eskumutur uhala eta estutu.

## Ukimen-pantailaren ekintzak

Erabili ukimen-pantaila atzamarrarekin edo boligrafo batekin (eskuragarri badago).

**Garrantzitsua:** Gailu honentzako Nokiak onartutako arkatza bakarrik erabili. Beste edozein arkatz erabiltzeak gailuaren garantia baliogabetu dezake eta gainera ukipen-pantaila kaltetu dezake. Saihes ezazu ukipen-pantaila urratzea. Ez erabili inoiz luma, arkatz edo beste edozein objektu zorrotzik ukipen-pantailan idazteko.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Sakatu eta sakatu bi aldiz

Ukimen-pantailan aplikazio edo elementu bat irekitzeko normalean hatzarekin sakatzen duzu. Baina elementu hauek bi aldiz sakatu behar dituzu irekitzeko.

- Zerrendatu aplikazio bateko elementuak, hala nola, Mezularitza aplikazioko Zirriborroak karpeta.
- Fitxategien zerrenda bateko fitxategiak, adibidez, Argazkiak aplikazioan ateratako karpetako irudi bat.

  **Aholkua:** Zerrenda-ikuspegi bat irekitzean, lehen elementua nabarmenduta egoten da. Nabarmendutako elementua irekitzeko, sakatu behin.

  Fitxategi edo elementu bat behin sakatuz gero, ireki beharrean nabarmendu egiten da. Elementuaren aukera eskuragarriak ikusteko, hautatu **Aukerak** edo, eskuragarri bada, hautatu ikonoa tresna-barran.

## Hautatu

Erabiltzaileentzako dokumentu honetan aplikazioak edo elementuak behin edo bitan sakatuz irekitzeko "hautatzen" dituzu. Hainbat elementu jarraian ireki behar badituzu, hautatu beharreko elementuak gezi bidez bereizita agertzen dira.

**Adibidea:** **Aukerak** > **Laguntza** hautatzeko, sakatu **Aukerak**eta jarraian sakatu **Laguntza**.

## Arrastatu

Arrastatzeko, ezarri hatza pantailan eta labaindu pantailan zehar.

**Adibidea:** Web orri batean gora edo behera joateko, arrastatu orria hatzarekin.

## Pasa hatza

Hatza pasatzeko eskatzean, pasa hatza azkar pantailan ezkerrera edo eskuinera.



## Keinuak

Keinu egiteko, jarri hatza pantailan, labaindu azkar pantailan zehar eta altxatu azkar hatza. Pantailako edukia mugitzen jarraituko du askatu duzun unean zeukan abiaduran eta noranzkoan. Korritzen den zerrenda bateko elementu bat hautatzeko eta mugimendua gelditzeko, sakatu elementua. Telefonoan, keinuen funtzioa eskuragarri dago Musika erreproduzitzailean.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.



## Mugitu edo joan

Barra bat duten zerrendetan gora edo behera joateko, arrastatu barraren graduatzailea.

Zenbait zerrenda-ikuspegitan hatza zerrendako elementu batean ezarri eta gora edo behera arrasta dezakezu.

**Aholkua:** Ikono baten deskribapen laburra ikusteko, kokatu hatza ikonoaren gainean. Deskribapenak ez daude eskuragarri ikono guztientzat.

## Ukimen-pantailako atzealdeko argia

Pantailaren atzeko argia pizteko, desblokeatu pantaila eta teklatua, beharrezkoa izanez gero, eta sakatu menu-tekla.

# Testua idaztea

Testua metodo ezberdinekin idatz dezakezu. Teklatu osoak teklatu tradizional gisa funtzionatzen du eta pantailako alfazenbakizko teklatu moduak karaktereak ukituz idaztea ahalbidetzen du. Eskuizkribu ezagutze moduak karaktereak pantailan zuzenean idaztea ahalbidetzen du.

Idazketa-metodoa aktibatzeko, ukitu testua idazteko edozein eremu.

Idazketa-metodoaren ikuspegian, eskuragarri dauden idazketa-metodo ezberdinen artean aldatzeko, ukitu eta hautatu nahi duzun idazketa-metodoa.

Eskuizkribu ezagutze metodoak onartzen dituen idazketa-metodoak eta hizkuntzak eskualdearen arabera alda daitezke.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Teklatu bidezko idazketa

### Teklatua



Telefonoak teklatu osoa du. Teklatua irekitzeko, bultza ukimen-pantaila gora. Aplikazio guztietan, pantaila automatikoki biratzen da modu bertikaletik horizontalera teklatua irekitzen duzunean.




1 **Ikur-tekla**. Teklatuan agertzen ez diren karaktere bereziak sartzeko, sakatu behin ikurren tekla eta hautatu nahi duzun karakterea taulatik.
2 **Funtzio-tekla**. Teklen goialdean agertzen diren karaktere bereziak sartzeko, sakatu funtzio-tekla eta sakatu dagokion alfabeto tekla edo luze sakatu alfabeto tekla soilik. Hainbat karaktere berezi bata bestearen atzean sartzeko, sakatu bitan funtzio tekla azkar eta gero sakatu nahi dituzun alfabeto teklak. Modu normalera itzultzeko, sakatu funtzio tekla behin.
3 **Maius tekla**. Maiuskula eta minuskula moduen artean aldatzeko, sakatu bitan maius tekla. Maiuskulan dagoen letra bakar bat minuskula moduan sartzeko, edo minuskulan dagoen letra bakar bat maiuskula moduan sartzeko, sakatu maius tekla eta gero nahi den alfabeto tekla.
4 **Zuriune-tekla**
5 **Gezi-teklak**. Gora, behera, ezkerrera edo eskuinera mugitzeko, erabili gezi-teklak.
6 **Sartu tekla**
7 **Atzera-tekla**. Karaktere bat ezabatzeko, sakatu atzera-tekla. Hainbat karaktere ezabatzeko, eduki sakatuta atzera-tekla.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Teklatuan agertzen ez diren hizkiak txertatu

Hizkien bariazioak sar daitezke, adibidez, azentudun hizkiak. á idazteko, eduki sakatuta ikurren tekla eta aldi berean sakatu A tekla behin eta berriro, nahi duzun karakterea agertu arte. Idazteko hautaturiko hizkuntza nolakoa, hizkien hurrenkera eta erabilgarritasuna halakoa.

## Ukipen bidezko idazketa

### Eskuzko idazkera

Eskuizkribu modua aktibatzeko, ukitu eta **Eskuizkribua**.

Idatzi irakurgarriak diren letrak testua idazteko eremuan eta utzi zuriune bat karaktereen artean.

Gailuari zure eskuizkribu estiloa irakasteko, ukitu eta **Eskuizkribu-prestak.**.

Letrak eta zenbakiak idazteko (lehenetsitako modua), idatzi hitzak normalean egiten duzun moduan. Zenbaki modua hautatzeko, ukitu 12 idazketa eremuaren eskuinaldean. Latindarrak ez diren karaktereak sartzeko, sakatu dagokion ikurra, eskuragarri badago.




Karaktere bereziak idazteko, idatzi itzazu normalean egiten duzun moduan. *# uki dezakezu ere idazketa eremuaren eskuinaldean eta hautatu nahi duzun karakterea agertzen den taulatik.

Karaktereak ezabatzeko edo kurtsorea atzerantz mugitzeko, arrastatu atzerantz (ikus 1. irudia).

Zuriuneak sartzeko, arrastatu aurrerantz (ikus 2. irudia).




### Ukimen idazketako ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Ukipen-sarrera**.

Testu idazketako ezarpenak ukimen pantailarako konfiguratzeko, aukeratu hauetatik:

**Eskuizkribu-prestakuntza** — Ireki eskuzko idazketa entrenamendurako aplikazioa. Entrenatu telefonoa zure

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

idazkera hobeto ezagutu dezan. Aukera hau ez dago eskuragarri hizkuntza guztietan.

**Idazketa hizkuntza** — Zehaztu zein hizkuntzatako karaktereak erabili dituzun esku idazketan eta teklatua kokatuta dagoen modua.

**Idazte-abiadura** — Egokitu eskuzko idazkeraren abiadura.

**Gidalerroa** — Erakutsi edo ezkutatu gida linea idazketa eremuan. Gida marrak lerro zuzenean idazten laguntzen du eta telefonoak zure eskuzko idazketa ezagutzen laguntzen du ere.

**Arkatz-lorratz. zabalera** — Aldatu boligrafoarekin idatzitako testuaren lodiera.

**Idazteko kolorea** — Aldatu boligrafoarekin idatzitako testuaren kolorea.

## Ikonoak eta funtzioak

Erabili pantailako teklatua (**Teklatu alfanumerikoa**) karaktereak ohizko telefono batean sartuko zenituzke moduan zenbakiak dituen teklatu batean bezala. Ikono bakoitzaren azalpena eta bere funtzioa ikusteko, begiratu hurrengo irudia.




1 Itxi - Pantailako teklatua itxi egiten du (**Teklatu alfanumerikoa**).
2 Idazketa menua - Menuaren ukimen idazketa irekitzen du, **Aktib. iragarpen testua** eta **Idazketa hizkuntza** bezalako komandoak barne.
3 Testu idazketa adierazlea - Popup leiho bat irekitzen du, hemen testu iragarle modua gaitu edo desgaitu, karaktere sorta eta letra eta zenbaki moduen artean txandaka dezakezu.
4 Idazketa modua - Popup leiho bat irekitzen du eta bertan eskuragarri dauden moduen artean bat aukera dezakezu. Elementu bat sakatzen duzunean,

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

momentuko idazketa metodoaren leiho ikuspegia itxi egiten da eta aukeratutakoa irekitzen da.
5 Gezi teklak - Kurtsorea ezkerretara edo eskuinera mugitzen du.
6 Atzera egiteko tekla - Aurretik sartutako karakterea ezabatzen du.
7 Zenbaki teklak - Momentuko idazketa modu eta letraren arabera nahi diren zenbakiak edo karaktereak sartzen ditu.
8 Izarra - Karaktere berezien taula irekitzen du.
9 Maius - Karaktere sorta aldatzen du, testu iragarlea gaitu eta desgaitzen du eta alfabeto eta zenbaki moduen artean aldatzen du.

## Teklak eta ukimen-pantaila blokeatzea

Telefonoa edo teklatua blokeatuta egonda ere, telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitu ahal izango da.

Ukimen-pantaila eta teklak blokeatzeko eta desblokeatzeko, lerratu telefonoaren alboko blokeo-tekla.

Ukimen-pantaila eta teklak blokeatuta daudenean, ukimen-pantaila desaktibatuko da eta teklak inaktibo egongo dira.

Pantaila eta teklak automatikoki blokeatzeko ezarpenak aldatzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Tekla-babeslea**.

# Nokia transferentzia

## Edukia transferitu

Switch aplikazioa erabil dezakezu lehen zeneukan Nokia telefonotik zure telefonora edukia kopiatzeko, adibidez: telefono zenbakiak, helbideak, egutegiko elementuak eta argazkiak.

Gailu igorlearen modeloak mugatzen du transferi daitekeen eduki mota. Gailu horrek sinkronizazioa onartzen badu, gailu batetik bestera datuak ere sinkroniza daitezke. Beste gailua bateragarria ez bada, zureak jakinaraziko dizu.

Beste gailua SIM txartelik gabe ezin bada piztu, zure SIM txartela sar dezakezu bertan. Zure telefonoa SIM txartelik gabe pizten denean, deskonektatuta profila automatikoki aktibatzen da.

### Edukia lehenengo aldiz transferitu

1. Beste gailu batetik datuak lehenengo aldiz eskuratzeko, zure telefonoan hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Datu-transfer.** > **Datu-transfer.**.
2. Datuak transferitzeko erabili nahi duzun konexio mota aukeratu. Bi gailuek aukeratutako konexio mota onartzea beharrezkoa da.
3. Bluetootha konexio mota gisa aukeratzen baduzu, konektatu bi gailuak. Zure telefonoak Bluetooth konexioa duten gailuak bilatzea nahi baduzu, aukeratu **Jarraitu**. Edukia zein gailutik transferitu nahi duzun aukeratu. Zure gailuan kode bat sartzea eskatzen zaizu. Idatzi kode bat (1-16 digitu) eta aukeratu **Ados**. Idatzi kode berbera beste gailuan eta aukeratu **Ados**. Gailuak dagoeneko uztartuta daude.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

Baliteke aurreko Nokia telefonoek Switch aplikazioa ez edukitzea. Kasu honetan, Switch aplikazioa beste gailura mezu gisa bidaliko da. Aldaketa aplikazioa beste gailuan instalatzeko, mezua ireki eta pantailako argibideak jarraitu.

4 Zure telefonoan aukeratu beste gailutik transferitu nahi duzun edukia.

   Transferentzia hasi denean, hau ezezta daiteke eta geroago jarraitu.

Edukia beste gailuaren memoriatik gailu honetan dagokion tokira aldatuko da. Transferentzia denbora transferitu beharreko datu kopuruaren araberakoa da.

## Edukia sinkronizatu, berreskuratu edo bidali

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektagarritas.** > **Datu-transfer.** > **Datu-transfer.**.

Lehenengo transferentzia ondoren, transferentzia berria hasteko aukeratu honako hauetatik, modeloaren arabera:

- zure gailutik beste gailu batera edukia transferitu, beste gailuak sinkronizazioa onartzen badu. Sinkronizazioa bi aldetakoa da. Elementu bat gailu batean ezabatzen bada, bestean ere ezabatuko da. Ezabatutako elementuak ezin dira berrezarri sinkronizazioarekin.
- beste gailutik zurera edukia berreskuratu. Berreskuratzearekin, edukia beste gailutik zurera transferitzen da. Baliteke beste gailuko jatorrizko edukia mantendu edo ezabatzeko eskatzea, gailuaren modeloaren arabera.
- edukia zure gailutik beste batera bidali

Elementuren bat bidaltzerik ez badu, beste gailuaren motaren arabera, elementua Nokia karpetan gehi dezakezu **C:\Nokia**-n edo **E:\Nokia** zure gailuan. Transferitzeko karpeta aukeratzen duzunean, elementuak beste gailuko dagokien karpetan sinkronizatzen dira, eta alderantziz.

## Lasterbideak erabili transferentzia errepikatzeko

Datu transferentzia baten ondoren, pantaila nagusian transferentziaren ezarpenak lasterbide batean gorde daitezke transferentzia berbera geroago errepikatzeko.

Lasterbidea editatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Lasterbide ezarpenak**. Adibidez, lasterbidearen izena sortu edo aldatu dezakezu.

Transferentzia bakoitzaren ondoren transferentzia erregistro bat agertzen da. Azken egindako transferentzia baten erregistroa ikusteko, ikusbide nagusian lasterbide bat aukeratu eta **Aukerak** > **Ikusi erregistroa**.

## Transferentzia arazoak konpondu

Transferitu beharreko elementu bat bi gailuetan aldatu bada, gailua aldaketak automatikoki batzen saiatuko da. Posible ez bada, gatazka azalduko da. **Banaka egiaztatu**, **Lehentas. tel. honi eman** edo **Lehent. beste tel. eman** aukeratu arazoa konpontzeko.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Profilak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Profilak**.

Profilen bidez tonuak zehatz eta pertsonaliza daitezke: deiak, mezuak, taldeak eta bestelako gertaerentzako. Aukeratutako profilaren izena hasierako pantailaren goialdean agertuko da.

Profila aldatzeko, joan profilera eta hautatu **Aukerak** > **Aktibatu**.

Profila pertsonalizatzeko, joan profilera eta hautatu **Aukerak** > **Pertsonalizatu**. Aukeratu aldatu nahi duzun ezarpena

Profil bat hurrengo 24 orduetan aktibo izateko, joan profilera, hautatu **Aukerak** > **Epea ezarrita** eta zehaztu ordua. Epea igarotakoan profila aurreko epe gabeko profilera itzultzen da. Profilak epe bat badu, ◷ agertuko da hasierako pantailan. Lineaz kanpo profilari ezin zaio eperik ezarri.

Profil berri bat sortzeko, **Aukerak** > **Sortu berria** aukeratu.

# Telefonoa

## Hasierako pantaila

### Hasierako pantailari buruz

Hasierako pantailan gehien erabiltzen dituzun aplikazioetan sar zaitezke zuzenean, aplikazioak kontrolatu, musika erreproduzitzailea esaterako, kontaktu gogokoak ikusi eta begirada batean dei galduak edo mezu berriak dituzun ikus dezakezu.




### Hasierako pantailaren elementu interaktiboak

Erlojua irekitzeko, ukitu erlojua (1).

Hasierako pantailan egutegia irekitzeko edo profilak aldatzeko, ukitu data edo profilaren izena (2).

Konektibitate ezarpenak ikusteko edo aldatzeko (⇌), eskuragarri dauden haririk gabeko LANak ikusteko WLAN bilaketa gaituta badago, edo galdutako gertaerak ikusteko, ukitu goialdeko eskuineko izkina (3).

Deitzeko, hautatu ▦ (4).

Menu nagusia irekitzeko, sakatu menu tekla (5).

Edukia ezkutatu eta erakusteko, ukitu pantaila atzamarrarekin.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Hasierako pantailan elementuak gehitzea

Elementu bat hasierako pantailan gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Editatu edukia** > **Aukerak** > **Gehitu edukia** eta hautatu zerrendako elementuren bat.

Widgetak erabiltzerakoan datu kantitate handiak transferi daitezke (sareko zerbitzua).

Elementu bat mugitzeko, hautatu **Aukerak** > **Editatu edukia**, hautatu nahi duzun elementua eta arrastatu eta jaregin nahi duzun lekuan.

## Hasierako pantailatik elementuak kendu

Hautatu **Aukerak** > **Editatu edukia** eta kendu behar den elementua.

Hautatu **Aukerak** > **Kendu** > **Egina**.

## Posta elektronikoko jakinarazpenak

### Posta elektroniko jakinarazpenei buruz

Hasierako pantailako mezu elektronikoen jakinarazpenek postontziko irakurri gabeko mezuak jarraitzen laguntzen dute. Telefonoak mezu elektronikoen goiburuen aurrebista erakuts dezan ala soilik irakurri gabeko mezu-kopurua erakuts dezan ezar dezakezu.

### Posta elektronikoarekin lan egitea hasierako pantailan

Hasierako pantailan posta elektronikoa gehitzeko, hasierako pantailan hautatu **Aukerak** > **Editatu edukia** > **Aukerak** > **Gehitu edukia** > **Posta elektr. tresna**.

Posta elektronikoko kontua konfiguratzeko, hasierako pantailan, hautatu **Konfiguratu posta elektr.** eta jarraitu argibideak. Konfigurazioa amaitzen denean, posta elektronikoaren ikurra agertzen da hasierako pantailan. Posta elektronikoaren postontzia irekitzeko, ukitu ikurra.

## Musika erreproduzitzailea hasierako pantailan

Musika erreproduzitzailea hasierako pantailatik erabil dezakezu. Musika erreproduzitzailearen kontrolak aktibatzeko, hautatu **Aukerak** > **Editatu edukia** > **Aukerak** > **Gehitu edukia** > **Musika-jogailua**.

**Joan Musikara** agertzen da hasierako pantailan.

Musika erreproduzitzailea irekitzeko, ukitu **Joan Musikara** eta hautatu entzun nahi dituzun elementuak.

Abesti bat erreproduzitzen den bitartean musika erreproduzitzailearen kontrol teklak eta, eskuragarri badago, abestiaren izenburua, artista eta albumaren argazkia bistaratzen dira.

## Kontaktu gogokoak hasierako pantailan

Hasierako pantailan hainbat kontaktu gehi ditzakezu eta kontaktuei deitu edo mezuak azkar bidal diezazkiekezu,


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

kontaktuen web jarioak ikusi edo kontaktuaren informazioan eta ezarpenetan sar zaitezke.

1 Kontaktu gogokoak hasierako pantailan gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Editatu edukia** > **Aukerak** > **Gehitu edukia** > **Gogoko kontaktuak**.

   ikur zerrenda bat agertuko da hasierako pantailan.

2 Hautatu ikur bat () eta Kontaktuetatik kontaktu bat.

## Zure "Partekatu on-line" jario gogokoena hasierako pantailan gehitzea

"Partekatu on-line" tresna hasierako pantailan gehituz, zure "Partekatu on-line" jariora azkar joan zaitezke.

1 Hasierako pantailan, hautatu **Aukerak** > **Editatu edukia** > **Aukerak** > **Gehitu edukia** > **Par. on-line**.
2 Hautatu gehitu nahi duzun jarioa. Baliteke jario bat gehitu ahal izan aurretik zerbitzu-hornitzailearen zerbitzu batean erregistratu behar izatea.

Tresnak zure "Partekatu on-line" kontuetako hautatutako jarioaren koadro-txikiko irudiak erakusten ditu. Irudi berrienak lehen agertzen diren irudiak dira.

## Pantailako adierazleak

Telefonoa GSM sare batean erabiltzen ari da (sareko zerbitzua).

3G Telefonoa UMTS sare batean erabiltzen ari da (sareko zerbitzua).

Mezularitzako Sarrera ontzia karpetan irakurri gabeko mezu bat edo gehiago dauzkazu.

Mezu elektroniko bat jaso duzu urruneko postontzian.

Irteera ontzia karpetan bidali beharreko mezuak daude.

Galdutako deiak dituzu.

Tonu mota Isilik gisa ezarrita dago eta mezuen eta posta elektronikoaren abisuak itzalita daude.

Programatutako profil bat aktibatuta dago.

Ukipen pantaila eta teklatua blokeatuta daude.

Alarma bat aktibatuta dago.

2 Bigarren telefonoko linea erabiltzen ari da (sareko zerbitzua).

Telefonoak jasotako dei guztiak beste zenbaki batera desbideratzen ari dira (sareko zerbitzua). Telefonoko bi linea aktibo badituzu, zenbaki batek aktibo dagoena erakutsiko dizu.

Telefonoa hari gabeko LAN edo UMTS (sareko zerbitzua) bati konektatuta dago eta Interneteko dei baterako prest dago.

Aurikular bateragarriak telefonora konektatuta daude.

Telebistarako irteera kable bateragarri bat telefonora konektatuta dago.

Testu telefono bateragarri bat telefonora konektatuta dago.

D Datu dei bat aktibo dago (sareko zerbitzua).

GPRS datu pakete konexio bat aktibo dago (sareko zerbitzua). ikurrak konexioa atxikia dagoela adierazten du eta ikurrak konexioa erabilgarri dagoela.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

- EGPRSrekin bateragarria den sarearen zati batean datu pakete konexio bat aktibo dago (sareko zerbitzua). ikurrak konexioa atxikia dagoela adierazten du eta ikurrak konexioa erabilgarri dagoela. Ikonoek sarean EGPRS eskuragarri dagoela adierazten dute, baina telefonoak ez du zertan EGPRS erabili beharrik datuak transferitzeko.
- UMTS datu-pakete konexio bat aktibo dago (sareko zerbitzua). ikurrak konexioa etenda dagoela adierazten du eta ikurrak, berriz, konexioa ezarri dela.
- HSDPA teknologia (high-speed downlink packet access) onartzen da eta aktibo dago (sareko zerbitzua). ikurrak konexioa etenda dagoela adierazten du eta ikurrak konexioa ezarri dela.
- Telefonoari hari gabeko LAN konexioak bilatzeko agindu diozu, eta badago hari gabeko LAN konexio bat erabilgarri (sareko zerbitzua).
- Hari gabeko LAN konexio bat aktibo dago kodeketa erabiltzen duen sare batean.
- Hari gabeko LAN konexio bat aktibo dago kodeketa erabiltzen ez duen sare batean.
- Bluetooth konexioa aktibatuta dago.
- Datuak Bluetooth konexioa erabiliz bidaltzen ari dira. Adierazleak dardara egiten duenean, telefonoa beste batekin konektatzen saiatzen ari dela esan nahi du.
- USB konexio bat aktibo dago.
- Sinkronizatzen ari da.
- GPSa aktibo dago.

## Lasterbideak

Irekita dauden aplikazioen artean aldatzeko, eduki sakatuta menu-tekla.

Aplikazioak atzeko planoan abian uzten badira energia gehiago gastatzen du telefonoak eta bateriaren iraupena murrizten da.

Arakatzaile aplikazioa irekitzeko, markagailuan eduki sakatuta **0**.

Profilez aldatzeko, sakatu pizteko tekla eta hautatu profila.

Erantzungailura deitzeko (sareko zerbitzua), markagailuan eduki sakatuta **1**.

Markatutako zenbakien zerrenda irekitzeko, hasierako pantailan sakatu deitzeko tekla.

Ahots-komandoak erabiltzeko, hasierako pantailan eduki sakatuta deitzeko tekla.

Idaztean, idazteko hizkuntza aldatzeko, sakatu eta ikurren tekla.

## Bilaketa

### Bilatu zerbitzuari buruz

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bilatu**.

Bilatu aplikazioarekin Interneten oinarritzen diren zenbait zerbitzu erabil ditzakezu, adibidez, webguneak eta irudiak


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

bilatzeko. Zerbitzuen edukia eta eskuragarritasuna alda daiteke.

## Bilaketa bat egin

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bilatu**.

Mugikorraren edukia bilatzeko, idatzi bilaketa hitzak bilaketa eremuan edo arakatu edukiaren kategoriak. Bilaketa hitzak idatzi ahala, emaitzak kategorietan sailkatzen dira. Berriki ikusitako emaitzak emaitzen zerrendaren goialdean agertzen dira bilaketa hitzekin bat badatoz.

Interneten web orriak bilatzeko, hautatu **Bilatu Interneten** eta bilaketa-hornitzaile bat eta idatzi bilaketa hitzak bilaketa eremuan. Hautatzen duzun bilaketa-hornitzailea Interneteko bilaketa-hornitzaile lehenetsi gisa ezartzen da.

Jadanik bilaketa-hornitzaile bat lehenetsi bada, hautatu ezazu bilaketa hasteko edo hautatu **Bilaketa zerbitzuak** beste bilaketa-hornitzaile bat erabiltzeko.

Bilaketa-hornitzaile lehenetsia aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Bilak. zerbitzuak**.

Hornitzaile gehiago bilatzeko herrialde edo eskualde ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Herrialdea edo eskuald.**.

## Ezarpenak bilatzea

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Bilatu**.

Bilaketa aplikazioaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

**Herrial. edo eskuald.** — Hautatu zein herrialdean edo eskualdean bilatu nahi duzun.

**Konexioa** — Hautatu sarbidea eta sare konexioak baimendu edo ez.

**Bilaketa zerbitzuak** — Hautatu hornitzaileak eta bilaketa kategoriak erakutsiko diren ala ez.

**Orokorra** — Gaitu edo ezgaitu aholkuak eta ezabatu bilaketaren historia.

## Bolumenaren eta bozgorailuaren kontrola

Dei aktibo bat duzunean edo soinu klip bat entzuten ari zarenean bolumena egokitzeko, erabili bolumen tekla.



Bozgorailu inkorporatuarekin, telefonoa belarritik distantzi motzean edukiz hitz egin daiteke.

Dei batean bozgorailua erabiltzeko, aukeratu **Aktibatu bozgor.**.

Bozgorailua itzaltzeko, aukeratu **Aktib. telefonoa**.

## Deskonektatuta profila

Lineaz kanpo profila aktibatzeko, sakatu pizteko tekla eta hautatu **Lineaz kanpo**.

Lineaz kanpo profilari esker telefonoa erabiltzen jarrai dezakezu, hari gabeko sare zelularrera konektatzeko beharrik gabe. Lineaz kanpo profila aktibatzen denean, hari gabeko sare zelular konexioa itzaltzen da, seinale adierazleak erakutsi bezala: ✕. Irrati frekuentzia (RF) seinale guztiak gailutik eta gailura eta sare zelularrera galarazita daude. Sare zelularra erabiliz mezuak bidaltzen saiatuz gero, Irteera ontzi karpetan gordeko dira beranduago bidaltzeko.

Lineaz kanpo profila aktibatuta dagoenean, telefonoa SIM txartelik gabe erabil daiteke.

SIM txartela bere lekuan ez badago, telefonoa deskonektatuta profilean abiaraziko da.

**Garrantzitsua:** Lineaz kanpoko profilean ezin da deirik egin edo jaso, ezta haririk gabeko sare estaldura eskatzen duten beste funtzio batzuk erabili ere. Hala ere, zure telefonoan ezarritako larrialdi zenbaki ofizialera dei liteke ere. Deiak egin ahal izateko, lehenik eta behin profilak aldatu eta, gero, telefonoaren funtzionalitatea aktibatu behar da. Gailua blokeatua izan bada, sar ezazu blokeatzeko kodea.

Deskonektatuta profila aktibatu ondoren, hari gabeko LAN konexioa erabil daiteke, adibidez, posta elektronikoa irakurtzeko edo Internet arakatzeko. Bluetooth konexioa ere erabil daiteke deskonektatuta profila aktibatuta dagoenean. Gogoratu segurtasun baldintza aplikagarri guztiak bete behar direla hari gabeko LAN edo Bluetooth konexio bat ezarri edo erabiltzerakoan.

Beste profil batera aldatzeko, sakatu pizteko tekla eta aukeratu beste profil bat. Telefonoak hari gabeko transmisioak gaituko ditu (seinalerik iristen bada).

## Deskarga bizkorra

High-speed downlink packet access (HSDPA, 3.5G gisa ere ezaguna, 3.5G adierazlea duena) UMTS sareetako zerbitzu bat da eta abiadura handiko datu deskargak eskaintzen ditu. HSDPA gaituta badago eta telefonoa HSDPA zerbitzuarekin bateragarria den UMTS sare batetara konektatuta badago, mezuak, mezu elektronikoak, eta arakatzaile webguneen deskargak azkarrago iritsiko dira zure telefonora. 3.5G ikurrak HSDPA konexio aktiboa adierazten du.

HSDPArako laguntza aktiba edo desaktiba dezakezu datu-paketeen ezarpenetan.

Datu konexio zerbitzuei buruzko eskuragarritasuna eta harpidetzari buruz gehiago jakiteko jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

HSDPA zerbitzuak deskarga abiaduran soilik du eragina, ez du eraginik datuak (mezuak, mezu elektronikoak, etab.) sarera bidaltzerakoan.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Ovi (sareko zerbitzua)

### Ovi ireki Nokia N97 mini-rekin.

Ovi Nikia zerbitzu desberdinetarako atea da.

Bisita bat eta informazio gehiagorako, www.ovi.com -ra joan zure ordenagailuan.

## Ovi denda

### Ovi dendari buruz

Ovi dendan telefonorako jokoak, aplikazioak, bideoak, irudiak eta tonuak deskarga ditzakezu. Elementu batzuk doakoak dira, beste batzuk kreditu txartela erabiliz edo telefono fakturaren bidez erosi behar dituzu. Ovi dendak telefonoarekin bateragarria den edukia eta zure gustu eta kokapenaren arabera interesgarriak izan litekeenak eskaintzen dizkizu.

Ovi dendako edukia honako kategorietan antolatuta dago:

- Gomendatuak
- Jokoak
- Pertsonalizazioa
- Aplikazioak
- Audioa eta bideoa

### Nokia kontu bat sortu

Nokia kontu bat sortzean, Ovi-n eta bere zerbitzu guztietan sar zaitezke erabiltzaile-izen eta pasahitza bakarra erabiliz.

1. Hautatu **Create a Nokia account**.
2. Idatzi erabiltzaile-izena.
3. Hautatu zure herrialdea zerrendan.
4. Idatzi zure jaioteguna.
5. Idatzi zure helbide elektronikoa edo telefono-zenbakia.
6. Idatzi pasahitza eta berretsi ezazu.
7. Idatzi eskuineko koadroan agertzen diren karaktereak.
8. Hautatu **Bidali**.

### Ovi dendan saioa hasi

#### Saioa hasi

Hautatu **Sign in** eta idatzi zure Nokia kontuaren erabiltzaile-izena eta pasahitza.

#### Ahaztutako erabiltzaile-izena edo pasahitza berreskuratu

Hautatu **Options** > **Retrieve**.

### Ovi dendan bilatu

Ovi dendako elementuak kategorietan antolatuta daude. Kategoriak araka ditzakezu edo gako-hitzen bidez bila dezakezu.

Ikusi nahi duzun elementu-mota ere hauta dezakezu: doako elementuak edo ezagunenak, edo zuk gomendatutako elementuak.

### Elementu baten xehetasunak ikusi

Hautatu elementu bat informazio xehatua eta beste erabiltzaileen iritzia ikusteko. Ovi dendan saioa hasi baduzu, zure iritzia ere eman ahal izango duzu.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

### Beste erabiltzaileen iritzi gehiago irakurri

Hautatu **More reviews**.

### Iritziak idatzi

Hautatu iritzia idatzi nahi duzun esteka, idatzi zure iritzia eta esleitu 1 eta 3 izarren bitarteko sailkapena.

### Argitaratzaileari buruzko informazioa ikusi

Hautatu argitaratzailearen profilaren esteka.

### Erlazionatutako elementuak bilatu

Hautatu **More related**.

## Edukia erosi

1. Hautatu erosi nahi duzun elementua.
2. Hautatu **Buy**.
3. Idatzi zure Nokia kontuaren erabiltzaile-izena eta pasahitza. Konturik ez baduzu, hautatu **Create a Nokia account** eta idatzi beharrezko informazioa.
4. Hautatu kreditu-txartelaren edo telefonoaren fakturaren bidez ordaindu nahi duzun. Dagoeneko zure kreditu-txartelaren informazioa Nokia kontuan gordeta baduzu eta beste kreditu-txartel bat erabili nahi baduzu, hautatu **Edit payment settings** eta idatzi beharrezko informazioa. Zure kreditu-txartelaren informazioa Nokia kontuan gordetzeko, hautatu Save this card to my Nokia account kontrol-laukia.
5. Hautatu zure erosketaren ordainagiria jaso nahi duzun helbide elektronikoa.
6. Hautatu **Purchase**.

## Gogokoak lagunekin partekatu

Ovi dendarekin, Ovi dendako elementuetarako esteka duen testu-mezu bat bidal dezakezu.

1. Hautatu partekatu nahi duzun elementua.
2. Hautatu **Send to friend**.
3. Idatzi telefono-zenbakia nazioarteko formatuan.
4. Hautatu **Send**.

## Eduki desegokiaren berri eman

Jarri harremanetan Nokiarekin Ovi dendan eduki desegokia aurkituz gero.

1. Hautatu eduki desegokia duen elementua.
2. Hautatu **Report issue**.
3. Hautatu arrazoia zerrendan eta idatzi xehetasun gehiago, behar izanez gero.
4. Hautatu **Submit**.

## Ovi denda zerbitzuaren ezarpenak editatu

Ovi denda zerbitzuaren ezarpenetan, zure kontuaren informazioa alda dezakezu, Ovi dendan dituzun jarduerak ikusteko baimena lagunei eman diezaiekezu eta pasahitza zein segurtasun-galdera alda ditzakezu.

Ovi denda zerbitzuaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

Ovi sharing — Baimendu zure Ovi-ko kontaktuek Ovi dendan dituzun jarduerak ikustea.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Account information — Aldatu zure Nokia kontuaren xehetasunak.

Change password — Aldatu zure Nokia kontuaren pasahitza.

Change security question — Aldatu erabiltzaile-izena eta pasahitza berreskuratzea ahalbidetzen duen segurtasun-galdera.

Installation preferences — Hautatu nola instalatu nahi duzun edukia telefonoan.

# Deiak egin

## Hurbiltasun sentsorea

Telefonoak hurbiltasun sentsore bat du. Ustekabeko aukeraketaak saihesteko, ukimen-pantaila automatikoki ezgaitzen da deietan zehar telefonoa belarriaren ondoan jartzerakoan.



Ez estali hurbiltasun sentsorea, adibidez, estalki edo zinta babesleekin.

## Ahots deiak

1 Hasierako pantailan, aukeratu edo **Markagailua** markagailua irekitzeko eta idatzi telefono zenbakia, kodea barne. Zenbaki bat ezabatzeko, aukeratu **C**.

   Nazioarteko deietan, sakatu ***** bi aldiz + karakterea lortzeko (honek nazioarteko aurrezenbakia ordezkatzen du) eta idatzi herrialdearen aurrezenbakia, lurraldearen aurrezenbakia (beharrezkoa izanez gero, hasierako zeroa kendu) eta telefono zenbakia.

2 Deitzeko, sakatu deitzeko tekla.

3 Deia amaitzeko (edo dei saiakera ezeztatzeko), sakatu amaitzeko tekla.

   Amaitzeko tekla sakatuz dei bat amaitzen da, nahiz eta beste aplikazioren bat irekita egon.

1 Kontaktu zerrendatik dei bat egiteko, aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**.

2 Joan nahi duzun izenera. Edo ukitu bilaketa eremua izenaren lehenengo letrak edo karaktereak sartzeko eta joan izenera.

3 Kontaktuari deitzeko, sakatu deitzeko tekla. Kontaktu batean zenbaki ugari gorde badituzu, aukeratu zerrendatik nahi duzun zenbakia eta sakatu deitzeko tekla.

## Dei batean zehar

Mikrofonoa aktibatu eta desaktibatzeko, aukeratu edo .

Dei bat zain uzteko edo zain dagoen deia aktibatzeko, hautatu edo .

Bozgorailua aktibatzeko, hautatu . Aurikular bateragarri bat Bluetooth konexioarekin erantsi baduzu, soinua aurikularrera bideratzeko, hautatu **Aukerak** > **Aktibatu BT esku librek.**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

Entzungailuak berriz erabiltzeko, hautatu .

Deiak amaitzeko, hautatu .

Dei aktibotik zain dagoen deira aldatzeko, eta alderantziz, hautatu .

**Aholkua:** Ahots-dei aktibo bakarra duzunean, sakatu deitzeko tekla deia zain uzteko. Deia aktibatzeko, sakatu berriro deitzeko tekla.

DTMF tonu-kateak bidaltzeko (pasahitz bat, adibidez), hautatu **Aukerak** > **Bidali DTMFa**.

Sartu DTMF katea edo bilatu Kontaktu zerrendan.

Itxaronaldi karaktere bat (w) edo etenaldi karaktere bat (p) sartzeko, sakatu ***** behin baino gehiagotan.

Tonua bidaltzeko, hautatu **Ados**. DTMF tonuak telefono-zenbakian edo kontaktuaren xehetasunetako DTMF eremuan gehi ditzakezu.

Dei aktibo bat amaitzeko eta horren ordez zain dagoen deia erantzuteko, hautatu **Aukerak** > **Ordeztu**.

Zure dei guztiak amaitzeko, hautatu .

Ahots-dei batean erabili daitezkeen aukera asko sareak eskaintzen dituen zerbitzuak dira.

## Ahotsa eta bideo deien postontziak

Ahots edo bideo deien postontzira deitzeko (sareko zerbitzuak, bideo deien postontzia soilik UMTS sareetan eskuragarri dago), hasierako pantailan aukeratu  markagailua irekitzeko, eduki sakatuta **1** eta aukeratu **Ahots-postontzia** edo **Bideo-postontzia**.

1. Zure ahots edo bideo deien postontziko zenbakia aldatzeko, aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta aukeratu **Deitzen** > **Dei-postontzia**, postontzi bat eta **Aukerak** > **Aldatu zenbakia**.
2. Idatzi zerbitzu hornitzailearengandik jaso duzun zenbakia eta aukeratu **Ados**.

## Deiak erantzun edo ukatu

Dei bat erantzuteko, sakatu deitzeko tekla edo ireki tapa labainkorra.

Testu-mezu bat bidal dezakezu deia ukatu gabe, dei-egileari deia ezin duzula erantzun jakinaraziz. Erantzun mezua bidaltzeko, hautatu **Bidali mez.**, editatu testu-mezua eta sakatu deitzeko tekla.

Dei bat erantzun nahi ez baduzu, sakatu amaitzeko tekla. Deiak desbideratzeko telefonoaren ezarpenetan **Deien desbid.** > **Ahots-deiak** > **Okupatua badago** funtzioa aktibatzen baduzu, sarrerako dei bat ukatzearekin batera deia desbideratuko da.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Testu-mezu aukera aktibatzeko eta erantzun-mezu estandar bat idazteko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deia** > **Ukatu mezudun deiak** eta **Mezuaren testua**.

## Telekonferentzia bat hasi

Zure gailuak gehienez sei parte hartzaile onartzen ditu telekonferentzia bakoitzeko, zu barne.

1. Deitu lehenengo parte hartzaileari.
2. Beste parte hartzaile bati deitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Dei berria**. Lehenengo deia atxikitzen da.
3. Dei berria erantzun denean, lehenengo parte hartzailea telekonferentzian sartzeko, aukeratu .

   Deira pertsona berri bat gehitzeko, deitu beste parte hartzaileari eta gehitu dei berria konferentziara.

   Parte hartzaileetako batekin elkarrizketa pribatu bat edukitzeko, aukeratu .

   Mugitu parte-hartzailera eta hautatu . Telekonferentzia zure telefonoan atxikitzen da. Gainontzeko parte hartzaileek telekonferentziarekin jarrai dezakete.

   Konferentzia deira itzultzeko, aukeratu .

   Parte-hartzaile bat baztertzeko, hautatu , mugitu parte-hartzailera eta hautatu .
4. Telekonferentzia aktiboa amaitzeko, sakatu amaitzeko tekla.

## Telefono zenbaki baten markatze bizkorra

Funtzioa aktibatzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deia** > **Markatze bizkorra**.

1. Zenbaki tekla bati telefono zenbaki bat esleitzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Mark. bizkorra**.
2. Mugitu telefono zenbakia esleitu nahi duzun teklara eta aukeratu **Aukerak** > **Esleitu**.

   1 eta 2 ahots eta bideo postontzietarako gordeta daude.

Hasierako pantailan deitzeko, aukeratu  markagailua irekitzeko, aukeratu esleitutako tekla zenbakia eta sakatu deitzeko tekla.

Markatze bizkorra aktibo dagoenean hasierako pantailan deitzeko, aukeratu  markagailua irekitzeko eta eduki sakatuta esleitutako zenbaki tekla.

## Deia zain

Beste dei bat abian izan bitartean dei bat erantzun dezakezu.

Deiak zain aktibatzeko (sareko zerbitzua), aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deia** > **Deia zain**.

1. Zain dagoen deia erantzuteko, sakatu deitzeko tekla. Lehenengo deia atxikitzen da.
2. Dei batetik bestera aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Trukatu**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

3 Zain dagoen dei bat dei aktibo batekin konektatzeko eta zu dei hauetatik deskonektatzeko, hautatu **Aukerak** > **Transferentzia**.

4 Dei aktiboa amaitzeko, sakatu amaitzeko tekla.

5 Bi deiak amaitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bukatu dei guztiak**.

## Ahots bidezko markatzea

Gailuak automatikoki ahots-etiketa bat sortzen du kontaktuentzako. Sintetizatutako ahots-etiketa entzuteko, hautatu kontaktu bat eta **Aukerak** > **Ahots-etiketaren xehet.**. Kontaktu xehetasun batera joan eta hautatu **Aukerak** > **Erreprod. ahots-etiketa**.

### Dei bat egin ahots-etiketa baten bidez

**Oharra:** Ahots identifikadoreak erabiltzea zaila izan daiteke ingurune zaratatsu batean edo larrialdi batean; beraz, egoera guztietan ez da gomendatzen ahotsez markatutako deietan fidatzea.

Ahots bidezko markatzea erabiltzen duzunean, bozgorailua erabiltzen da. Eutsi telefonoa zugandik distantzi laburrean ahots-etiketa ahoskatzerakoan.

1 Ahots markatzea hasteko, hasierako pantailan eduki sakatuta deitzeko tekla. Aurikular bateragarri bat aurikularraren teklarekin eransten bada, eduki sakatuta ahots bidezko markatzea hasteko aurikularraren tekla.

2 Tonu labur bat entzungo da eta **Hitz egin orain** agertuko da. Esan argi kontaktuari dagokion izena.

3 Telefonoak ezagututako kontaktuaren sintetizatutako ahots-etiketa bat erreproduzitzen du aukeratutako hizkuntzan, eta izena eta zenbakia erakusten ditu. Ahots markatzea ezeztatzeko, aukeratu **Irten**.

Izen batek telefono zenbaki bat baino gehiago badu, izena eta zenbaki mota esan dezakezu ere, hala nola mugikorra edo telefonoa den.

## Bideo dei bat egin

Bideo dei bat egiterakoan (sareko zerbitzua), deiaren hartzaileak eta zuk denbora errealeko eta elkarrenganako bideo bat bistara dezakezue. Bideo deiaren hartzaileak zuzeneko bideoa edo kamerarekin ateratako argazkia ikus dezake.

Bideo dei bat egin ahal izateko, USIM txartel bat edukitzea eta UMTS sarearen estalduran egotea beharrezkoa da. Bideo dei zerbitzuen eskuragarritasuna, prezioa eta harpidetzari buruzko informazioa lortzeko, jo zure zerbitzuhornitzailearengana.

Bideo dei batean bi parte hartzaile egon daitezke soilik. Bideo deia gailu mugikor bateragarri batera edo ISDN bezero batera egin daiteke. Bideo deia ezin daiteke egin beste ahots, bideo edo datu dei bat aktibatuta dagoen bitartean.

### Ikonoak

 Ez zara bideorik jasotzen ari (hartzailea ez da bideorik bidaltzen ari edo sarea ez da transmititzen ari).

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Bideoak zure telefonotik bidaltzea ukatu duzu. Horren ordez argazki bat bidaltzeko, aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deia** > **Irudia bideo-deian**.

Bideo dei baten bitartean bideo bidalketa ukatu izan arren, deia bideo dei bezala kobratuko da. Prezioak ezagutzeko, jo zerbitzu hornitzailearengana.

1. Hasierako pantailan, aukeratu markagailua irekitzeko eta idatzi telefono zenbakia.
2. Aukeratu **Aukerak** > **Deitu** > **Bideo-deia**.

   Besterik adierazi ezean, aurrealdean dagoen bigarren kamera bideo deietan erabiliko da. Bideo dei bat egiteak luze jo dezake. Deiak arrakastarik ez badu (adibidez, sareak ez badu bideo deia onartzen edo deia jaso behar duen gailua bateragarria ez bada), dei normal bat egitea edo mezu bat bidaltzea nahi duzun galdetuko zaizu.

   Bideo dei hau aktibatuta dago bi bideo ikusten dituzunean eta bozgorailutik soinua entzuten duzunean. Deia jasotzen duen pertsonak bideo bidalketa uka lezake ( irudiarekin adierazten da), eta deitzen duen pertsonaren ahotsa bakarrik entzungo duzu eta baliteke irudi estatiko bat edo pantaila grisa ikustea.
3. Bideo deia amaitzeko, sakatu amaitzeko tekla.

## Bideo dei batean zehar

Bideoa ikustea edo deitzen duen pertsonaren ahotsa bakarrik entzutea aukeratzeko, aukeratu edo .

Mikrofonoa aktibatu eta desaktibatzeko, aukeratu edo .

Bozgorailua aktibatzeko, aukeratu . Aurikular bateragarri bat Bluetooth konexioarekin erantsi baduzu, soinua aurikularrera bideratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aktibatu BT esku librek.**.

Entzungailuak berriz erabiltzeko, aukeratu .

Telefonoaren atzealdean dagoen kamera bideo bat bidaltzeko erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Erabili bigarren kamera**.

Telefonoaaren aurrealdean dagoen kamerara itzultzea aukeratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Erabili kamera nagusia**.

Bidaltzen ari zaren bideoaren uneko argazkia bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bidali uneko argazkia**. Bidalketa eten egiten da eta uneko argazkiaren hartzaileari bidaltzen zaio. Uneko argazkia ez da gordetzen.

Zooma erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Zooma**.

Bideo kalitatea aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Doitu** > **Bideo-hobespenak** > **Kalitate arrunta**, **Xehetasun argiagoa** edo **Mugimendu leunagoa**.

## Bideo deiak erantzun edo ukatu

Bideo dei bat iristen denean, agertzen da.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

1 Bideo deia erantzuteko, sakatu deitzeko tekla.
2 Zuzeneko bideoa bidaltzen hasteko, aukeratu **Bai**.

Bideo bidalketa aktibatzen ez duzun bitartean, deitzailearen ahotsa besterik ez duzu entzungo. Zure bideoaren ordez pantaila gris bat agertzen da. Bideo bidalketa gaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Gaitu** > **Bideoa bidaltzea**.

Pantaila grisa ikusi ordez telefonoaren kamerarekin ateratako argazki bat ikusteko, aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deia** > **Irudia bideo-deian**.

Bideo dei bat erantzun nahi ez baduzu, sakatu amaitzeko tekla.

# Interneteko deiak

## Internet deien inguruan

Internet bidezko dei sare zerbitzuarekin, Internet bidezko deiak egin eta jaso ditzakezu. Internet bidezko dei zerbitzuak ordenagailuen, telefono mugikorren eta VoIP gailu baten eta ohiko telefono baten arteko deiak onar ditzake. Eskuragarritasunari eta kostuei buruzko informazioa lortzeko, jo Interneteko deien zerbitzu-hornitzailera.

Interneteko dei bat egiteko edo jasotzeko, hari gabeko LAN (WLAN) sare baten eremuan egon behar duzu, edo datu-pakete (GPRS) konexio bat izan behar duzu UMTS sare batean, eta Interneteko deien zerbitzu batetara konektatu behar duzu.

Baliteke zure gailuak instalazio widget bat eskaintzea dei zerbitzuak instalatzeko.

## Interneteko deien zerbitzu batean saioa hasi

Interneteko deien zerbitzu bat instalatutakoan, kontaktuen zerrendan zerbitzuaren fitxa bat bistaratuko da.

Zerbitzu batean saioa hasteko, hautatu **Menua** > **Kontaktuak**, zerbitzua eta **Aukerak** > **Hasi saioa**.

Lagunen zerrendan kontaktuak gehitzeko zerbitzuko kontaktu gisa, eskuz nahiz kontaktuen zerrendatik, hautatu **Aukerak** > **Kontaktu berria**.

## Interneteko deiak egin

Zerbitzu batean saioa hasi duzunean kontaktu bati deitzeko, sakatu kontaktua lagunen zerrendan eta hautatu .

Hasiera pantailatik Interneteko dei bat egiteko, hautatu , idatzi zenbakia eta hautatu **Aukerak** > **Deitu** > **Interneteko deia**.

Interneteko dei baten helbidera Interneteko dei bat egiteko, hasiera pantailan hautatu  eta **Aukerak** > **Ireki teklatua**. Helbidea adierazi eta aukeratu .

## Interneteko ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.** > **Sare-ezarp.**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Zerbitzu baten ezarpenak ikusteko eta editatzeko, hautatu **[07] ezarp.**.

Zerbitzu bat zerbitzuen zerrendatik kentzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu zerbitzua**.

### Interneteko deien zerbitzuaren ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**, ireki zerbitzu-fitxa bat eta hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Interneteko deien zerbitzu bat lehenesteko, hautatu **Zerbitzu lehenetsia**. Deitzeko tekla sakatzen duzunean zenbaki bati deitzeko, telefonoak Interneteko deia egiten du zerbitzu lehenetsia erabiliz, zerbitzua konektatuta badago. Zerbitzu bakarra ezar dezakezu zerbitzu lehenetsi gisa aldi berean.

Zerbitzuaren helmuga editatzeko, hautatu **Zerbitzu-konektagarrit.**.

## Partekatu bideoak

Bideo partekatzea (sare zerbitzua) erabili zuzeneko bideo edo bideo bat ahots-dei batean zure telefono mugikorretik beste telefono mugikor bateragarri batera bidaltzeko.

Bozgorailua aktibatuta dago bideo partekatzea aktibatzen duzunean. Bideoak partekatzen dituzunean ahots-deietan bozgorailua ez baduzu erabili nahi, aurikular bateragarriak erabili ditzakezu.

**Abisua:**
Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake. Entzun musika bolumen egokian eta ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua abian denean.

### Bideoak partekatzeko eskakizunak

Bideoak partekatzeko UMTS konexio bat beharrezkoa da. Bideo partekatzea erabiltzeko duzun ahalmena UMTS sarearen eskuragarritasunaren araberakoa da. Zerbitzuaren, UMTS sare eskuragarritasunaren eta zerbitzua erabiltzeagatik aplikatutako tarifen inguruko informazio gehiagorako, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

Bideo partekatzea erabiltzeko, egiaztatu hurrengoa:

- Telefonoa pertsonarteko konexiorako ezarria dago.
- UMTS konexio aktibo bat daukazu eta UMTS sarearen estalduran zaude. UMTS sarea bideoa partekatu bitartean uzten baduzu, partekatzea amaitu egingo da baina ahots deiarekin jarraitu ahal izango duzu.
- Igorlea eta hartzailea UMTS sarean erregistratuta daude. Norbait partekatze saio batera gonbidatzen baduzu eta hartzailearen telefonoa UMTS sarearen estalduran ez badago, bideo partekatzea instalatua ez badauka edo pertsonarteko konexioa ezarria ez badu, hartzaileak ez du gonbidapenik jasoko. Hartzaileak gonbidapena ezin duela onartu adierazten duen errore mezu bat jasoko duzu.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Ezarpenak

Bideo partekatzea ezartzeko, pertsonarteko eta UMTS konexio ezarpenak beharrezkoak dira.

### Pertsonarteko konexio ezarpenak

Pertsonarteko konexioa Session Initiation Protocol (SIP) bezala ere ezagutzen da. Bideo partekatzea erabiltzen hasi baino lehen SIP profilaren ezarpenak telefonoan konfiguratu behar dira. Eskatu zure zerbitzu hornitzaileari SIP profilaren ezarpenak eta gorde telefonoan. Zerbitzu hornitzaileak ezarpenak bidali edo beharrezko parametroen zerrenda bat eman zaitzake.

Kontaktuen txartel batean SIP helbide bat gehitzeko:

1. Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**.
2. Ireki kontaktua edo sortu kontaktu bat.
3. Aukeratu **Aukerak** > **Editatu** .
4. Aukeratu **Aukerak** > **Gehitu xehetasuna** > **Partekatu bideoa**.
5. Idatzi SIP helbidea erabiltzailea@domeinuarenizena formatuan (IP helbide bat erabil dezakezu domeinu baten izenaren ordez).

   Kontaktuaren SIP helbidea ez badakizu, hartzailearen telefono zenbakia sartzen saia zaitezke herrialdeko aurrezenbakiarekin bideoa partekatzeko (sarearen zerbitzu hornitzaileak onartzen badu).

### UMTS konexioaren ezarpenak

Zure UMTS konexioa konfiguratzeko:

- UMTS sare bat erabiltzeko akordio bat ezartzeko jo zure zerbitzu hornitzailearengana.
- Ziurtatu telefonoarentzako UMTS sarguneko konexioaren ezarpenak zuzenki konfiguratuta daudela. Ezarpenei buruzko informazio gehiago jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

## Zuzeneko bideoak partekatu

Ahots-dei batean zehar, hautatu **Aukerak** > **Partekatu bideoa**.

1. Bideoa deian zehar partekatzeko, aukeratu **Zuzeneko bideoa**.

   Bideo bat partekatzeko, aukeratu **Bideoklipa**. Telefonoaren memorian, memoria osagarrian edo memoria txartelean (eskuragarri badago) gordetako bideo klipen zerrenda agertzen da. Partekatu nahi duzun bideoa aukeratu.

   Baliteke bideoa formatu egoki batetara aldatu behar izatea partekatu ahala izateko. Gailuak bideoklipa bihurtu behar dela esaten badu, aukeratu **Ados**. Bihurketarako gailuak bideo editore bat izan behar du.
2. Hartzaileak SIP helbide edo telefono zenbaki bat baino gehiago baditu Kontaktuak atalean gordeta, lurralde kode eta guzti, aukeratu nahi duzun helbidea edo zenbakia. SIP helbidea edo telefono zenbakia eskuragarri ez badaude, idatzi hartzailearen helbidea edo telefono zenbakia lurralde kode eta guzti eta aukeratu **Ados** gonbitea bidaltzeko. Zure gailuak gonbidapena SIP helbidera bidaltzen du.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Partekatzea automatikoki hasten da hartzaileak gonbidapena onartzean.

### Partekatzean zeharreko aukerak

- mikrofonoa aktibatzeko edo desaktibatzeko
- bozgorailua aktibatzeko edo desaktibatzeko
- bideo partekatzea eten eta jarraitzeko
- pantaila osora aldatzeko (hartzaileak soilik)

3 Partekatzea amaitzeko, **Gelditu** aukeratu. Deia amaitzeko, amaitu tekla sakatu. Deia amaitutakoan partekatzea ere amaitu egiten da.

Partekatutako zuzeneko bideoa gordetzeko, aukeratu **Bai** galdetutakoan. Gailuak partekatutako bideoaren kokapena jakinarazten dizu.

Bideo bat partekatzen ari zarela beste aplikazio batera joanez gero, partekatzea eten egiten da. Bideo-partekatzearen ikuspegira itzultzeko eta partekatzen jarraitzeko, hasiera-pantailan, hautatu **Aukerak** > **Berrekin bideo partek.**.

## Gonbidapen bat onartu

Norbaitek bideoa partekatzeko gonbidapen bat bidaltzen dizunean, gonbidapen mezuan igorlearen izena eta SIP helbidea agertzen dira.

Norbaitek partekatze-gonbidapen bat bidaltzen badizu eta 3G sarearen estalduran ez bazaude, ez duzu gonbidapen bat jaso duzula jakingo.

Gonbidapen bat jasotzen duzunean, aukeratu honako hauetatik:

**Bai** — Gonbidapena onartu eta partekatze sesioa aktibatu.

**Ez** — Ukatu gonbidapena. Igorleak mezu bat jasotzen du zuk gonbidapena ukatu duzula esanez. Bukatzeko tekla ere saka dezakezu gonbidapen bat ukatzeko eta ahots dei bat bukatzeko.

Partekatzea amaitzeko, aukeratu **Gelditu**. Deia amaitzeko, sakatu amaitzeko tekla. Deia amaitutakoan partekatzea ere amaitu egiten da.

## Erregistroa

Erregistroak telefonoaren komunikazioei buruzko informazioa gordetzen du. Telefonoak galdutako eta jasotako deiak erregistratzen ditu, sareak funtzio hauek onartzen baditu, telefonoa piztua badago eta sareko estaldura eremuan badago.

## Azken deiak

Zure azken deiei buruzko informazioa ikus dezakezu.

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Erregistroa** eta **Azkeneko deiak**.

### Galdutako, jasotako eta egindako deiak ikusi

Hautatu **Dei galduak**, **Jasotako deiak** edo **Markatutako zk.**.

**Aholkua:** Hasierako pantailan markatutako zenbakien zerrenda ikusteko, sakatu deitzeko tekla.

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

**Gorde Kontaktuetan** — Gorde kontaktuetan azken deien zerrendako telefono-zenbaki bat.

**Ezabatu zerrenda** — Garbitu hautatutako azken deien zerrenda.

**Ezabatu** — Ezabatu hautatutako zerrendako gertaera bat.

**Ezarpenak** — Hautatu **Erregistroaren iraupena** eta datuak erregistroan gordeta geratzea nahi duzun denbora-tartea. **Ez dago erregistrorik** hautatuz gero, ez da informaziorik gordeko erregistroan.

## Deien iraupena

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Erregistroa**.

Azken, egindako eta jasotako deien gutxi gorabeherako iraupena ikusteko, hautatu **Deien iraupena**.

**Oharra:** Zerbitzu-hornitzaileak igortzen dizun dei eta zerbitzuen faktura aldatu egin daiteke, sarearen ezaugarrien, fakturen biribilketen, zergen eta abarren arabera.

## Datu-paketeak

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Erregistroa**.

Datu-pakete konexioetan bidalitako edo jasotako datu kopurua aztertzeko, hautatu **Pakete-datuak** > **Bidali. datu guz.** edo **Jasot. datu guzt.**.

Jasotako eta bidalitako informazioa ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu kontagailuak**. Informazioa ezabatzeko blokeo kodea behar duzu.

## Komunikazio gertaera guztiak ikuskatu

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Erregistroa**.

Erregistro orokorra irekitzeko eta bertan ahots deiak, testu mezuak edo datu eta hari gabeko LAN konexioak ikuskatzeko, hautatu erregistro orokorraren fitxa ☰⬇⇧.

Azpigertaerak, zatituta bidalitako testu mezuak eta datu pakete konexioak, esaterako, komunikazio gertaera gisa erregistratzen dira. Postontzia, multimedia mezuen zentroa edo web orriak datu pakete konexio gisa agertzen dira.

Transferitutako datu kopurua ikusi eta datu pakete konexio zehatz baten iraupena ezagutzeko, joan **GPRSa** adierazlea duen jasotako edo egindako gertaera batera eta aukeratu **Aukerak** > **Ikusi**.

Erregistroko telefono zenbaki bat arbelean kopiatzeko eta testu mezu batean itsasteko, aukeratu **Aukerak** > **Zenbakia erabili** > **Kopiatu**.

Erregistroa iragazteko, aukeratu **Aukerak** > **Iragazi** eta iragazki bat.

Erregistroaren iraupena ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erregistroaren iraupena**. **Ez dago erregistrorik** aukeratzen baduzu, erregistroko edukia,


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

azken deien erregistroa eta mezuen bidalketa txostenak behin-betiko ezabatuko dira.

# Kontaktuak (agenda)

Kontaktuak irekitzeko, hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

Kontaktuen informazioa gorde eta egunera dezakezu, esaterako kontaktuen telefono zenbakiak, helbideak edo posta elektronikoko helbideak. Kontaktu bati dei-tonu pertsonala edo koadro txikiko irudi bat eslei diezaiokezu. Aldi berean testu-mezuak edo mezu elektronikoak hainbat hartzaileri aldi berean bidaltzeko, kontaktuen taldeak sor ditzakezu.

## Izenak eta zenbakiak gorde eta editatu

1 Kontaktuen zerrendan kontaktu berri bat gehitzeko, ukitu .

2 Sakatu eremu bat eremuan informazioa idazteko. Idazketa-metodoa ixteko, aukeratu ✔. Bete nahi dituzun eremuak eta aukeratu **Egina**.

Kontaktu bat irekitzeko, aukeratu kontaktua eta aukeratu **Aukerak** > **Editatu**.

## Kontaktuen tresna barra

Aukeratu kontaktu zerrendaren tresna barran:

**Deitu** — Deitu aukeratutako kontaktuari

**Sortu mezua** — Bidali mezu bat aukeratutako kontaktuari.

**Kontaktu berria** — Kontaktu bat sortu.

## Izenak eta zenbakiak kudeatu

Kontaktu bat kopiatu edo ezabatzeko, edo kontaktu bat bisita txartel gisa beste gailu batera bidaltzeko, eduki sakatuta kontaktua eta aukeratu **Gehitu gogokoetara**, **Editatu** edo **Bidali bisita-txart.**.

Aldi berean kontaktu ugari ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Markatu/Kendu marka** nahi dituzun kontaktuak markatzeko eta sakatu **Aukerak** > **Ezabatu** ezabatzeko.

Kontaktu bati esleitutako ahots etiketa entzun nahi baduzu, aukeratu kontaktua eta **Aukerak** > **Ahots-etiketaren xehet.** > **Aukerak** > **Erreprod. ahots-etiketa**.

Ahots identifikadoreak erabili auretik, kontuan izan hurrengo hau:

- Ahots idenfikadoreak ez dute hizkuntzaren arabera funtzionatzen. Hiztunaren ahotsaren arabera funtzionatzen dute.
- Izena esaterakoan, grabatu zenuen modu berean ahoskatu behar da.
- Ahots identifikadoreek erraz nabarmentzen dute inguru-zarata. Grabatu eta erabili ezazu ingurugiro isiletan.
- Ez dira onartzen izen oso motzak. Erabili izen luzeak, eta saiatu zenbaki ezberdinentzat antzeko izenak ez erabiltzen.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Oharra:** Ahots identifikadoreak erabiltzea zaila izan daiteke ingurune zaratatsu batean edo larrialdi batean; beraz, egoera guztietan ez da gomendatzen ahotsez markatutako deietan fidatzea.

## Zenbaki eta helbide lehenetsiak

Telefono zenbaki eta helbide lehenetsiak ezar diezazkiozu kontaktu bati. Kontaktu batek helbide eta telefono zenbaki ugari baditu, errazagoa izango da kontaktuari deitu edo mezuak bidaltzea telefono edo helbide berezi bat izanda. Zenbaki lehenetsia ahots bidezko markatzerako ere erabiliko da.

1. Aukeratu kontaktua kontaktuen zerrendan.
2. Aukeratu **Aukerak** > **Lehenetsiak**.
3. Aukeratu gehitu nahi duzun zenbakia edo helbide lehenetsia eta aukeratu **Esleitu**.
4. Aukeratu lehenetsi nahi duzun zenbakia edo helbidea.
5. Lehenetsiak ikuspegitik irteteko eta aldaketak gordetzeko, ukitu edonon ikuspegitik kanpo.

## Kontaktuen fitxak

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak** eta kontaktu bat. Hautatutako kontaktuak eskuragarri dituen komunikazio-metodo guztiak kontaktu-txartel ikuspegian agertzen dira.

Hautatu kontaktu bat zerrendatik, nahi duzun komunikazio-metodoa, **Aukerak** eta aukera hauetariko bat:

**Editatu** — Editatu, gehitu edo ezabatu kontaktua txartel eremutik.

**Lehenetsiak** — Lehenetsi kontaktu batekin komunikatzerakoan erabiliko diren zenbakiak eta helbideak, kontaktuak zenbaki edo helbide bat baino gehiago izanez gero.

**Ahots-etiketaren xehet.** — Ikusi ahots-etiketaren xehetasunak edo entzun kontaktu baten ahots-etiketa.

Eskuragarri dauden aukerak eta komunikazio-metodoak ezberdinak izan daitezke.

## Kontaktuak gogoko gisa ezartzea

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**.

Gogokoak gogoko kontaktu gisa ezarri dituzun kontaktuak dira. Kontaktu hauek kontaktu zerrendaren goialdean agertzen dira.

Kontaktu bat gogoko gisa ezartzeko, hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Gehitu gogokoetara**. Gogokoak izar ikur batekin markatzen dira.

Gogokoetatik kontaktu bat ezabatzeko, hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Kendu gogokoetatik**. Ezabatutako kontaktua kontaktu zerrenda arruntera mugitzen da.

## Kontaktuen tonuak, argazkiak eta deietako testua

Kontaktu talde baterako dei tonua ezar dezakezu, eta irudia eta dei testua kontaktu baterako. Kontaktuak deitzen zaituenean, telefonoak aukeratutako tonua joko du eta dei testua edo irudia agertuko da (deitzen duen pertsonaren telefono zenbakia agertzen bada eta zure telefonoak ezagutzen badu).


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Kontaktu edo talde bati tonu bat esleitzeko, hautatu kontaktua edo taldea, **Aukerak** > **Editatu** > **Dei-tonua** eta tonua.

Kontaktuaren xehetasunen ikuspegian eremu gehiago gehitzeko, hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Editatu** > **Aukerak** > **Gehitu xehetasuna**.

Kontaktu baten deietarako testua zehazteko, hautatu kontaktua eta **Aukerak** > **Editatu** > **Aukerak** > **Gehitu xehetasuna** > **Dei-abisuaren testua**. Sakatu eremua deietako testua idazteko eta hautatu ✓.

Telefonoaren memorian gordeta dagoen kontaktu batean irudi bat gehitzeko, hautatu kontaktua, **Aukerak** > **Editatu** > **Gehitu irudia** eta Photos ataleko irudiren bat.

Tonua ezabatzeko, aukeratu **Tonu lehenetsia** tonuen zerrendan.

Kontaktu bat argazkia ikusteko, aldatzeko edo kentzeko, hautatu kontaktua, **Aukerak** > **Irudia** eta nahi duzun aukera.

## Kontaktuak kopiatu

Kontaktu zerrenda lehenengo aldiz irekitakoan, telefonoak SIM txarteleko izenak eta zenbakiak zure telefonora kopiatzea nahi duzun galdetuko dizu.

Kopiatzen hasteko, aukeratu **Ados**.

Aukeratu **Utzi** SIM txarteleko kontaktuak zure telefonora kopiatu nahi ez badituzu. SIM txarteleko kontaktuak kontaktuen direktorioan ikusi nahi dituzun galdetuko zaizu. Kontaktuak ikusteko, aukeratu **Ados**. Kontaktu zerrenda irekiko da eta zure SIMean gordeta dauden kontaktuak irudiarekin markatuta agertuko dira.

## SIM zerbitzuak

SIM txarteleko zerbitzuak eskuratzeko aukeren berri jasotzeko, jo zure SIM txartelaren saltzailearengana. Txartela saldu zizuna zure zerbitzu hornitzailea bera edo beste saltzaile bat izan daiteke.

### SIM kontaktuak

SIM txartelean gordetako izenak eta zenbakiak kontaktu zerrendan agertzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erakutsiko diren kontak.** > **SIM memoria**. SIMeko kontaktuak gehitu edo edita ditzakezu edo hauei dei diezaiekezu.

Baliteke kontaktuen zerrendan gordetako zenbakiak automatikoki zure SIM txartelean ez gordetzea. SIM txartelean zenbakiak gordetzeko, aukeratu kontaktua eta **Aukerak** > **Kopiatu** > **SIM memoria**.

Sartu dituzun kontaktu berriak telefonoan edo SIM txartelean gorde nahi dituzun ala ez aukeratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Lehenetsitako memoria** > **Tel. memoria** edo **SIM memoria**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Markatze finkoa

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak** eta **Aukerak** > **SIM zenbakiak** > **Markatz. fink. kontak.**.

Markatze finkoaren bidez, zure telefonotik zenbait telefono muga ditzakezu. Baliteke SIM txartel guztiek markaketa finkoko zerbitzua ez jasatea. Informazio gehiagorako jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Deiak murrizten dituzten segurtasun-aukerak gaituta egonda ere (deiak blokeatzea, erabiltzaile talde itxia eta markatze finkoa, adibidez), telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitzea dago. Deiak blokeatzeko eta deiak desbideratzeko moduak ezin dira aldi berean gaituta eduki.

Markatze finkoa aktibatu edo desaktibatzeko eta kontaktuak editatzeko PIN2 kodea beharko duzu. Zure PIN2 kodea lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu hornitzailearekin.

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

**Aktibatu mark. finkoa** — Aktibatu markatze finkoa.

**Desakt. markatze finkoa** — Desaktibatu markatze finkoa.

**SIM kontaktu berria** — Idatzi Deiak baimenduta dituen kontaktuaren izena eta telefono zenbakia.

**Gehitu Kontaktuetatik** — Kopiatu kontaktu bat kontaktuen zerrendatik markatze finkoaren zerrendara.

Markatze finkoa aktibatuta duzula, SIM kontaktuei mezuak bidaltzeko, markatze finkoko zerrendan mezularitza zentroaren zenbakia gehitu behar duzu.

## Kontatuen taldeak

Taldeen zerrenda irekitzeko, ireki kontaktuen zerrenda eta ukitu .

### Kontaktuen taldeak sortzea

1. Talde berri bat sortzeko, taldeen zerrendan, hautatu **Aukerak** > **Talde berria**. Erabili izen lehenetsia edo idatzi izen berri bat. Hautatu **Ados**.
2. Kideak taldean gehitzeko, hautatu taldea eta **Aukerak** > **Gehitu kideak**.
3. Markatu gehitu nahi duzun kontaktu bakoitza eta hautatu **Ados**.

### Kontaktu taldeak kudeatzea

Mezuak taldeko kide guztiei bidaltzeko, talde batentzako dei-tonu bat ezartzeko, talde baten izena aldatzeko edo taldea ezabatzeko, ukitu luze taldea eta hautatu **Sortu mezua**, **Dei-tonua**, **Berrizendatu** edo **Ezabatu**.

Talde batean kontaktuak gehitzeko, hautatu taldea eta **Aukerak** > **Gehitu kideak**.

Kontaktu batek zein beste taldeetan dagoen egiaztatzeko, hautatu taldea, joan kontaktura eta hautatu **Aukerak** > **Taldeetako kide da**.

Kontaktuak taldeetatik kentzeko, hautatu taldea, joan kontaktura eta hautatu **Aukerak** > **Kendu taldetik**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

# Ovi kontaktuak

## Ovi kontaktuak aplikazioari buruz

Ovi kontaktuak zerbitzuarekin lagunekin harremanetan izan zaitezke uneoro. Bilatu kontaktuak eta lagunak Ovi komunitatean. Izan uneoro lagunekin harremanetan: txateatu partekatu zure kokapena eta egora eta jarraitu lagunen nondik norakoak. Google Talk™ darabilten lagunekin ere hitz egin dezakezu.

Halaber, zure kontaktuak, egutegia eta bestelako edukia zure Nokia telefonoaren eta Ovi.com gunearen artean sinkroniza dezakezu. Zure datu garrantzitsuak gordetzen dira eta eguneratuta egongo dira bai telefonoan bai sarean ere. Ovi kontaktuak zerbitzuarekin, kontaktuen zerrenda dinamiko bihur dezakezu eta kontaktuak Ovi.com gunean gordeta daudela ziur egon zaitezke.

Zerbitzua erabiltzeko Nokia kontu bat izan behar duzu. Sortu kontu bat telefonoan edo zoaz www.ovi.com gunera ordenagailuan.

Ovi kontaktuak erabiltzeak zure zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez datu ugari igortzea eragin dezake. Datu-igorpenen tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo zure zerbitzu-hornitzailearengana.

## Ovi kontaktuak erabiltzen hasi

Hautatu **Kontaktuak** eta ireki Ovi fitxa.

Ovi kontaktuak zerbitzua Ovi-ren atal bat da eta kontu bereko datuak erabiltzen ditu.

Ovi eta bere zerbitzuak erabiltzen berria bazara, Ovi kontaktuak erabiltzen hasteko, Ovi-n erregistratu behar duzu Nokia kontu bat sortuz.

### Nokia kontu bat sortu

1. Hautatu **Ovi txata** eta, eskatutakoan, konektatu Internetera.
2. Idatzi beharrezko datuak.
3. Nire profila ikuspegian, idatzi zure profilaren informazioa. Zure izena eta abizena derrigorrezkoak dira.
4. Hautatu **Eginda**.

Dagoeneko ordenagailuarekin edo mugikorrarekin Ovi-n erregistratu bazara, Ovi kontaktuak erabiltzen has zaitezke kontu berarekin.

### Ovi kontaktuak zerbitzuan saioa hasi eta zerbitzua aktibatu

Hautatu **Ovi txata** eta idatzi zure erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Ovi kontaktuak ataleko profileko xehetasunak oraindik zehaztu ez badituzu, ezar itzazu eta hautatu **Eginda**. Zure izena eta abizena derrigorrezkoak dira.

## Zerbitzura konektatu

### Ovi kontaktuak zerbitzura konektatu

Hautatu **Konektatu** eta konexio metodoa. Erabili hari gabeko LAN (WLAN) konexioa eskuragarri bada.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

#### Konexioa utzi

Hautatu **Aukerak** > **Utzi konexioa**.

Datu-pakete konexioak datuak igortzeko kostu gehigarriak sor ditzake. Prezioari buruzko xehetasunak lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Hautatu **Konektatu** > **Aukerak** eta aukera hauetariko bat:

**Hautatu** — Hautatu elementu bat.

**Konektatu** — Konektatu zerbitzura lineaz kanpo zaudenean.

**Nire profila** — Editatu zure profileko informazioa.

**Gomendatu lagun bati** — Gonbidatu kontaktu bat Ovi kontaktuak zerbitzura. Gonbidapena testu-mezu gisa bidaltzen da.

**Ezarpenak** — Aldatu Ovi Kontaktuak zerbitzuaren ezarpenak.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

## Sortu eta editatu zure profila

#### Zure profileko informazioa editatu

Hautatu **Nire profila**.

#### Ovi kontaktuak aplikazioko zure lagunen profilak ikusi

Hautatu lagun bat eta **Aukerak** > **Profila**.

Profileko informazioa ikusgai dago Ovi kontaktuak zerbitzuko lagunentzat. Ovi kontaktuak zerbitzuko gainerako erabiltzaileek profileko xehetasun hauek soilik dituzte ikusgai: izena eta abizena. Zure pribatutasun-ezarpenak aldatzeko, sartu Ovi-ra ordenagailutik eta hasi saioa zure Nokia kontuan.

#### Zure profileko irudia aldatu

Hautatu profileko irudia, **Hautatu irudi bat** eta irudi berria. Uneko irudia ere edita edo ken dezakezu edo profilerako argazki bat atera dezakezu.

#### Zure eskuragarritasuna aldatu

Modu lehenetsian, zure eskuragarritasuna **Eskuragarri** da. Eskuragarritasuna aldatzeko, hautatu ikonoa.

#### Unean egiten ari zarena lagunei esan

Hautatu **Zer egiten ari zara?** eta idatzi testua eremuan.

#### Unean entzuten ari zaren musika lagunei erakutsi

Hautatu **Orain entzungai**. Horretarako, presentziaren ezarpenetan erreprodukzioari buruzko informazioa partekatzea baimendu behar duzu.

#### Zure kontakturako informazioa editatu

Hautatu eremua eta idatzi testua.

Nire profila ikuspegian, hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

**Editatu testua** — Ebaki, kopiatu edo itsatsi testua.

**Aldatu** — Aldatu egoera (egoeraren eremua hautatuta baduzu).


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Aktibatu** — Eman zure lagunei zure kokapenaren edo entzuten ari zarenaren berri (eremu hauek hautatuta badituzu).

**Desegin aldaketak** — Desegin profilaren ikuspegian egindako aldaketak.

**Edit. kokapen partek.** — Hautatu lagunei jakinarazi nahi dizkiezun mugarriak (Nire kokapena eremua hautatuta baduzu).

**Amaitu partekatzea** — Utzi bertan behera lagunei kokapena jakinarazteko aukera (Nire kokapena eremua hautatuta baduzu).

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

## Lagunak bilatzea eta gehitzea

Hautatu **Aukerak** > **Gonbidatu kontaktua**.

### Kontaktuak bilatu

Idatzi lagunaren izena Bilatu lagunak eremuan eta hautatu bilatzeko ikonoa. Ezin dituzu lagunak bilatu mugikorreko zenbakiaren edo helbide elektronikoaren arabera.

### Arakatu bilaketaren emaitzak

Aukeratu **Hurrengo emaitzak** edo **Aurreko emaitzak**.

### Bilaketa berri bat hasi

Hautatu **Bilaketa berria**.

Bilatzen ari zinen lagunak ezin badituzu aurkitu, ez dira Ovi-ko kide gisa erregistratuta egongo edo ikusgaitz gisa ezarrita egongo dira. Eskatutakoan, bidali testu-mezu bat zure lagunei Ovi kontaktuak zerbitzura gonbidatzeko.

### Ovi kontaktuak aplikaziorako gonbidapen bat bidali

Hautatu **Hautatu zerbitzua:** eta zure lagunak erabiltzen duen zerbitzua. Idatzi zure lagunaren erabiltzaile-izena eta hautatu bidaltzeko ikonoa.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetariko bat:

**Hautatu** — Hautatu elementu bat.

**Ireki** — Ireki elementu bat.

**Gonbidatu kontaktu gisa** — Bidali gonbidapen bat lagunari.

**Erakutsi profila** — Ikusi kontaktuaren profila.

**Berritu gonbidapena** — Birbidali Ovi kontaktuak zerbitzura batzeko gonbidapen bat oraindik erantzun ez duen lagun bati.

**Bilatu** — Bilatu bilaketa eremuan idatzi duzun izenari edo gako-hitzari dagokion kontaktua.

**Editatu testua** — Ebaki, kopiatu edo itsatsi testua.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

## Txateatu lagunekin

### Lagun batekin txateatzen hasi

Hautatu laguna.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

### Txat mezuak bidali

Idatzi testua mezuaren eremuan eta hautatu bidaltzeko ikonoa.

Txataren ikuspegian, hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

**Bidali** — Bidali mezua.

**Gehitu emotikonoa** — Txertatu emotikono bat.

**Bidali nire kokapena** — Bidali zure kokapen-datuak txateko lagunari (bi gailuek onartzen badute).

**Profila** — Ikusi lagun baten xehetasunak.

**Nire profila** — Hautatu zure egoera edo profilaren irudia, pertsonalizatu zure mezua edo aldatu zure xehetasunak.

**Editatu testua** — Kopiatu edo itsatsi testua.

**Amaitu txata** — Amaitu txat aktiboa.

**Irten** — Amaitu txat aktibo guztiak eta itxi aplikazioa.

Aukera eskuragarriak ezberdinak izan daitezke.

Zure lagunaren kokapen-datuak jasotzeko Maps aplikazioa izan behar duzu. Kokapen-datuak bidaltzeko eta jasotzeko Maps eta Posizionamendua aplikazioak izan behar dira.

### Zure lagunaren kokapena ikusi

Hautatu **Erakutsi mapan**.

### Txata amaitu gabe Ovi kontaktuak zerbitzuaren ikuspegi nagusira itzuli

Hautatu **Atzera**.

### Txateko telefono zenbakiak gehitu, kopiatu edo bertara deitu

Joan txateko telefono zenbaki batera eta hautatu **Aukerak** eta aukera egokia.

## Ovi-ren sinkronizazio zerbitzua

Telefonoa Ovi-rekin sinkronizatu ahal izateko, Nokia kontu bat izan behar duzu eta Ovi kontaktuak zerbitzua aktibatu behar duzu zure mugikorrean.

### Telefonoa Ovi-rekin sinkronizatu

1. Telefonoa Ovi-rekin lehen aldiz sinkronizatzean, erabili Sinkronizaziorako laguntzailea sinkronizatu nahi duzun edukia eta sinkronizazio-maiztasuna hautatzeko.
2. Hautatu **Sinkronizatu**. Telefonoa lineaz kanpoko moduan badago, konektatu Internetera galdetutakoan.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetariko bat:

**Hasi** — Sinkronizatu telefonoa Ovi-rekin.

**Utzi** — Ezeztatu abian den deskarga.

**Ezarp. sinkronizatzen** — Editatu sinkronizazio-ezarpenak.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

## Zure kokapena partekatzea

Ireki Kontaktuak aplikazioa eta Ovi fitxa.

Kokapena partekatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Presentzia** > **Partekatu nire kokapena** eta aukera hauetariko bat:


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Partekatzea gaitu da** — Gehitu lagunak zure kokapena ikus dezaketenen zerrendan.

**Nire leku ezagun partek.** — Hautatu lagunei zuren kokapena jakinarazteko erabiliko diren mugarriak.

**Eguneratu maiztasuna** — Hautatu zure kokapena jakinarazteko maiztasuna.

### Mugarriak gehitu eta hautatu:

Kokapen bat mugarrien zerrendan gehitzeko, hautatu **Partekatu nire kokapena** > **Nire leku ezagun partek.** > **Aukerak** > **Leku ezagun berria**.

Zure uneko kokapena mugarri gisa gehitzeko, hautatu **Uneko kokapena**.

Mapan kokapen bat arakatzeko, hautatu **Hautatu mapan**.

Mugarri bat eskuz gehitzeko, hautatu **Idatzi eskuz**.

Lagunekin partekatu nahi dituzun kokapenak hautatzeko, hautatu **Partekatu nire kokapena** > **Nire leku ezagun partek.** eta hautatu mugarria zerrendan. Hautatu **Aukerak** zerrendako elementuak editatzeko, markatzeko eta desmarkatzeko.

Hautatutako kokapen batean zaudenean Ovi kontaktuak zerbitzura konektatuta bazaude, zure lagunek zure kokapena ikusiko dute.

## Ovi kontaktuak zerbitzuaren ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Hautatu aukera hauetariko bat:

**Kontua** — Sartu zure kontuaren xehetasunetara eta zehaztu zure ikusgaitasuna besteen bilaketetarako.

**Presentzia** — Erakutsi kontaktuei zure kokapenari buruzko informazioa eta baimendu zure kontaktuek telefono dei bat egiten ari zarela ikustea (deien egoera).

**Pertsonalizazioa** — Aldatu Ovi kontaktuak aplikazioaren saio-hasierari eta tonuei erlazionatutako ezarpenak eta onartu lagunen gonbidapenak automatikoki.

**Konexioa** — Hautatu erabili beharreko sare-konexioa eta aktibatu ibiltaritzaren jakinarazpenak.

Datu-paketeen konexioa erabiliz gero, datu-kopuru handiak igor daitezke zerbitzu-hornitzailearen saretik. Datu transmisioen kostuei buruzko informazioa lortzeko, jo zure sarearen zerbitzu-hornitzailearengana.

**Irten** — Amaitu txat aktibo guztiak eta itxi aplikazioa.

## Nokia kontuaren ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Kontua**.

### Zure kontuaren xehetasunak editatu

Hautatu **Nire kontua**.

### Bilaketetan zure ikusgarritasuna zehaztu

Hautatu **Nire kontua** > **Ikusgaitasuna bilatzen**. Konektatu egon behar duzu ikusgaitasuna aldatzeko.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Presentzia ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Presentzia**.

### Presentzia-ezarpenak aldatu

Hautatu aukera hauetariko bat:

**Partekatu nire kokapena** — Gehitu lagunak zure kokapena ikus dezaketenen zerrendan.

**Partekatu unekoa** — Baimendu lagunek telefonoan entzuten ari zaren musika ikustea.

**Partekatu deien egoera** — Baimendu lagunek zure egoera ikustea.

### Zure kokapena partekatu

Hautatu **Partekatu nire kokapena** eta aukera hauetariko bat:

**Partekatzea gaitu da** — Baimendu zure lagunek zure kokapena ikustea hautatutako mugarrietan.

**Nire leku ezagun partek.** — Hautatu lagunei zuren kokapena jakinarazteko erabiliko diren mugarriak.

**Eguneratu maiztasuna** — Hautatu zure kokapena jakinarazteko maiztasuna.

### Kokapen bat mugarrien zerrendan gehitu

Hautatu **Partekatu nire kokapena** > **Nire leku ezagun partek.** > **Aukerak** > **Leku ezagun berria**.

### Zure uneko kokapena mugarri gisa gorde

Hautatu **Uneko kokapena**.

### Mapan kokapen bat arakatu

Hautatu **Hautatu mapan**.

### Mugarriak eskuz gehitu

Hautatu **Idatzi eskuz**.

### Zure lagunekin partekatu nahi dituzun kokapenak hautatu

1. Hautatu **Partekatu nire kokapena** > **Nire leku ezagun partek.**.
2. Hautatu mugarriak zerrendan.
3. Hautatu **Aukerak** zerrendako elementuak editatzeko, markatzeko eta desmarkatzeko. Hautatutako ezarpenen arabera, zure lagunek zure kokapena ikusiko dute hautatutako kokapenetako batean zaudenean.

## Pertsonalizazio ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Pertsonalizazioa**.

Hautatu aukera hauetariko bat:

**Saioa hasi pizterakoan** — Hasi saioa automatikoki Ovi kontaktuak zerbitzuan mugikorra pizten duzunean.

**Onartu gonbidap. auto.** — Onartu lagun izateko eskaerak automatikoki jakinarazi gabe.

**Onartu ahots mezua auto.** — Baimendu ahots-mezuak automatikoki jasotzea.

**Mezuen tonua** — Hautatu mezu berrientzako tonua.

**Kont. konexio tonua** — Hautatu lagun bat konektatzean entzungo duzun tonua.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Hasiera pant. ikonoa** — Gehitu Ovi kontaktuak zerbitzuaren lasterbidea telefonoaren hasierako pantailan.

### Konexiorako ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Konexioa**.

#### Konexiorako ezarpenak aldatu

Hautatu **Sare konexioa** eta nahi duzun konexioa. Konexio-ezarpenetan lehenetsitako konexio erabiltzeko, hautatu **Konexio lehenetsia**.

#### Etxeko sarea eskuragarri ez dagoenean jakinaraz zaitzan ezarri telefonoa

Telefonoa beste sare batera konektatzen saiatzen ari denean abisu bat jasotzeko, hautatu **Ibiltaritza abisua** > **Aktibatu**.

## Mezuak

### Mezularitzako ikuspegi nagusia

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** (sareko zerbitzua).

Mezu bat idazteko, aukeratu **Mezu berria**.

**Aholkua:** Maiz bidaltzen dituzun mezuak behin eta berriz idatzi behar ez izateko, erabili Nire karpetak ataleko Txantiloiak karpetan dauden testuak. Txantiloiak sor eta gorde daitezke.

Mezularitzan karpeta hauek daude:

**Sarr. erretilua** — Jasotako mezuak hemen gordetzen dira, mezu elektronikoak eta informazio zerbitzuko mezuak izan ezik.

**Nire karpetak** — Antolatu zure mezuak karpetetan.

**Postontzia** — Konektatu urrutiko postontzira mezu elektroniko berriak berreskuratzeko edo aurretik jaitsitakoak konektatu beharrik gabe ikusteko.

**Zirriborroak** — Bidali ez diren zirriborroak hemen gordetzen dira.

**Bidalitakoak** — Bidalitako azken mezuak hemen gordetzen dira, Bluetooth bidez bidalitako mezuak izan ezik. Karpeta honetan gordetzen den mezuen kopurua alda daiteke.

**Irte. erretilua** — Bidali gabeko mezuak irteera ontzian gordetzen dira, adibidez, zure telefonoa sarearen estaldurатik kanpo dagoenean.

**Hartu-agiriak** — Sareak bidalitako testu eta multimedia mezuen bidalketa txosten bat bidaltzeko aukera eskaintzen du (sareko zerbitzua).

### Mezuak idatzi eta bidali

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza**.

**Garrantzitsua:** Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Multimedia mezu bat sortu edo mezu elektroniko bat idatzi aurretik, konexio ezarpen zuzenak zehaztu behar dira.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

Haririk gabeko sareak MMS mezuen neurria muga dezake. Txertatutako argazkiak muga gaindituz gero, telefonoak argazkia txikiagotu dezake MMS bidez bidali ahal izateko.

Aukera bateragarriak dituzten telefonoek soilik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak. Mezuen itxura aldatu egiten daiteke mezua jasotzeko erabilitako telefonoaren arabera.

Egiaztatu mezu elektronikoen gehienezko tamaina zerbitzu-hornitzailearekin. Bidali nahi den mezu elektronikoak posta elektronikoko zerbitzariaren muga gaindituz gero, mezua Irteera ontzia karpetan gordetzen da eta telefonoa tarteka berriro bidaltzen saiatzen da. Mezu elektroniko bat bidaltzeko datu konexioa behar da, horregatik, zure zerbitzu-hornitzaileak mezu elektronikoak bidaltzeko saiakerak kobra ditzake. Irteera ontzia karpetan, mezuak ezabatu edo Zirriborroak karpetara mugi ditzakezu.

Mezularitzak sareko zerbitzuak behar ditu.

1. Testu edo multimedia mezu bat bidaltzeko, hautatu **Mezu berria**.

   Mezu elektroniko edo audio mezu bat bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sortu mezua** eta beharrezkoa den aukera.
2. Kontaktu zerrendatik hartzaileak edo taldeak aukeratzeko, hautatu tresna-barran; edo zenbakia edo posta elektronikoa eskuz sartzeko ukitu **Nori** eremua.
3. Gaia eremuan posta elektronikoaren edo multimedia mezuaren gaia sartu. Gaia eremua ez badago ikusgai, hautatu **Aukerak** > **Mezuaren goiburuak** ikusgai dauden eremuak aldatzeko.
4. Mezua idazteko, sakatu mezuaren eremua.
5. Mezu edo posta elektroniko bati objektu bat gehitzeko, hautatu eta nahi duzun eduki mota.

   Gehitutako edukiaren arabera, mezua mota multimedia mezura alda litzateke.
6. Mezua edo posta elektronikoa bidaltzeko, hautatu edo dei tekla sakatu.

Zure telefonoak mezu bakarreko muga gainditzen duten mezuak onartzen ditu. Mezu luzeagoak bi mezu edo gehiagotan banatuta bidaltzen dira. Zerbitzu-hornitzaileek bidalitako mezu kopuruen arabera kobratu ohi dute. Azentu-markak, bestelako ikurrak edo zenbait hizkuntzen aukerak leku gehiago hartzen dute, eta mezu batean bidal daitekeen karaktere kopurua murriztu egiten da.

## Mezularitzako sarrera ontzia

### Mezuak jaso

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Sarr. erretilua**.

Sarrera karpetan, adierazleak irakurri gabeko testu-mezuak erakusten ditu, adierazlek irakurri gabeko multimedia mezuak, adierazleak irakurri gabeko audio mezuak eta adierazleak Bluetooth bidez jasotako datuak.

Mezu bat jasotzerakoan, eta **1 mezu berri** hasierako pantailan agertzen dira. Mezua irekitzeko, aukeratu **Erakutsi**. Sarrera karpetan mezu bat irekitzeko, aukeratu


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

mezua. Jasotako mezu bat erantzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Erantzun**.

## Multimedia mezuak

**Garrantzitsua:** Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Multimedia mezuen zentroan multimedia mezuren bat jasotzen denean jakinarazpen bat jasoko duzu. Datu-paketeen konexioa hasteko eta mezuak telefonora jaisteko, **Aukerak** > **Berreskuratu** aukeratu.

Multimedia mezu bat irekitzerakoan ( ), irudi bat eta mezu bat ikus daitezke. agertzen da soinua daukanean, edo bideoa daukanean. Soinua edo bideoa erreproduzitzeko, adierazlea aukeratu.

Multimedia mezuan gehitu diren multimedia objektuak ikusteko, **Aukerak** > **Objektuak** aukeratu.

Mezuak multimedia aurkezpen bat badu, agertzen da. Aurkezpena erreproduzitzeko, adierazlea aukeratu.

## Datuen, ezarpenen eta web zerbitzuen mezuak

Telefonoak datuak dituzten mota askotako mezuak jaso ditzake: esate baterako, bisita txartelak, tonuak, operadoreen logoak, egutegiko sarrerak eta mezu elektronikoen jakinarazpenak. Ezarpenak ere jaso ditzakezu zure zerbitzu hornitzailearengandik konfigurazio mezu batean.

Mezuko datuak gordetzeko, aukeratu **Aukerak** eta dagokion aukera.

Web zerbitzuaren mezuak jakinarazpenak dira (adibidez, egunkarietako izenbutuak) eta testu mezuren bat edo estekaren bat eduki dezakete. Eskuragarritasuna eta harpidetzari buruzko informazioa lortzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

# Postontzia

## Posta elektronikoaren ezarpenak zehaztu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Postontzia**.

Posta elektronikoa erabiltzeko, Interneteko sargune (IAP) baliodun eduki behar duzu telefonoan eta posta elektronikoaren ezarpenak behar bezala zehaztu behar dituzu.

Aparteko kontu elektroniko bat eduki behar duzu. Jarraitu zure urrutiko postontziaren zerbitzariak eta internet hornitzaileak (ISP) eskainitako argibideak.

**Mezularitza** > **Postontzia** aukeratzen baduzu eta kontu elektronikoa ezarrita ez baduzu, bat ezartzeko eskatuko zaizu. Posta elektronikoaren ezarpenak postontzi gidarekin sortzen hasteko, aukeratu **Hasi**.

Postontzi berri bat sortzen duzunean, postontziari esleitutako izenak Postontzia ordezkatzen du Mezularitzaren ikuspegi nagusian. Guztira sei postontzi eduki ditzakezu.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Postontzia ireki

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Postontzia irekitzerakoan, telefonoak postontzira konektatu nahi duzun galdetuko dizu.

Postontzira konektatu eta mezu elektronikoen goiburuak edo mezu berriak jasotzeko, aukeratu **Bai**. Mezuak sarean ikusten dituzun bitartean, urrutiko postontzira konektatuta zaude datu konexioaren bidez.

Aurrez jasotako mezu elektronikoak deskonektatuta zaudela ikusteko, aukeratu **Ez**.

Mezu elektroniko bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sortu mezua** > **Posta elektronikoa**.

Sarera konektatuta zaudenean, urruneko postontziarekiko datu-konexioa amaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Deskonektatu**.

## Mezu elektronikoak berreskuratu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Deskonektatuta bazaude, sakatu **Aukerak** > **Konektatu** urrutiko postontzira konektatzeko.

**Garrantzitsua:** Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

1. Urrutiko postontzi batera konektatutakoan, aukeratu **Aukerak** > **Berreskuratu pos. elek.** > **Berria** mezu berri guztiak berreskuratzeko, **Hautatuak** markatutako mezuak bakarrik berreskuratzeko edo **Guztiak** postontziko mezu guztiak berreskuratzeko.

   Mezuak berreskuratzea bertan behera uzteko, aukeratu **Utzi**.
2. Konexioa moztu eta mezu elektroniko deskonektatuta zaudela ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Deskonektatu**.
3. Mezu elektroniko bat irekitzeko, aukeratu mezua. Mezu elektronikoa berreskuratu ez bada eta deskonektatuta bazaude, mezua urrutiko postontzitik berreskuratu nahi duzun galdetuko zaizu.

Mezu elektronikoetako eranskinak ikusteko, ireki mezua eta aukeratu adierazlearen eremua. Telefonoak eranskina berreskuratu ez badu, aukeratu **Aukerak** > **Berreskuratu**.

Mezu elektronikoak automatikoki berreskuratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Posta elek. ezarpenak** > **Berreskuratze automat.**.

Telefonoan mezu elektronikoak automatikoki jasotzea zehaztuz gero, zerbitzu hornitzailearen saretik datu kopuru handiak bidaliko dira. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo zerbitzu hornitzailearengana.

## Mezu elektronikoak ezabatu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Mezu elektronikoak telefonotik ezabatzeko eta urrutiko postontzian gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu** > **Telefonotik soilik**.

Telefonoan postontziko mezu elektronikoen goiburuak bakarrik ikusten dira. Mezuaren edukia ezabatu arren, mezu elektronikoaren goiburua telefonoan geldituko da. Goiburua ere ezabatu nahi baduzu, zerbitzariarekin konektatuta egon behar duzu zure telefonotik eta urrutiko postontzitik mezua ezabatzen duzunean. Zerbitzariarekin konexiorik ez badago, goiburua zure telefonoa urrutiko postontziarekin egoera eguneratzeko konexio bat egiten duenean ezabatuko da.

Mezu elektronikoak telefonotik eta urrutiko postontzitik ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu** > **Telef. eta zerbitzaritik**.

Hurrengo konexioan ezabatzeko markatuta dagoen telefonoko edo zerbitzariko mezu elektronikoa ezabatzea ezeztatzeko, aukeratu (), **Aukerak** > **Leheneratu**.

### Postontzitik deskonektatu

Linean zaudenean, urruneko postontziarekin datu konexioa amaitzeko, **Aukerak** > **Deskonektatu** aukeratu.

### Mezuak SIM txartelean ikusi

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **SIM mezuak**.

SIMeko mezuak ikusi aurretik, telefonoko karpeta batean kopiatu behar dituzu.

1. Mezuak markatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Markatu/ Kendu marka** > **Markatu** edo **Markatu guztiak**.
2. Aukeratu **Aukerak** > **Kopiatu**. Karpeten zerrenda bat irekitzen da.
3. Kopiatzen hasteko, aukeratu karpeta bat. Mezuak ikusteko, ireki karpeta.

### Informazio zerbitzuko mezuak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Operador. mezuak**.

Informazio zerbitzuarekin (sareko zerbitzua) gai desberdinei buruzko mezuak jaso daitezke zerbitzu hornitzailearengandik, eguraldia eta errepideen egoerari buruzkoak, adibidez. Eskuragarri dauden gaiak eta gaien zenbaki aipagarrienak ezagutzeko, jo zerbitzu-hornitzailearengana. Agian zerbitzua ez dago herrialde guztietan eskuragarri.

Informazio zerbitzuko mezuak ezin dira UMTS sareetan jaso. Datu paketeen konexioak informazio zerbitzuko mezuak jasotzea eragotz dezake.

### Zerbitzu komandoak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Zerbitzu-komandoak**.

Zerbitzu komandoekin (sareko zerbitzua) zerbitzu eskaeretara (USSD komando bezala ezagunak ere) sar zaitezke eta bidal ditzakezu, hala nola zure zerbitzu hornitzailearen sare zerbitzuen aktibatze komandoak. Agian zerbitzua ez dago herrialde guztietan eskuragarri.

## Mezularitzako ezarpenak

Ezarpenak telefonoan aurrez zehaztuta egon daitezke, edo mezu baten bidez jaso ditzakezu. Ezarpenak eskuz zehazteko, **Nahitaez zehaztu** edo izartxo batez markatuta dauden eremuak bete.

Zerbitzu-hornitzaileak mezuen zentro edo sargune batzuk edo guztiak aurrez ezartzen ditu, eta hauek ezin dira aldatu, sortu, editatu edo ezabatu.

## Testu mezuen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Testu mezua**.

Aukeratu hauetatik:

**Mezu zentroak** — Ikusi zehaztutako testu mezuen zentro guztien zerrenda.

**Erabil. ari den mezu zent.** — Aukeratu testu mezuak bidaltzeko erabili nahi den mezuen zentroa.

**Karaktere kodeketa** — Karaktereak beste kodeketa sistema batera bihurtzeko (aukera eskuragarri dagoenean), aukeratu **Euskarri mugatua**.

**Txostena jaso** — Aukeratu sareak zure mezuei buruzko bidalketa txostenak igortzea nahi duzun ala ez (sareko zerbitzua).

**Mezuaren balio-aldia** — Aukeratu mezu zentroak zenbat denboran saiatu behar duen mezua bidaltzen, lehenengo saiakerak huts egingo balu (sareko zerbitzua). Zehaztutako baliozkotasun epean mezua ezin izan bada bidali, mezuen zentrotik ezabatuko da.

**Mez. formatu hon. bidalia** — Jo zerbitzu hornitzailearengana zure mezuen zentroak testu mezuak beste formatuetara bilaka ditzakeen jakiteko.

**Konexiorik gogokoena** — Aukeratu erabili nahi den konexioa.

**Erantzun zentro beretik** — Aukeratu testu mezuei erantzuteko zentroko zenbaki berdina erabili nahi duzun ala ez (sareko zerbitzua).

## Multimedia mezuen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Multimedia mezua**.

Aukeratu hauetatik:

**Irudiaren neurria** — Zehaztu multimedia mezuetako irudien tamaina.

**MMS sortze-modua** — **Gidatua** aukeratzen bada, bidali behar den mezua hartzaileak onartzen duen ala ez jakin daiteke. **Murriztua** aukeratzen bada, telefonoak onartzen ez diren mezuen bidalketa eragotziko du. Mezuetan edukiak gehitzeko jakinarazpenik jaso gabe, aukeratu **Librea**.

**Erabltzn. ari den sarbidea** — Aukeratu konektatzeko sargune lehenetsia.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Multimedia berreskuratz.** — Hautatu mezuak jasotzeko modua, eskuragarri badago. Etxeko sarean mezuak automatikoki jasotzeko, aukeratu **Autom. etxeko sarean**. Etxeko saretik kanpo, ohar batek multimedia mezuen zentroan mezu berri bat dagoela jakinaraziko dizu. **Automatikoa beti** aukeratuz gero, telefonoak automatikoki datu pakete aktiboen konexio bat egingo du mezua berreskuratzeko, bai etxeko sarean baita ibiltaritzan ere. Hautatu **Eskuzkoa** mezularitza-zentrotik multimedia mezuak eskuz eskuratzeko edo hautatu **Desaktibatu** multimedia mezurik ez jasotzeko. Eskuratze automatikoa agian ez da herrialde guztietan onartzen.

**Baimendu izengab. mez.** — Baztertu igorle anonimoen mezuak.

**Publizitatea jaso** — Jaso iragarkiak multimedia mezu gisa (sareko zerbitzua).

**Jaso txostenak** — Bistaratu mezuen egoera erregistroan (sareko zerbitzua).

**Ukatu txosten-bidalketa** — Saihestu telefonoak jasotako mezuen irakurragiriak bidaltzea.

**Mezuaren balio-aldia** — Aukeratu mezu zentroak zenbat denboran saiatu behar duen mezua bidaltzen, lehenengo saiakerak huts egingo balu (sareko zerbitzua). Zehaztutako denbora epean mezua ezin izan bada bidali, mezuen zentrotik ezabatuko da.

Telefonoak sareko konexioa behar du bidalitako mezu bat jaso edo irakurri den jakiteko. Sarearen eta beste hainbat baldintzen arabera, informazio hau ez da guztiz fidagarria.

## Posta elektronikoaren ezarpenak

### Postontziak kudeatu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Posta elektronikoa**.

Mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko erabili nahi duzun postontzia aukeratzeko, aukeratu **Erabilitako postontzia** eta postontzia.

Telefonotik postontzi bat eta bere mezuak ezabatzeko, aukeratu **Postontziak**, sakatu nahi duzun postontzia eta oraindik azpimarraturik ez badago aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Postontzi bat sortzeko, aukeratu **Postontziak** > **Aukerak** > **Postontzi berria**. Postontzi berriari esleitutako izenak Postontzia ordezkatuko du Mezularitzaren ikuspegi nagusian. Guztira sei postontzi eduki ditzakezu.

Aukeratu **Postontziak** eta postontzi bat honen konexio ezarpenak, erabiltzaile ezarpenak, berreskuratze ezarpenak eta berreskuratze automatikoaren ezarpenak aldatzeko.

### Konexio ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Posta elektronikoa** > **Postontziak**, postontzi bat eta **Konexio ezarpenak**.

Jasotako mezuen ezarpenak editatzeko, **Sarrerako mezu elek.** eta ondorengoen artean aukeratu:

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

**Erabiltzaile-izena** — Zerbitzu hornitzaileak emandako erabiltzaile izena erabili.

**Pasahitza** — Zure pasahitza idatzi. Eremu hau betetzen ez baduzu, urruneko postontzira konektatzerakoan eskatuko zaizu.

**Mezuak hartzeko zerbit.** — Zure mezu elektronikoak jasotzen dituen zerbitzariaren IP helbidea edo ostalari izena idatzi.

**Erabltzn. ari den sarbidea** — Interneteko sarbide puntu bat (IAP) aukeratu.

**Postontziaren izena** — Postontziarentzako izen bat idatzi.

**Postontzi mota** — Zure postontziaren zerbitzu hornitzaileak gomendatzen duen protokoloa zehazten du. Aukerak POP3 eta IMAP4 dira. Ezarpen hau ezin da aldatu.

**Segurtasuna** — Urruneko postontzira konexio segurua edukitzeko segurtasun aukera hautatu.

**Ataka** — Konexioarentzako ataka bat zehaztu.

**APOP sarrera segurua** (POP3 bakarrik) — POP3 protokoloarekin pasahitza erabili kodetzeko, urruneko postontziaren zerbitzariarekin konektatzen den bitartean.

Bidalitako mezuen ezarpenak editatzeko, **Irteerako mezu elek.** eta ondorengoen artean aukeratu:

**Nire helbide elektr.** — Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako helbide elektronikoa.

**Posta bidaltzeko zerbit.** — Zure mezu elektronikoak bidaltzen dituen zerbitzariaren IP helbidea edo ostalari izena idatzi. Baliteke zure zerbitzu hornitzailearen irteera zerbitzaria bakarrik erabili ahal izatea. Informazio gehiagorako jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Erabiltzaile-izena, pasahitza, sarbide puntua, segurtasuna eta ataka zehazten dituzten ezarpenak sarrerako postaren antzekoak dira.

## Erabiltzaile ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Posta elektronikoa** > **Postontziak**, postontzi bat eta **Erabiltzail. ezarpenak**.

Ondorengoetatik aukeratu:

**Nire izena** — Zure izena idatzi. Helbide elektronikoaren ordez zure izena bistaratuko da hartzailearen telefonoan, hartzailearen telefonoak funtzioa onartzen badu.

**Bidali mezua** — Mezuak nola bidali zehaztu. **Berehala** aukeratu telefonoa postontzira konektatzeko, zuk **Bidali mezua** aukeratutakoan. **Hurrengo konexioan** aukeratzen baduzu, urruneko postontzira konektatutakoan bidaliko da mezua.

**Bidali kopia norberari** — Zure postontzira mezuaren kopia bat bidali nahi duzun aukeratu.

**Gehitu sinadura** — Hautatu zure mezu elektronikoetan sinadura gehitu nahi duzun.

**Mezu elek. berrien abisua** — Hautatu mezuak jasotakoan mezu berrien jakinarazpenak (tonu bat, ohar bat eta mezu adierazle bat) jaso nahi dituzun.

**Mezu elektron. ezabtzea** — Hautatu mezuak telefonotik soilik edo telefonotik eta zerbitzaritik ezabatzea nahi duzun, ala kasu bakoitzean galdetzea nahi duzun.

**Erantzuteko helbidea** — Zehaztu helbide elektroniko bat postontzitik bidalitako mezuen erantzunak bertan jasotzeko.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

### Berreskuratze ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Posta elektronikoa** > **Postontziak**, postontzi bat eta **Berreskuratze-ezarpen.**.

Ondorengoetatik aukeratu:

**Pos. elek. berreskuratzea** — Posta elektronikotik berreskuratuko diren atalak zehaztu: **Goiburuak soilik**, **Tamaina mugatua** (POP3), edo **Mezuak eta eransk.** (POP3).

**Berreskuratze-kopurua** — Postontzitik zenbat mezu berri berreskuratuko diren zehaztu.

**IMAP4 karpetaren bidea** (IMAP4 bakarrik) — Harpidetuko diren karpeten bidea zehaztu.

**Karpeten harpidetzak** (IMAP4 bakarrik) — Urruneko postontzian karpetetara harpidetu eta karpeta horietako edukia berreskuratu.

### Berreskuratze automatikoaren ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Posta elektronikoa** > **Postontziak**, postontzi bat eta **Berreskuratze automat.**.

Ondorengoetatik aukeratu:

**P. elek. jakinarazpenak** — Urruneko postontzian mezu berri bat jasotzen duzunean goiburua automatikoki telefonoan berreskuratu nahi baduzu, hautatu **Auto-eguneraketa** edo **Etxeko sarean soilik**.

**Pos. elek. berreskuratzea** — Urruneko postontziko mezu berrien goiburuak telefonoan erregularki berreskuratzeko, hautatu **Gaituta** edo **Etxeko sarean soilik** eta zehaztu berreskuratzeko maiztasuna.

**P. elek. jakinarazpenak** eta **Pos. elek. berreskuratzea** aukerek ezin dute aktibo egon aldi berean.

Telefonoan mezu elektronikoak automatikoki jasotzea zehaztuz gero, zerbitzu-hornitzailearen saretik datu kopuru handiak bidaliko dira. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

## Web zerbitzuen mezu ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Zerbitzu mezua**.

Aukeratu zerbitzu mezuak jaso nahi dituzun ala ez. Zerbitzu-mezu bat jasotzen duzun bakoitzean, telefonoak automatikoki arakatzailea aktibatzea eta sarera konektatzea nahi baduzu, edukiak berreskuratzeko, hautatu **Deskargatu mezuak** > **Automatikoki**.

## Zelula-difusioaren ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Operadorearen mezua**.

Eskuragarri dauden gaiak eta hauei lotutako zenbakiak zerbitzu-hornitzailearekin egiaztatu.

Honako hauetatik aukeratu:

**Harrera** — Aukeratu zelula-difusioari buruzko mezuak jaso nahi dituzun ala ez.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Hizkuntza** — Aukeratu jasoko dituzun mezuen hizkuntza: **Guztiak**, **Hautatuak** edo **Bestelakoa**.

**Gaien detekzioa** — Aukeratu telefonoak automatikoki zenbaki berriak bilatu eta gaien zerrendan izenik gabe gordetzea nahi duzun ala ez.

## Ezarpen gehiago

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Bestelakoak**.

Honako hauetatik aukeratu:

**Gorde bidalitako mezuak** — Hautatu Bidalitakoak karpetara bidalitako testu mezuen, multimedia mezuen edo mezu elektronikoen kopia bat gorde nahi duzun ala ez.

**Gordetako mezu kopurua** — Zehaztu bidalitakoen karpetan zenbat mezu gorde nahi dituzun aldi berean. Muga gainditzen denean, mezurik zaharrena ezabatzen da.

**Erabilitako memoria** — Aukeratu mezuak gordetzeko memoria.

**Erakutsi mezuak taldeka** — Zehaztu mezuak Sarrera ontzia, Bidalitakoak, Zirriborroak eta Nire karpetak ataletan sailkatu nahi dituzun.

**Erak. mez. elektr. taldeka** — Zehaztu mezu elektronikoak sailkatu nahi dituzun.

## Mail for Exchange

Mail for Exchange zerbitzuarekin laneko posta telefonoan jaso dezakezu. Mezu elektronikoak irakur eta erantzun ditzakezu, eranskinak ikusi eta editatu, egutegiko informazioa ikusi, bilera eskaerak jaso eta erantzun, hitzorduak antolatu eta kontaktuen informazioa ikusi, gehitu eta editatu.

### ActiveSync

Mail for Exchange aplikazioaren erabilera PIM datuen hari gabeko sinkronizaziora mugatuta dago Nokia telefonoaren eta baimendutako Microsoft Exchange zerbitzarien artean.

Mail for Exchange instalatu ahal izateko zure konpainiak Microsoft Exchange Server erabili behar du. Honez gain, zure enpresako informatika teknikariak Mail for Exchange aktibatu behar du zure kontuan.

Mail for Exchange instalatu aurretik ziurtatu ondorengoak badituzula:

- Enpresako posta elektronikoaren IDa
- Zure lantokiko sarean sartzeko erabiltzaile izena
- Zure lantokiko sarearen pasahitza
- Zure sareko domeinuaren izena (jarri harremanetan zure enpresako IKT sailarekin)
- Zure Mail for Exchange zerbitzariaren izena (jarri harremanetan zure enpresako IKT sailarekin)

Baliteke informazio gehiago sartu behar izatea; hau zure enpresaren Mail for Exchange zerbitzariaren konfigurazioaren araberakoa da. Ez baduzu informazio zuzena, jarri harremanetan zure enpresako IKT sailarekin.

Mail for Exchange zerbitzuarekin blokeo-kodearen erabilera derrigorrezkoa izan daiteke. Telefonoaren blokeo-kode


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

lehenetsia 12345 da, baina agian enpresako informatika teknikariak beste bat zehaztu du.

Mezularitza ezarpenetan Mail for Exchange profila eta ezarpenak ikus eta alda ditzakezu.

### Nokia Mezularitza

Nokia Mezularitza zerbitzuak automatikoki transferitzen du zure helbide elektronikoko posta zure telefonora. Nokia N97 mini. Mezu elektronikoak edonon irakurri, erantzun eta antola ditzakezu. Nokia Mezularitza zerbitzua posta elektroniko pertsonal gisa erabiltzen diren hainbat hornitzailerekin dabil, Google-ren e-mail zerbitzuak esaterako.

Baliteke Nokia Mezularitza zerbitzuak tarifa ezberdinak izatea. Kostu posibleei buruzko informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zerbitzu hornitzailearekin edo Nokia Mezularitza zerbitzuarekin.

Nokia Mezularitza zure gailuarekin bateragarria izan behar da eta baliteke herrialde guztietan eskuragarri ez izatea.

#### Nokia Mezularitza aplikazioa instalatzea

1. Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **E-mail** eta **Berria**.
2. Irakurri pantailan agertzen den informazioa eta hautatu **Hasi**.
3. Hautatu **Konektatu** gailua sarean sartzeko aukera izan dezan.
4. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza.

Nokia Mezularitza zerbitzuak zure gailuan ibil daiteke bestelako e-mail aplikazioak instalatu badituzu ere, Mail for Exchange, esaterako.

## Konektagarritasuna

Telefonoak Internetera edo beste gailu edo ordenagailu bateragarri batera konektatzeko hainbat aukera eskaintzen ditu. Beste konektagarritasun-metodoei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus erabiltzailearen gida hedatua Nokia webgunearen laguntza-zerbitzuan.

### Datu konexioak eta sarguneak

Zure gailuak datu-paketeen konexioak onartzen ditu (sare zerbitzua), GSM sarean GPRS konexioa, esaterako. Gailua GSM eta UMTS sareetan erabiltzen denean, aldi berean datu konexio asko egon daitezke aktibatuta eta sarguneek datu konexio bat parteka dezakete. UMTS sarean, datu konexioek aktibatuta jarraitzen dute ahots-deietan.

WLAN konexioa ere erabil daiteke. Aldi bakoitzean konexio bakarra egon daiteke aktibo hari gabeko LAN sare batean, baina interneteko sargune bera aplikazio bat baino gehiagok erabil dezakete.

Datu konexio bat ezartzeko sargune bat behar da. Sargune mota desberdinak zehatz daitezke, adibidez:

- MMS sargunea multimedia mezuak bidali eta jasotzeko
- Interneteko sargunea (IAP) mezu elektronikoak bidali eta jasotzeko eta internetera konektatzeko

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

Zure zerbitzu-hornitzaileari galdetu lortu nahi duzun zerbitzuarentzako zein sargune mota behar den. Datu-pakete konexio zerbitzuei buruzko eskuragarritasuna eta harpidetzari buruz gehiago jakiteko jar zaitez harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

## Sare ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Sarea**.

Telefonoa automatikoki GSM saretik UMTS sarera alda daiteke (eta alderantziz). GSM sareak bidez adierazten dira. UMTS sareak **3G** bidez adierazten dira.

Abiadura handiko deskargatzeko pakete sarbidea (HSDPA) konexioa (sareko zerbitzua) **3.5G** bidez adierazten da.

Aukeratu hauetatik:

**Sare modua** — Aukeratu erabili nahi duzun sarea. **Modu duala** aukeratuz, telefonoak GSM edo UMTS sarea automatikoki erabiliko du, hari gabeko zerbitzu hornitzaileen artean onartutako sare parametro eta ibiltaritza akordioen arabera. Ibiltaritzaren kostu eta xehetasunak ezagutzeko, jo sare zerbitzuen hornitzailearengana. Aukera hau hari gabeko zerbitzu hornitzaileak onartzen badu agertuko da.

Ibiltaritza akordio bat bi zerbitzu hornitzaile edo gehiagoren artean egindako akordio bat da eta zerbitzu hornitzaile baten erabiltzaileek beste zerbitzu hornitzaile baten zerbitzuak erabiltzea ahalbidetzen du.

**Operadorea hautatzea** — Aukeratu **Automatikoa** telefonoak sare eskuragarrietako bat aurkitzeko eta aukeratzeko eta aukeratu **Eskuzkoa** sarea zerrenda batetik eskuz aukeratzeko. Eskuz aukeratutako sarearen konexioa galtzen bada, telefonoak errore tonu bat igorriko du eta sarea berraukeratzeko eskatuko du. Aukeratutako sareak ibiltaritza akordio bat izan behar du zure bertako sarearekin.

**Inform.-zerb. pantaila** — Ezarri telefonoa sare mikrozelular (MCN) teknologian oinarritutako sare mugikor bat noiz erabiltzen ari den jakinarazi dezan eta telefono informazioaren harrera gai dezan.

## Haririk gabeko LAN

Telefonoak lekuko haririk gabeko sareak (WLAN) antzeman eta hauetara konekta daiteke. WLAN erabiliz, telefonoa Internetera eta WLAN onartzen duten gailu bateragarrietara konekta zaitezke.

### WLANari buruz

Haririk gabeko LAN (WLAN) konexio bat erabiltzeko, sareak zauden tokian eskuragarri egon behar du eta telefonoak WLANera konektatuta egon behar du. WLAN batzuk babestuta daude eta zerbitzu-hornitzailearen sarbide-gako bat behar duzu konektatzeko.

**Oharra:** Frantzian WLANa eraikinen barruan soilik erabil daiteke.

WLAN erabiltzen duten funtzioek, edo beste funtzioak erabiltzen diren bitartean atzealdean funtzionatzen dutenek, bateria gehiago behar dute, bateriaren bizitza murriztuz.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Garrantzitsua:** Zure haririk gabeko LAN konexioaren segurtasuna hobetzeko, kodeketa-metodoren bat gaitu beti. Kodeketa-metodoren bat erabiltzeak inor zure datuetan baimenik gabe sartzeko arriskua murrizten du.

## WLAN konexioak

Hari gabeko LAN (WLAN) konexio bat erabili ahal izateko Interneteko WLAN sargune bat (IAP) sortu behar duzu. Erabili sargunea Internetera konektatu behar diren aplikazioentzako.

WLAN Interneteko sargunea erabiliz datuen konexio bat sortzen duzunean, WLAN konexio bat ezartzen. WLAN konexio aktiboa amaitzen da datuen konexioa amaitzen duzunean.

WLAN erabil dezakezu ahots dei batean edo datu paketea aktibatuta dagoenean. WLAN sargune batera soilik egon zaitezke konektatua aldi berean, baina aplikazio askok Interneteko sargune bera erabil dezakete.

Telefonoa deskonektatuta profilean badago WLAN ere erabil dezakezu (eskuragarri badago). Gogoratu segurtasun baldintza aplikagarri guztiak bete behar direla hari gabeko WLAN konexio bat ezarri eta erabiltzerakoan.

**Aholkua:** Telefonoa identifikatzen duen multimedia sargunearen kontrol (MAC) helbide bakarra egiaztatzeko, ireki markagailua eta idatzi ***#62209526#**.

## WLAN laguntzailea

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Hari gabek. LANa**.

WLAN laguntzaileak WLAN batera konektatzen eta hari gabeko LAN (WLAN) konexioak kudeatzen laguntzen dizu.

Bilaketak WLANak aurkitzen baditu, adibidez, Interneteko sargune bat sortzeko eta arakatzaileak (IAP) hau erabiltzen hasteko, aukeratu egoera eta **Hasi nabigatzen**.

WLAN seguru bat aukeratzen baduzu, dagokion pasahitza sartzeko eskatuko zaizu. Sare ezkutatu batera konektatzeko, sarearen izen egokia idatzi behar duzu (service set identifier, SSID).

Web arakatzailea jadanik piztuta badago eta WLAN konexio aktibo bat erabiltzen ari bada, arakatzailera itzultzeko aukeratu **Jarraitu nabigatzen**.

Konexio aktiboa bukatzeko, aukeratu konexioa eta **Deskonektatu WLANa**.

## Interneteko WLAN sarguneak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Hari gabek. LANa** > **Aukerak**.

Aukeratu hauetatik:

**Irazi WLAN sareak** — Iragazi aurkitutako sareen zerrendatik hari gabeko LANak (WLAN). Aplikazioak WLANak bilatzen dituen hurrengo aldian aukeratutako sareak ez dira agertuko.

**Xehetasunak** — Ikusi zerrendan agertzen den sare baten xehetasunak. Konexio aktibo bat aukeratuz gero, konexioaren xehetasunak agertzen dira.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Funtzionamendu motak

Bi modu eragile daude WLANen: azpiegitura eta ad hoc.

Azpiegitura modu eragileak bi komunikazio mota onartzen ditu: haririk gabeko telefonoak bata bestearekin WLAN sargune baten funtzioa betetzen duen gailu baten bidez konektatuta daude, edo haririk gabeko gailuak LAN kabledun batekin WLAN sargune baten bidez konektatuak daude.

Ad hoc modu eragilean, telefonoek batak besteari datuak bidali eta jasotzeko aukera dago.

## WLAN ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Hari gabek. LANa** > **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Aukeratu hauetatik:

**Erakutsi WLAN eskurag.** — Aukeratu hari gabeko LAN (WLAN) eskuragarri dagoenean agertzea nahi duzun ala ez.

**Aholkua:** WLAN laguntzailea aplikaziora joateko eta eskuragarri dauden aukerak ikusteko, aukeratu WLAN ikonoa, eta popup leihoan, aukeratu WLAN ikonoaren ondoan nabarmendurik dagoen testua.

**Bilatu sareak** — **Erakutsi WLAN eskurag.Bai** gisa ezartzen baduzu, aukeratu telefonoak zenbatero bilatuko dituen WLAN eskuragarriak eta zenbatero eguneratuko duen adierazlea.

**Intern. konektag. proba** — Aukeratu telefonoak aukeratutako WLAN sarearen Internet ahalmena automatikoki aztertzea, aldi bakoitzean baimena eskatzea edo azterketa inoiz ez egitea nahiz duzun ala ez. **Automatik. abiarazi** aukeratzen baduzu edo azterketa egiteko baimena ematen baduzu telefonoak galdetzen duenean, eta konexio azterketa arrakastatsua bada, sargunea Internet helmugetan gordeko da.

Ezarpen aurreratuak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpen aurreratuak**. Ez dugu WLAN sarearen ezarpen aurreratuak aldatzea gomendatzen.

# Sarbideak

## Sargune bat sortu

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Helburuak**.

Sargunearen ezarpenak zerbitzu hornitzailearen mezu batean jaso ditzakezu. Baliteke sargune batzuk edo guztiak zerbitzu hornitzaileak aurrez ezarri izatea, eta hauek ezin izango dira aldatu, sortu, editatu edo ezabatu.

Sarguneen talde bat irekitzerakoan (, , , ), sargune motak ikusten dira:

sargune babestua dela adierazten du
datu paketeen sargunea dela adierazten du
hari gabeko WLAN sargunea dela adierazten du

**Aholkua:** WLAN sare batean Interneterako sarguneak sor ditzakezu WLAN laguntzailearekin.

Sargune bat sortzeko, aukeratu **Sarbidea**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Telefonoak konexio eskuragarriak bilatzea eskatzen du. Bilaketaren ondoren, eskuragarri dauden konexioak erakusten dira eta sargune berri batekin parteka daitezke.

Urrats hau burutzen ez bada, konexio metodo bat aukeratzeko eskatuko da eta beharrezko ezarpenak zehaztu beharko dira.

Sargune baten ezarpenak editatzeko, ireki sargune talde bat eta aukeratu sargunea. Jarraitu zerbitzu hornitzailearen argibideak.

**Konexioaren izena** — Idatzi konexiorako izena.

**Datu-eramailea** — Aukeratu datu konexio mota.

Aukeratutako datu konexio motaren arabera, ezarpen jakin batzuk egongo dira eskuragarri. Bete **Nahitaez zehaztu** adierazlea edo * gorria duten eremu guztiak. Gainontzeko eremuak hutsik utzi daitezke, zerbitzu hornitzaileak kontrakoa adierazi ezean.

Datu konexioak erabiltzeko, funtzio hau zerbitzu hornitzaileak eskaini behar dizu eta, behar izango balitz, SIM txarteletik gaitu beharko litzateke.

## Sargune taldeak sortu

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Helburuak**.

Zenbait aplikaziok sarera konektatzeko sargune taldeak erabiltzea ahalbidetzen dute.

Telefonoa sarera konektatzen den bakoitzean sargune bakarra aukeratzea saihesteko, sare horretara konektatzeko sargune anitzeko taldea sor dezakezu eta sarguneak erabileraren arabera antolatu.

Adibidez, LAN (WLAN) eta datu paketeetako sarguneak gehi ditzakezu Interneterako sargune talde batean, eta taldea sarea arakatzeko erabili. WLAN sareari lehentasuna ematen badiozu, telefonoa WLAN bidez konektatuko da Internetera, eskuragarri dagoenean, eta datu paketeen konexio bidez eskuragarri ez dagoenean.

Sargune talde berri bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kudeatu** > **Norako berria**.

Sarguneak sargune talde batean gehitzeko, aukeratu taldea eta **Aukerak** > **Sarbide berria**. Beste talde bateko sargune bat kopiatzeko, aukeratu taldea, sakatu nahi den sargunea jadanik nabarmenduta ez badago eta aukeratu **Aukerak** > **Antolatu** > **Kopiatu beste norak.**.

Taldean sargune baten lehentasuna aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Antolatu** > **Aldatu lehentasuna**.

## Datu paketeen sarguneak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Helburuak** > **Sarbidea** eta jarraitu pantailako argibideak.

Datu pakete baten sargunea editatzeko, ireki sargune talde bat eta aukeratu  bidez markatutako sargune bat.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Jarraitu zerbitzu hornitzailearen argibideak.

Aukeratu hauetatik:

**Sarbidearen izena** — Sargunearen izena zerbitzu hornitzaileak eskaintzen du.

**Erabiltzaile-izena** — Baliteke erabiltzailea behar izatea datu konexio bat zehazteko, eta zerbitzu hornitzaileak eman ohi du.

**Eskatu pasahitza** — Zerbitzari batera sartzen zaren bakoitzean pasahitza idatzi behar baduzu edo pasahitza telefonoan gorde nahi ez baduzu, aukeratu **Bai**.

**Pasahitza** — Baliteke pasahitza behar izatea datu konexio bat zehazteko, eta zerbitzu hornitzaileak eman ohi du.

**Autentifikazioa** — Aukeratu **Segurua** pasahitza beti enkriptatuta bidaltzeko eta **Arrunta** pasahitza ahal denean enkriptatzeko.

**Abiaorria** — Ezartzen ari zaren sargunearen arabera, web helbidea edo multimedia mezularitzarako helbidea idatzi beharko dituzu.

**Sarbidea erabili** — Aukeratu **Egiaztapen. ondoren** sargune honen bidez konexio bat sortu aurretik onarpena galdetzea nahi duzun ala **Automatikoki** automatikoki sargune honen bidez konektatzea nahi duzun.

Aukeratu **Aukerak** > **Ezarpen aurreratuak** eta honako hauetatik:

**Sare mota** — Aukeratu datuak transferitzeko Interneteko protokolo mota. Gainontzeko ezarpenak sare motaren araberakoak dira.

**Telefonoaren IP helbidea** (IPv4 bakarrik) — Idatzi telefonoaren IP helbidea.

**DNS helbideak** — Idatzi DNS zerbitzari nagusia eta ordezkoaren IP helbidea, zerbitzu hornitzaileak hala eskatuz gero. Helbide hauek eskuratzeko, jo Internet hornitzailearengana.

**Proxy zerbitzar. helbidea** — Idatzi proxy zerbitzariaren helbidea.

**Proxy atakaren zenbakia** — Idatzi proxy zerbitzariaren ataka.

## Interneteko WLAN sarguneak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Helburuak** > **Sarbidea** eta jarraitu argibideak.

Hari gabeko LAN (WLAN) sarbide baten ezarpenak editatzeko, sarbide-talde bat ireki eta hautatu ikurrarekin markatuta dagoen sarbide bat.

Jarraitu WLAN zerbitzu hornitzailearen argibideak.

Hautatu aukera hauetariko bat:

**WLAN sarearen izena** — Aukeratu **Sartu eskuz** edo **Bilatu sareak**. Dagoen sare bat aukeratuz gero, sarguneko telefonoaren ezarpenak WLAN sare modua eta WLAN segurtasun modua zehaztuko ditu.

**Sarearen egoera** — Aukeratu sarearen izena erakustea nahi duzun ala ez.

**WLAN sare modua** — Aukeratu **Ad-hoc** ad hoc sare bat sortu eta bertako gailuei datuak zuzenean jasotzea baimendu ala


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

ez; ez da WLAN sargunerik behar. Ad hoc sarean, gailu guztiek WLAN sare izen bera erabili behar dute.

**WLAN segurtasun modua** — Enkriptazio mota aukeratu: **WEP**, **802.1x** edo **WPA/WPA2** (802.1x eta WPA/WPA2 ez daude eskuragarri ad hoc sareetan). **Sare irekia** aukeratuz gero, ez da enkriptaziorik erabiliko. WEP, 802.1x eta WPA funtzioak sare bateragarrietan soilik erabil daitezke.

**Abiaorria** — Idatzi hasierako web helbidea.

**Sarbidea erabili** — Ezarri telefonoa sarbide hau erabiliz konexio bat automatikoki sor dezan, edo baieztatu ondoren.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

## Datu konexio aktiboak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Konexio kudtzl.**.

Datu konexio aktiboen ikuspegian irekita dauden datu konexioak ikus ditzakezu:

- datu deiak
- datu paketeen konexioak
- hari gabeko LAN (WLAN) konexioak

**Oharra:** Zerbitzu-hornitzaileak igortzen dizun dei eta zerbitzuen faktura aldatu egin daiteke, sarearen ezaugarrien, fakturen biribilketen, zergen eta abarren arabera.

Konexio bat amaitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Deskonektatu**.

Irekitako konexio guztiak ixteko, aukeratu **Aukerak** > **Deskonektatu guztiak**.

Konexio baten xehetasunak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Xehetasunak**.

## Sinkronizazioa

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Datu-transfer.** > **Sinkronizazioa**.

Sinkronizazio aplikazioarekin oharrak, egutegi sarrerak, testu eta multimedia mezuak, arakatzailearen laster markak edo kontaktuak zenbait aplikazio bateragarrirekin sinkroniza daitezke ordenagailu bateragarri batean edo Interneten.

Sinkronizazio ezarpenak zerbitzu hornitzailearen mezu berezi batean jaso ditzakezu.

Sinkronizazio profil batek sinkronizaziorako beharrezkoak diren ezarpenak ditu.

Aplikazioa irekitzen duzunean, lehenetsitako profila edo erabili berri den sinkronizazio profila bistaratzen da. Profila aldatzeko, sakatu sinkronizazio elementua profilean sartzeko edo kanpoan uzteko.

Sinkronizazio profilak kudeatzeko, aukeratu **Aukerak** eta nahi den aukera.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Datuak sinkronizatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sinkronizatu**.

Sinkronizazioa amaitu aurretik ezeztatzeko, aukeratu **Utzi**.

## Bluetooth konektagarritasuna

### Bluetooth konexioari buruz

Bluetooth konexioarekin, hari gabe konekta zaitezke beste gailu bateragarriekin, hala nola telefono mugikor, ordenagailu, aurikularrak eta autoaren kitak.

Konexioa irudiak, bideo klipak, musika, soinu klipak eta oharrak bidaltzeko erabil dezakezu, baita zure ordenagailu bateragarritik fitxategiak transferitzeko edo irudiak inprimagailu bateragarri batetan inprimatzeko ere.

Bluetooth konexioa irrati uhinen bidez egiten denez, konektatutako gailuek ez dute elkarri begira egon beharrik. Halere, gehienez elkarrengandik 10 metrora (33 oin) egon behar dute eta, baina interferentziak jasan ditzakete tarteko hormak edo tresna elektronikoak direla eta.

Telefonoa Bluetooth zehaztapenarekin bateragarria da 2.0 + EDR, eta ondorengo profil hauek onartzen ditu: Telefono-sarea (DUN), Object Push profila (OPP), fitxategi-transferentzia profila (FTP), eskulibrekoen profila (HFP), entzungailuen profila (HSP), oinarrizko irudigintza profila (BIP), urruneko SIM sarbiderako profila (SimAP), gailu-identifikatzaile profila (DI), kontaktuetarako sarbiderako profila (PBAP), audio/bideo banaketa orokorrerako profila (GAVDP), urruneko audio/bideo kontrolaren profila (AVRCP), audio banaketa aurreratuaren profila (A2DP) . Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekiko operatibitatea ziurtatzeko, modelo honetarako Nokia konpainiak onartutako osagarri homologatuak erabili behar dira bakarrik. Beste gailuen fabrikatzaileekin egiaztatu gailu horiek telefono honekin bateragarriak ote diren.

Bluetooth teknologia darabilten funtzioek bateria indar gehiago behar dute eta, beraz, bateriaren iraupena murrizten dute.

Telefonoa blokeatuta dagoenean, baimendutako gailuetarako konexioak soilik ezar daitezke.

### Ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Bluetootha**.

Aplikazioa lehenengo aldiz irekitzerakoan, zure gailuarentzako izen bat zehazteko eskatuko zaizu. Izena beranduago ere alda dezakezu.

Aukeratu hauetatik:

**Bluetootha** — Piztu edo itzali Bluetooth konexioa.

**Nire telef. ikusgaitasuna** — Gainontzeko gailuek Bluetooth bidez zure telefonoa aurkitu ahal izateko, aukeratu **Erakutsi guztiei**. Telefonoaren ikusgarritasunari denbora mugaa ezartzeko, aukeratu **Zehaztu ikusgait. ald.**. Telefonoa beste gailuek ikus ez dezaten, aukeratu **Ezkutatuta**.

**Nire telefonoaren izena** — Aldatu telefonoaren Bluetooth hari gabeko teknologia erabiltzean erakutsiko den izena.

**Urrutiko SIM modua** — Gaitu edo desgaitu beste gailuren bat, adibidez, bateragarria den autorako kit osagarria, zure


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

telefonoko SIM txartela sare batetara konektatzeko erabiltzeko.

## Segurtasun gomendioak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Bluetootha**.

Bluetooth konexioa erabiltzen ari ez zarenean, telefonoa zeinek ikus dezakeen eta zein konekta daitekeen kontrolatzeko, aukeratu **Bluetootha** > **Desaktibatu** edo **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Ezkutatuta**. Bluetooth konexioa desaktibatzeak ez die telefonoaren gainerako funtzioei eragiten.

Ez onartu edo uztartu ezezagunak diren konexio eskaerak. Horrela, zure telefonoa eduki kaltegarrien aurka babestuko duzu.

## Datuak Bluetooth bidez bidali

Bluetooth konexio bat baino gehiago izan ditzakezu aldi berean. Adibidez, aurikular batera konektatuta bazaude, aldi berean fitxategiak transferi ditzakezu beste gailu batera.

1. Ireki bidali nahi duzun elementua dagoen aplikazioa.
2. Aukeratu elementua eta aukeratu **Aukerak** > **Bidali** > **Bluetooth bidez**.

   Inguruko Bluetooth gailuen zerrenda agertuko da. Ikonoak hauexek dira:

   - ordenagailua
   - telefonoa
   - audio edo bideo gailua
   - bestelakoa

   Bilaketa eteteko, aukeratu **Gelditu**.
3. Aukeratu zein gailutara konektatu nahi duzun.
4. Datuak transferitu aurretik beste gailua uztartu egin behar bada, tonu bat entzungo da eta kodea eskatuko zaizu. Kode berdina idatzi behar da bi gailuetan.

   Konektatutakoan, **Datuak bidaltzen** agertuko da.

**Aholkua:** Gailuak bilatzerakoan, zenbait gailuk helbide bakarra erakuts dezakete (gailuaren helbidea). Telefonoaren berezko helbidea ikusteko, sakatu ***#2820#**.

## Gailuak uztartu

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Bluetootha**.

Gailu bateragarriak uztartzeko eta uztartutako gailuak ikusteko, ireki **Parekaturiko gailuak** fitxa.

Uztartu aurretik, sortu zure kodea (1etik 16 digitura), beste gailuaren jabeak kode bera erabil dezan. Erabiltzaile interfazea ez duten gailuek kode lehenetsia dute. Kodea behin bakarrik erabiliko da.

1. Gailu batekin uztartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Parekaturiko gailu berria**. Eremuaren barnean dauden gailuak erakutsiko dira.
2. Aukeratu gailua eta idatzi kodea. Kode bera beste gailuan idatzi behar da ere.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

3 Zenbait audio osagarrik automatikoki konektatzen dira uztartu ondoren. Bestela, osagarri bat konektatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Konektatu audio gailura**.

Uztartutako gailuak adierazlearekin erakusten dira gailu bilaketan.

Gailu bat baimendu edo ez baimendu gisa ezartzeko, aukeratu hurrengoetatik:

**Baimendutzat ezarri** — Zure telefonoa eta baimendutako gailua aurrez jakinarazi gabe konekta daitezke. Ez zaizu baimenik edo onarpenik banaka eskatuko. Erabili aukera hau zure gailuekin, hala nola zure aurikular edo PC bateragarriekin, edo fidagarria den norbaiten gailuekin. irudiak baimendutako gailuak adierazten ditu uztartutako gailuen ikuspegian.

**Baimnd. gabetzat ezarri** — Gailu honen konexio eskaerak aparte onartu behar dira beti.

Gailu batekin uztartzea ezeztatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Uztartze guztiak ezeztatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu guztiak**.

## Bluetooth konexioaren bidez datuak jaso

Bluetooth konexioaren bidez datuak jasotzen dituzunean, tonu bat entzungo da eta mezua onartu nahi duzun galdetuko zaizu. Onartzen baduzu, agertuko da eta elementua Mezularitzako Sarrera ontzian gordeko da.

Bluetooth konexioaren bidez jasotako mezuak adierazlearekin bereizten dira.

## Gailuak blokeatu

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Bluetootha**.

Gailu batek zure telefonoarekin Bluetooth konexio bat ezartzea galarazteko, ireki **Parekaturiko gailuak** fitxa.

Aukeratu blokeatu nahi duzun gailua, nabarmenduta ez badago, eta aukeratu **Aukerak** > **Blokeatu**.

Gailu bat desblokeatzeko, ireki **Blokeatutako gailuak** fitxa, aukeratu gailua, nabarmenduta ez badago, eta aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Blokeatutako gailu guztiak desblokeatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu guztiak**.

Partekatze eskaera bat ukatzen baduzu, etorkizunean gailu honek egindako konexio eskaerak blokeatu nahi dituzun galdetuko zaizu. Eskaera onartzen baduzu, urruneko gailua blokeatutako gailuen zerrendara gehituko da.

## Urrutiko SIM modua

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Bluetootha**.

Urrutiko SIM modua aktibatu aurretik, bi gailuek uztartuta egon behar dute eta beste gailuak abiarazi behar du


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

uztartzea. Uztartutakoan, erabili 16 digituko kodea eta ezarri beste gailua baimendu gisa.

Urrutiko SIM modua bateragarria den autorako kit osagarri batekin erabiltzeko, gaitu Bluetooth konexioa eta zure telefonoarekin gaitu urrutiko SIM moduaren erabilera.

Gaitu zure telefonoan urrutiko SIM modua.

Zure telefonoa urrutiko SIM moduan badago, **Urrutiko SIM modua** azalduko da zure hasierako pantailan. Hari gabeko sarerako konexioa itzalita dago, bateria adierazlearen ✕ ikurrak erakutsi bezala eta ezingo dituzu SIM txartelaren zerbitzuak edo sare mugikorreko estaldura behar duten funtzioak erabili.

Hari gabeko telefonoa urrutiko SIM moduan egonez gero, osagarri bateragarri bat bakarrik, autorako gailua esate baterako, erabil dezakezu deiak egin edo jasotzeko. Honela dagoen bitartean, telefonoak ezin izango du deirik egin, telefonoan programatuta dauden larrialdietarako zenbakietara izan ezik. Zure telefonotik deiak egiteko, aurrena desgaitu urrutiko SIM modua. Telefonoa blokeatuta badago, idatzi desblokeatzeko kodea.

Urrutiko SIM modua desgaitzeko, sakatu itzaltzeko tekla eta aukeratu **Irten urrun. SIM modutik**.

## USB

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **USB**.



Telefonoak datu kable bateragarri batera konektatzen den bakoitzean konexioaren zergatia galdetzea nahi baduzu, aukeratu **Galdetu konektatzean** > **Bai**.

**Galdetu konektatzean** ikurra itzalita badago edo konexio aktiboan zehar modua aldatu nahi baduzu, aukeratu **USB konexio-modua** eta hauetatik:

**PC Suite** — Erabili Nokia PC aplikazioak, hala nola, Nokia Ovi Suite eta Nokia Software Updater.

**Biltegiratze masiboa** — Transferitu datuak telefonotik PC bateragarri batera.

**Irudi-transferentzia** — Inprimatu argazkiak inprimagailu bateragarri batekin.

**Multim.-transferentz.** — Sinkronizatu musika Nokia Music edo Windows Media Player aplikazioekin.

## PCrako konexioak

Zure mugikorra PCrako konexioa eta datu komunikazioetarako aplikazio bateragarri anitzekin erabil daiteke. Nokia Ovi Suite aplikazioarekin, adibidez, telefonotik ordenagailu bateragarri batera fitxategiak eta argazkiak bidal daitezke.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Ovi Suite USB konexio moduarekin erabiltzeko, aukeratu **PC Suite modua**.

Ovi Suite zerbitzuari buruzko informazio gehiagorako, ikus laguntza atala www.ovi.com helbidean.

## Administrazio ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.**.

Datu deien konexiorako konektatzeko ordua ezartzeko, aukeratu **Datu-deia**. Datu deien ezarpenek GSM datu deiak erabiltzen dituen sargune guztietan eragina izaten dute.

## Datu paketeen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.** > **Pakete-datuak**.

Datu paketeen ezarpenek datu paketeen konexioa erabiltzen duten sargune guztiengan daukate eragina.

Aukeratu hauetatik:

**Pakete-datuen konexioa** — **Eskuragarri denean** aukeratzen baduzu eta datu paketeak onartzen dituen sare batean bazaude, telefonoa datu paketeen sarean erregistratzen da. Datu pakete konexio aktibo bat sortzea (adibidez, mezu elektronikoak bidali eta jasotzeko) telefonoak beharrezkoa denean datu pakete konexio bat sortzea baino bizkorragoa da. Datu pakete estaldurarik ez badago, telefonoa noizbehinka datu paketeen konexioa ezartzen saiatuko da. **Behar denean** aukeratuz gero, telefonoak datu paketeen konexioa erabiltzen du horren beharra daukan aplikazio edo ekintzaren bat abiarazten baduzu.

**Sarbidea** — Sargunearen izena beharrezkoa da zure telefonoa datu paketeen modem gisa erabili nahi baduzu ordenagailu bateragarri batean.

**Abiad. hand. pak. sarbid.** — Gaitu edo desgaitu HSDPAren erabilera (sareko zerbitzua) UMTS sareetan.

## SIP ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.** > **SIP ezarpenak**.

Session Initiation Protocol (SIP) ezarpenak SIP erabiltzen duten zenbait sare zerbitzuentzako beharrezkoak dira. Ezarpenak zerbitzu hornitzailearen mezu berezi batean jasoko dituzu. Ezarpen profil hauek SIP ezarpenetan ikusi, ezaba edo sor daitezke.

## Sargune izenen kontrola

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.** > **APN kontrola**.

Sargune izenen kontrola zerbitzuarekin, datu paketeen konexioak murritz daitezke, bai eta telefonoko datu paketeen sargune batzuen erabilera baimendu ere.

Ezarpen hau eskuragarri egoteko SIM txartelak sargunea kontrolatzeko zerbitzua onartu behar du.

Kontrolatzeko zerbitzua aktibatzeko edo desaktibatzeko eta onartutako sarguneak aldatzeko, aukeratu **Aukerak** eta


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

dagokion aukera. Aukerak aldatzeko, PIN2 kodea behar da. Kodea eskuratzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

# Internet

Web arakatzailearekin hipertestua markatzeko lengoaia (HTML) daukaten web orriak ikus ditzakezu Interneten diseinatu diren bezala. Gailu mugikorretarako diseinatutako web orriak araka ditzakezu ere eta hipertestua markatzeko lengoaia estentsiboa (XHTML), edo haririk gabeko markatzeko lengoaia (WML) erabil ditzakezu.

Weba arakatzeko, telefonoan Internet sarbide bat konfiguratu behar duzu. Web arakatzailea erabiltzeko sarean egotea behar da.

## Sarea arakatu

Aukeratu **Menua** > **Weba**.

Sarea arakatzeko, sakatu tresna-barrako **Joan web helbidera** eta idatzi web helbide bat.

Besterik adierazten ez bada, nabigatzailea pantaila osoko moduan egongo da. Pantaila osoko modua ixteko, hautatu behealdeko eskuineko aldean dagoen gezi-ikurra.

Baliteke web orri batzuk ikusteko memoria-kopuru handia behar duen materiala edukitzea, adibidez grafikoak eta bideoklipak. Horrelako orri bat kargatzen ari den bitartean zure telefonoa memoriarik gabe geratzen bada, sartu memoria-txartel bat. Bestela, ez dira bideoklipak bistaratuko.

Grafikoak desgaitutako web orriak arakatzeko, memoria aurrezteko eta orrialdea kargatzeko abiadura handitzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Orria** > **Kargatu edukia** > **Testua soilik**.

Webgunearen edukia eguneratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Birkargatu**.

Uneko webgunea laster marka gisaa gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Gorde laster-marka gisa**.

Uneko arakatze-saioan ikusi dituzun orrien argazkiak ikusteko, aukeratu **Atzera** (eskuragarri dago **Historia-zerrenda** arakatzaile ezarpenetan aktibatuta badago eta uneko web orria ez bada bisitatzen duzun lehenengoa).

Leiho askoren irekitze automatikoa baimendu edo galarazteko, aukeratu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Blokeatu popup-ak** edo **Baimendu popup-ak**.

Web gunean gerturatzeko, sakatu bi aldiz pantailan.

**Aholkua:** Arakatzailea atzealdera bidaltzeko aplikaziotik edo konexiotik atera gabe, sakatu amaitzeko tekla behin.

## Arakatzailearen tresna-barra

Arakatzailearen tresna-barrak gehien erabilitako funtzioetara joatea errazten du.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

Arakatzen zauden bitartean tresna-barra irekitzeko, hautatu eskuinaldeko izkinan dagoen gezia.

Tresna-barran hauetako bat hautatu:

**Zabaldu tresna-barra** — Zabaldu tresna-barra funtzio gehiagora sartu ahal izateko.

**Joan web helbidera** — Web helbide bat sartu.

**Erakutsi zooma** — Web orria handiagotu edo txikitu.

Tresna-barra zabala erabiltzeko, aukeratu **Zabaldu tresna-barra** eta hauetatik:

**Joan jarioet.** — Ikusi uneko jario harpidetzak.

**Bidali URLa** — Uneko orriaren web orria beste gailu batera bidali.

**Aldatu leih.** — Arakatzaile leiho irekien artean aldatu.

**Harp. jario.** — Ikusi uneko webgunean eskuragarri dauden web jarioak eta harpidetu haietako batera.

**Ezarpenak** — Editatu ezarpenak.

**Gord. lst.-m.** — Gorde uneko webgunea laster marka gisa.

**Birkargatu** — Eguneratu web orria.

**Ikusp. orok.** — Ikusi uneko webgunearen ikuspegi orokorra.

**Abiaorria** — Joan hasierako pantailara (ezarpenetan zehaztuta badago).

**Last. markak** — Ireki laster marken ikuspegia.

**Bil. gak.-htz.** — Bilatu uneko web orrian.

## Orrietan nabigatu

Informazio kopuru handi bat duen web orri bat arakatzen duzunean, Orrialde ikuspegi orokorra erabili dezakezu web orriak daukan informazio mota ikusteko.

Momentuko web orriaren ikuspegi orokorra ikusteko, ireki tresna barra ireki eta aukeratu > .

## Web jarioak eta blogak

Hautatu **Menua** > **Weba**.

Web jarioak web orrietan dauden eta partekatzeko erabiltzen diren XML fitxategiak dira, adibidez, azken berriak edo blogen izenburuak. Normala da web jarioak weban, blogetan eta wiki orrietan aurkitzea.

Arakatzaile aplikazioak automatikoki antzematen du web orri batek web jarioak dituen.

Web jarioak eskuragarri badaude, web jario batera harpidetzeko, hautatu **Aukerak** > **Harpid. web-jarioetara**.

Web jario bat eguneratzeko, web jario ikuspegian, hautatu jario bat eta **Aukerak** > **Web-jarioaren aukerak** > **Freskatu**.

Web jarioak automatikoki eguneratzen diren zehazteko, web jario ikuspegian, hautatu **Aukerak** > **Editatu** > **Editatu**. Aukera hau ez dago eskuragarri jario bat edo gehiago markatuta badaude.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Eduki bilaketa

Hautatu **Menua** > **Weba**.

Uneko webgunean testua aurkitzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu gako-hitza**.

Bat datorren hurrengora joateko, hautatu **Bilatu hurrengoa** tresna-barratik.

Bat datorren aurrekora, hautatu **Bilatu aurrekoa** tresna-barratik.

## Laster markak

Hautatu **Menua** > **Weba**.

Hautatu **Aukerak** > **Joan hona:** > **Laster markak**. Web helbideak zerrenda batetik edo laster-marken bilduma batetik aukera ditzakezu Berriki bisitatur. orriak karpetan.

Tresna-barrak arakatzailearen gehien erabilitako funtzioetara joatea errazten du.

Tresna-barran hauetako bat hautatu:

**Gehitu laster-marka** — Gehitu laster marka bat.

**Joan web helbidera** — Idatzi web helbide bat.

**Ezabatu** — Ezabatu laster marka bat.

Web orri berri batera joateko, hautatu **Aukerak** > **Joan hona:** > **Web-orri berria**.

Laster-markak bidaltzeko edo laster-marka bat hasierako orri gisa ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Laster-mark. aukerak**.

Laster-markak editatu, mugitu edo ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Last. mark. kudeatzail.**.

## Cachea ezabatu

Atzitutako informazioa edo zerbitzuak telefonoaren cache memorian gordetzen dira.

Cachea datuak denbora batez gordetzeko erabiltzen den memoriaren kokaleku bat da. Pasahitzak erabiliz ezkutuko informaziorik sartu edo sartzen saiatuz gero, hustu beti gordailua erabili ondoren.

Cachea husteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu datu pribatuak** > **Cachea**.

## Konexioa amaitu

Konexioa bukatzeko eta arakatzailea ixteko, hautatu **Aukerak** > **Irten**.

Sareko zerbitzariak gorde ohi duen web orrietako zure bisiten informazioa ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezabatu datu pribatuak** > **Cookieak**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Konexio seguruak

Segurtasun adierazlea (🔒) konexioa dagoen bitartean bistaratzen bada, telefonoa eta Interneteko atebide edo zerbitzariaren arteko datu transmisioa kodifikatuta egongo da.

Segurtasun ikonoak ez du esan nahi ataka eta edukiaren zerbitzariaren (datuak gordetzen diren tokiaren) arteko datu igorpena segurua denik. Zerbitzu-hornitzaileak pasagunea eta edukien zerbitzariaren arteko datu igorpena ziurtatzen du.

Segurtasun ziurtagiriak zerbitzu batzuentzat beharrezkoak izan daitezke, adibidez bankuen zerbitzuak. Zerbitzariaren identitatea egiazkoa ez dela edo zure telefonoan segurtasun ziurtagiri egokia ez duzula jakinaraziko zaizu. Informazio gehiago jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

**Garrantzitsua:** Ziurtagiriak erabiltzeak urrutiko konexioa eta software instalazioarekin lotuta egon daitezkeen arriskuak ia nabarmen gutxitzen dituen arren, ziurtagiri horiek zuzentasunez erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatu ahal izateko. Ziurtagiri bat izateak soilik, berez, ez du eskaintzen inolako babes motarik. Ziurtagirien administratzaileak ziurtagiri zuzenak, egiazkoak edo fidagarriak eduki behar ditu ziurtasun gehigarria erabilgarria izan dadin. Ziurtagiriek bizi iraupen mugatua izaten dute. "Ziurtagiri iraungia" edo "Ziurtagiri onartezina" oharrak agertzen badira, ziurtagiriak onargarria izan behar lukeen arren, egiazta ezazu telefonoko data eta ordua zuzenak direla.

Ziurtagiriaren ezarpen datutik aldatu baino lehen, ziurtagiriaren jabea konfidantzazkoa dela eta ziurtagiria benetan zerrendan dagoen jabearena dela egiazta ezazu.

## Web ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Weba** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hauetako bat:

### Ezarpen orokorrak

**Sarbidea** — Lehenetsitako sarbide puntua hautatzea. Baliteke zure gailuko sarbide guztiak zure zerbitzu-hornitzaileak aurrez zehaztu izana. Baliteke ezin aldatzea, sortzea, editatzea edo ezabatzea.

**Abiaorria** — Hasiera orria zehaztea.

**Historia-zerrenda** — Arakatzen ari zarenean, **Aktibatu** hautatzen baduzu, uneko saioan bisitatutako webguneen zerrenda ikusteko, hautatu **Atzera**.

**Web helbidearen atzizkia** — Idatzi telefonoak web helbidea Joan eremuan idatzitako lehenetsitako web helbidearen atzizkia (adibidez, .com edo .org).

**Segurtasun-abisuak** — Segurtasun jakinarazpenak ezkutatu edo erakutsi.

**Java/ECMA skripta** — Scripten erabilera gaitu edo ezgaitu.

**Java/ECMA script erroreak** — Hautatu script jakinarazpenak jaso nahi dituzun ala ez.

**Deskargatu artean ireki** — Hautatu deskargatzen ari den bitartean fitxategia irekitzeko gai izan nahi duzun ala ez.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

### Orrialdearen ezarpenak

**Kargatu edukia** — Hautatu irudiak eta bestelako objektuak kargatu nahi dituzun arakatzen ari zaren bitartean. Arakatzen ari zaren bitartean, **Testua soilik** hautatu baduzu, irudiak geroago kargatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bistaratu aukerak** > **Kargatu irudiak**.

**Lehenetsitako kodeketa** — Testu-karaktereak behar bezala agertzen ez badira, zure uneko orrialdearen hizkuntzarentzako kodeketa hauta dezakezu.

**Blokeatu popup-ak** — Arakatzean pop-up desberdinen irekitze automatikoa baimendu edo blokeatu.

**Birkargatze automatikoa** — Hautatu arakatzen ari zaren bitartean webguneak automatikoki freskatzea nahi duzun ala ez.

**Letra-tamaina** — Web orrialdeetan erabiliko den letraren tamaina zehaztu.

### Pribatutasun ezarpenak

**Berriki bisitatur. orriak** — Laster-marken biltze automatikoa gaitu edo ezgaitu. **Berriki bisitatur. orriak** karpetan bisitatutako web orrialdeen helbideak gordetzen jarraitu nahi baduzu, baina aldi berean karpeta laster-marken ikuspegitik gorde nahi baduzu, **Ezkutatu karpeta** aukeratu.

**Inprim. dat. gordetzen** — Hautatu, orrialdea hurrengo aldian irekitzen duzunean, webguneko pasahitzak edo webguneko bestelako datuak gorde nahi dituzun ala ez.

**Cookieak** — Cookieen jasotzea eta bidalketa gaitu edo ezgaitu.

### Web iturrien ezarpenak

**Aut. eguneratzeko sarbid.** — Hautatu eguneratu nahi duzun sarbide puntua. **Eguneratze automatik.** aktibatuta dagonean, soilik dago eskuragarri aukera hori.

**Eguneratu ibiltaritzan** — Hautatu ibiltaritzan zaudenean web jarioak automatikoki eguneratzea nahi duzun ala ez.

# Kokatzea (GPS)

GPS datuak bezalako aplikazioak erabil ditzakezu zure kokapena kalkulatzeko edo distantziak neurtzeko. Aplikazio hauek GPS konexioa behar dute.

## GPS zerbitzuari buruz

GPSan adierazitako koordenatuak nazioateko WGS-84 koordenatu-sistemakoak dira. Koordenatu horien eskuragarritasuna herrialdearen arabera alda daiteke.

Posizionamendu Globaleko Sistema (GPS) Amerikako Estatu Batuetako gobernuak zuzendutakoa da, hau izanik sistema honen zehaztasunaren eta mantentze lanen erantzule bakarra. Estatu Batuetako gobernuak GPS sateliteetan egiten dituen doikuntzek eragina izan dezakete kokapenari buruzko datuen zehaztasunean, eta hau Irrati-Nabigazio Plan Federalaren eta Estatu Batuetako Defentsa Zibilaren Sailean GPS politikari buruz sortu daitezkeen aldaketen menpe dago. Sateliteen geometria eskasak ere zehaztasunari eragin diezaioke. Zure kokapenak, eraikinek, oztopo naturalek eta eguraldiaren baldintzek, GPS seinaleen erabilgarritasun eta kalitatean eragina izan dezakete. Baliteke GPS seinaleak eskuragarri ez egotea eraikinen

barruan edo lur azpian eta oztopa daitezke zenbait materialekin, hormigoia eta metala, esaterako.

GPSa ez da erabili behar neurketa zehatz bat egiteko, ez eta GPS hargailuak eta irrati zelularren sareek adierazten dituzten datuetan soilik oinarritzea kokatu edo nabigatzeko.

Bidaietarako odometroak zehaztasun mugatua du, eta akats batzuk izan ditzake. Zehaztasuna, GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitateari loturik egon daiteke.

Posizionamendu metodo ezberdinak gai edo desgai daitezke kokapen ezarpenetan.

## Lagunduriko GPSa (A-GPS)

Telefonoa Lagunduriko GPSa (A-GPS) zerbitzuarekin bateragarria da.

A-GPS sareko zerbitzu bat da.

Assisted GPS (A-GPS) datu pakete konexio baten bidez laguntzarako datuak lortzeko erabiltzen da, zure telefonoak sateliteen seinalea jasotzen duen zure uneko kokapenaren koordenatuak kalkulatuz.

A-GPS zerbitzua aktibatzerakoan, telefonoak sateliteetako informazio erabilgarria jasotzen du laguntza datuen zerbitzari batetik sare mugikorraren bidez. Laguntza datuei esker, telefonoak azkarrago lor dezake GPS kokapena.

Telefonoa Nokia A-GPS zerbitzua erabiltzeko aurretik konfiguratuta dago, hornitzailearen beste ezarpen bereziak erabilgarri egon ezean. Laguntza datuak Nokia A-GPS zerbitzaritik lortzen dira, behar izanez gero.

Interneteko sargune bat zehaztu behar duzu telefonoan datu pakete konexioaren bidez Nokia A-GPS zerbitzutik laguntza datuak jasotzeko. A-GPS aplikazioarentzako sargune bat zehazteko, aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Kokapena** eta **Posizionamend.** > **Posizion.-zerbitzaria** > **Sarbidea**. Ezin da hari gabeko LAN (WLAN) sargune bat erabili zerbitzu honentzako. Datu paketeen Interneteko sargune bakarra erabil daiteke. Telefonoak Interneteko sargunea eskatuko dizu GPSa lehenengo aldiz erabiltzerakoan.

## Eutsi telefonoari behar bezala

GPS hartzailea erabiltzerakoan, egiaztatu ez duzula antena eskuarekin estaltzen.



GPS konexioa ezartzeak segundo edo minutu batzuk iraun ditzake. GPS konexioa ibilgailu baten barruan ezartzeak denbora gehiago iraun dezake.

GPS hartzailea telefonoko bateriaren energiaz hornitzen da. GPS hartzailea erabiltzean bateria azkarrago agor daiteke.

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## GPS konexioak sortzeko gomendioak

### Satelitearen seinalearen egoera egiaztatu

Telefonoak zenbat satelite aurkitu dituen jakiteko eta seinalea jasotzen ari den jakiteko, aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Kokapena** eta **GPS datuak** > **Aukerak** > **Satelitearen egoera**.



Gailuak sateliteak aurkitu baditu, satelite bakoitzeko barra bat erakutsiko da satelite informazioaren bistan. Barra zenbat eta luzeagoa izan, are eta indartsuagoa izango da satelitearen seinalea. Satelite seinaletik zure kokapena kalkulatzeko adina datu jaso dituenean gailuak, barraren kolorea aldatuko da.

Aurkitutako sateliteen kokapena ikusteko, aukeratu **Ald. ikusp.**.

Hasieran, gutxienez, lau satelitetatik jaso beharko ditu seinaleak zure gailuak, zure kokapena kalkulatu ahal izateko. Behin hasierako kalkulua eginda, baliteke, zure kokapena kalkulatzen jarraitzeko, hiru satelite soilik erabiltzea. Hala ere, normalean, zenbat eta satelite gehiago aurkitu, orduan eta zehaztasun hobea izango da.

Ezin bada satelite seinalerik aurkitu, egizu honakoa:

- Leku estali batetan bazaude, joan zeru irekira seinale hobea jasotzeko.
- Kanpoaldean bazaude, mugitu leku zabalago batetara.
- Egiaztatu eskua GPS antena estaltzen ez duela.
- Eguraldi baldintzak txarrak badira, seinalearen indarrean eragin dezake.
- Ibilgailu batzuk leiho tindatuak (atermikoak) dituzte eta satelitearen seinalea blokea dezakete.

## Posizio eskaerak

Baliteke sare zerbitzu batek zure kokapena eskatzea. Baliteke zerbitzu-hornitzaileek, telefonoaren kokapenean oinarrituta, zure kokapenari buruzko informazioa eskaintzea, eguraldia edo trafikoa, adibidez.

Kokapen eskaera bat jasotzen baduzu, eskaera egin duen zerbitzuaren mezu bat agertuko da. Aukeratu **Onartu** zure kokapen informazioa bidaltzea baimentzeko edo **Uko egin** eskaera ukatzeko.

## Mugarriak

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Kokapena** eta **Mugarriak**.

Mugarriekin, kokapen zehatzei buruzko informazioa gorde dezakezu telefonoan. Gordetako kokapenak talde desberdinetan sailka daitezke (dendak, esate baterako) eta bestelako informazioa gehitu, adibidez, helbideak. Gordetako mugarriak aplikazio bateragarrietan erabil daitezke, adibidez, GPS datuen aplikazioan.

Nazioateko WGS-84 koordenatu-sisteman adierazten dira GPS koordenatuak.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Aukeratu **Aukerak** eta hauetatik:

**Mugarri berria** — Mugarri berri bat sortzea. Zure uneko kokapenaren posizionamendu-eskaera egiteko, hautatu **Uneko posizion.**. Posizionamenduaren informazioa eskuz idazteko, hautatu **Sartu eskuz**.

**Editatu** — Editatu edo gehitu informazioa gordetako mugarri batean (adibidez, helbide bat).

**Gehitu kategoriara** — Gehitu mugarri bat Mugarriak ataleko kategoria batean. Aukeratu mugarria gehitu nahi duzun kategoria bakoitza.

**Bidali** — Bidali mugarri bat edo gehiago gailu bateragarri batera. Jasotako mugarriak Sarrera ontziko karpetan daude, Mezularitza atalean.

Mugarriak aurrez zehaztutako kategorietan sailka daitezke, baita kategoria berriak sortu ere. Mugarrien kategoria berriak sortzeko eta aldatzeko, ireki kategorien fitxa eta aukeratu **Aukerak** > **Editatu kategoriak**.

## GPS datuak

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Kokapena** eta **GPS datuak**.

GPS datuak hautatutako helbururainoko bidaiaren informazioa eta bidearen bideratze-informazioa eskaintzeko diseinatuta daude, hala nola helmugaraino gelditzen den gutxi gorabeherako distantzia eta bidaiaren gutxi gorabeherako iraupena.

GPSeko koordenatuak WGS-84 koordenatuen nazioarteko sistema erabiliz adierazten dira.

GPS datuak erabiltzeko, telefonoko GPS hartzaileak posizio-informazioa jaso behar du gutxienez hiru satelitetatik zure kokapena kalkulatzeko. Hasierako kalkulua egin ostean, hiru sateliterekin ere koordenatuak kalkulatzen jarrai daiteke. Dena den, zenbat eta satelite gehiago aurkitu, orduan eta zehatzago izango da kokapena.

## Ibilbideen gida

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Kokapena** eta **GPS datuak** > **Nabigazioa**.

Ibilbideen gida zeru irekian abiarazi. Leku estali batean abiarazten baduzu, baliteke GPS hartzaileak sateliteetatik behar duen informazio guztia ez jasotzea.

Ibilbide gida helmugarainoko bide zuzenena eta motzena erakusteko diseinatuta dago, lerro zuzen batetan neurtuta. Ez dira kontutan izango bideko eraikuntzak edo oztopo naturalak. Altitude ezberdintasunak ez dira kontutan izango distantzia kalkulatzerakoan. Ibilbide gida mugitzen ari zarenean bakarrik egongo da aktibo.

Zure txangoaren helmuga ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarri helmuga** eta mugarria helmuga gisa edo idatzi latitudearen eta longitudearen koordenatuak.

Zure txangorako ezarritako helmuga garbitzeko, hautatu **Nabigazioa eten**.

## Posizio informazioa jaso

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Kokapena** eta **GPS datuak** > **Posizionamendua**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Posizio ikuspegian, zure uneko kokapenaren informazioa ikus dezakezu. Kokapenaren zehaztasunaren estimazio bat erakutsiko da.

Uneko kokapena mugarri gisa gordetzeko, hautatu **Aukerak** > **Gorde posizionamendua**. Mugarriak informazio gehiago daukaten gordetako kokapenak dira eta bateragarriak diren beste aplikazioetan erabili eta gailu bateragarrien artean transferi daitezke.

## Bidaia neurgailua

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Kokapena** eta **GPS datuak** > **Ibilbid.-dist.**.

Bidaietarako odometroak zehaztasun mugatua du, eta akats batzuk izan ditzake. Zehaztasuna, GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitateari loturik egon daiteke.

Bidaiaren distantzia kalkulagailua pizteko edo itzaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Hasi** edo **Gelditu**. Kalkulatutako balioek pantailan jarraituko dute. Erabili funtzio hau kanpoan GPS seinale hobea jasotzeko.

Bidaiaren distantzia eta denbora eta batez besteko gehienezko abiadura zeron jartzeko eta kalkulu berri bat hasteko, hautatu **Aukerak** > **Berrezarri**. Odometroa eta denbora guztira zeron jartzeko, hautatu **Berrabiarazi**.

## Kokapenaren ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Kokapena** eta **Posizionamend.**.

### Kokapen metodoak

Hautatu hurrengoen artetik:

**GPS integratua** — Erabili zure telefonoko GPS hartzaile integratua.

**Laguntduriko GPSa** — Erabili lagundutako GPSa (A-GPS) laguntzari buruzko datuak jasotzeko laguntza datu zerbitzari batetik.

**Bluetooth GPS** — Erabili kanpoko GPS hartzaile bateragarria Bluetooth konexioarekin.

**Sarean oinarritua** — Erabili sare mugikorreko informazioa (sareko zerbitzua).

### Kokapen zerbitzaria

Sarean oinarritutako kokapena edo lagundutako GPSa bezalako sarez lagundutako kokapen-metodoak erabil ditzazun sarbide-puntua eta kokapen-zerbitzaria zehazteko, hautatu **Posizion.-zerbitzaria**.

Kokapen zerbitzaria zure zerbitzu hornitzaileak lehenetsi dezake eta, kasu horretan, ezin izango duzu aldatu.

### Idazkeraren ezarpenak

Abiadura eta distantzietarako zein neurketa sistema erabili nahi duzun aukeratzeko, aukeratu **Neurketa-sistema** > **Metrikoa** edo **Inperiala**.

Koordenatuen informazioaren formatua zehazteko, hautatu **Koordenatu-formatua** eta nahi duzun formatua.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

# Mapak

## Mapak aplikazioari buruz

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

Mapak erabiliz, mapan zure uneko kokapena ikus dezakezu, hiri eta herrialde ezberdinetako mapak ikus ditzakezu, tokiak bilatu, kokapen batetik besterako ibilbideak planifikatu, kokapenak gorde eta gailu bateragarriei bidali. Zure herrialdeko trafikoari buruzko informazioa eta nabigazio-zerbitzuak eros ditzakezu, zure herrialdean edo eskualdean eskuragarri badaude.

Mapak aplikazioa lehenengoz erabiltzerakoan, Interneteko sargunea aukeratu beharko duzu mapak deskargatzeko.

Datu-konexio aktibo bat daukazunean eta pantailako mapan nabigatzean, automatikoki mapa berri bat deskargatuko da jadanik deskargatutako mapek ez duten gune batera joaten bazara. Nokia Map Loader PC softwarea erabil dezakezu ere bai mapak deskargatzeko. Nokia Map Loader ordenagailu bateragarri batean instalatzeko, zoaz www.nokia.com/maps helbidera (ingelesez).

**Aholkua:** Transferentzia-kostuak saihesteko, Mapak aplikazioa Interneterako konexiorik gabe erabil dezakezu ere, eta telefonoan edo memoria-txartelean gordeta dauden mapak araka ditzakezu, zure telefonoan eskuragarri badaude.

**Oharra:** Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (sareko zerbitzua).

Ia mapa digital gehienak neurri batean edo bestean zehaztu gabe edo osatu gabe daude. Ez oinarritu telefono honetan ematen diren mapetan soilik.

## GPSari buruz

Posizionamendu Globaleko Sistema (GPS) Amerikako Estatu Batuetako gobernuak zuzendutakoa da, hau izanik sistema honen zehaztasunaren eta mantentze lanen erantzule bakarra. Estatu Batuetako gobernuak GPS sateliteetan egiten dituen doikuntzek eragina izan dezakete kokapenari buruzko datuen zehaztasunean, eta hau Irrati-Nabigazio Plan Federalaren eta Estatu Batuetako Defentsa Zibilaren Sailean GPS politikari buruz sortu daitezkeen aldaketen menpe dago. Sateliteen geometria eskasak ere zehaztasunari eragin diezaioke. Zure kokapenak, eraikinek, oztopo naturalek eta eguraldiaren baldintzek, GPS seinaleen erabilgarritasun eta kalitatean eragina izan dezakete. Baliteke GPS seinaleak eskuragarri ez egotea eraikinen barruan edo lur azpian eta oztopa daitezke zenbait materialekin, hormigoia eta metala, esaterako.

GPSa ez da erabili behar neurketa zehatz bat egiteko, ez eta GPS hargailuak eta irrati zelularren sareek adierazten dituzten datuetan soilik oinarritzea kokatu edo nabigatzeko.

Bidaietarako odometroak zehaztasun mugatua du, eta akats batzuk izan ditzake. Zehaztasuna, GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitateari loturik egon daiteke.

Lagunduriko GPSa (A-GPS) erabiltzen da laguntzaren datuak datu-pakete konexio baten bidez jasotzeko, honek uneko kokapena kalkulatzen laguntzen du gailuak sateliteen seinaleak jasotzen dituenean.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

A-GPS sareko zerbitzu bat da.

## Mapan zehar mugitu

GPS konexioa aktibatuta dagoenean, irudiak zure uneko kokapena adierazten du mapan.

Zure uneko kokapena edo azken kokapen ezaguna ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Nire kokap.**.

Mapan zehar mugitzeko, arrastatu mapa. Mapa iparraldera orientatuta egongo da besterik adierazi ezean.

Datu konexio aktibo bat daukazunean eta pantailako mapan nabigatzean, automatikoki mapa berri bat deskargatuko da jadanik deskargatutako mapek ez duten gune batera joaten bazara. Mapak automatikoki gailuaren memorian gordetzen dira edo memoria txartel bateragarri batean, sartuta badago.

Mapa gerturatzeko eta urruntzeko, ukitu **+** eta **-**.

Mapa mota aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Mapa modua**.

## Pantailako adierazleak

GPS adierazleak satelite seinaleen eskuragarritasuna erakusten du. Barra bat satelite bat da. Telefonoa satelite-seinaleren baten bila dabilenean, barra hori kolorekoa da. Telefonoak sateliteetatik GPSak zure kokapena kalkulatzeko adina datu jasotzen dituenean, barra berde kolorekoa bilakatzen da. Zenbat eta barra berde gehiago izan, orduan eta fidagarriagoa izango da kokapenaren kalkulua.

Hasieran, telefonoak gutxienez lau sateliteren seinalea jaso behar du zure kokapena kalkulatu ahal izateko. Lehengo kalkuluaren ondoren, hiru sateliteren seinaleak nahiko izan daitezke.

Datu transferentzia adierazleak 21.5 kb erabiltzen ari den Internet konexioa eta, aplikazioa erabiltzen hasi zen unetik, transferitutako datuen kopurua erakusten du.

## Kokapenak bilatu

Kokapenak bilatzeko, ukitu maparen gainean dagoen informazio eremua eta hautatu **Arakatu**. Idazten hasi kokapenaren izena bilaketa eremuan. Gailuak bat datozen inguruneko kokapenak proposatuko ditu. Hautatu kokapena zerrendan edo idatzi kokapenaren izena bilaketa eremuan, eta hautatu **Bilatu**.

1. Helbide jakin bat bilatzeko, hautatu bilaketa ikonoa eta **Helbidea**.
2. Idazten hasi beharrezko informazioa. Izartxo (*) bat duten eremuak bete behar dituzu.
3. Hautatu helbidea proposatutako aukeren zerrendan.

Kontaktuetan gordetako helbide bat aurkitzeko, hautatu bilaketa ikonoa eta **Helbidea** > **Aukerak** > **Hautatu kontaktuetatik**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Kokapenak koordenatuen arabera bilatzeko, hautatu bilaketa ikonoa eta **Tokiak**.

Kategoria jakinetako kokapenak bilatzeko, jatetxeak edo dendak esaterako, ukitu maparen gainean dagoen informazio gunea eta hautatu **Arakatu**. Hautatu kategoria bat eta idatzi bilaketa terminoak bilaketa eremuan.

## Ibilbideak antolatzea

Ibilbideak sortu eta ikus ditzakezu mapan.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

### Ibilbideak sortu

1. Sakatu abiapuntura mapan. Ibilbideari helmuga eta kokapen gehiago gehitzeko, hautatu **Gehitu puntu berria**. Zure uneko kokapena abiapuntu gisa erabili nahi baduzu, gehitu helmuga ibilbidean.
2. Sakatu maparen gaineko informazio-eremua eta hautatu **Gehitu ibilbidera**.
3. Hautatu **Gehitu puntu berria** eta gehitu helmuga eta kokapen gehiago ibilbidean.

### Ibilbideko kokapenen ordena aldatu

Sakatu kokapen bat eta hautatu **Mugitu**. Ukitu kokapena jarri nahi duzun toki berria eta hautatu **Hautatu**.

### Ibilbidea mapan erakutsi

Hautatu **Erakutsi**.

### Helmugara nabigatu

Aukeratu **Erakutsi** > **Aukerak** > **Hasi gidatzen** edo **Hasi oinez**. Nabigatu ahal izateko, lizentzia bat erosi behar duzu.

### Ibilbidea gorde

Hautatu **Erakutsi** > **Aukerak** > **Gorde ibilbidea**.

## Kokapenak gorde eta bidali

Telefonoan zure kokapen gogokoak gorde ditzakezu eta gailu bateragarrietara bidali.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

### Kokapen bat gorde telefonoan

Sakatu kokapena, sakatu maparen gaineko informazio-eremua eta hautatu **Gorde**.

### Gordetako kokapenak ikusi

Ikuspegi nagusian, hautatu **Aukerak** > **Gogokoak**.

### Kokapena gailu bateragarri batera bidali

Sakatu kokapena eta hautatu **Bidali**.

## Gordetako elementuak ikusi

Telefonoan gorde dituzun kokapenak eta ibilbideak sailka ditzakezu, eta mapan ikusi. Zure gogoko lekuen bildumak ere sor ditzakezu, hala nola jatetxeak edo museoak.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

### Gordetako kokapenak eta ibilbideak ikusi

Hautatu **Aukerak** > **Gogokoak**.

### Gordetako kokapenak sailkatu

Hautatu **Tokiak** > **Aukerak** > **Sailkatu**.

### Kokapena mapan ikusi

Sakatu kokapena eta hautatu **Erakutsi mapan**.

### Kokapena ibilbide batean gehitu

Sakatu kokapena eta hautatu **Gehitu ibilbidera**.

### Bildumak sortu

Hautatu **Aukerak** > **Bilduma berria**.

## Zure kokapen faboritoak Ovi Mapak erabiliz sinkronizatzea

Ovi webguneak Nokiak eskainitako Internet zerbitzuak ditu. Ovi Mapak atalak Mapak aplikazioari lotutako zerbitzuak dauzka. Gordetako kokapenak, bildumak, eta ibilbideak Ovi Maps-ekin sinkroniza ditzakezu, Nokia kontu bat Ovi-n badaukazu. Kontu bat sortzeko, joan www.ovi.com helbidera.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

### Gorderako elementuak Ovi Maps-ekin sinkronizatu

Hautatu **Aukerak** > **Gogokoak** > **Sinkronizatu Ovi-rekin**.

### Gailuak elementuak automatikoki sinkronizatzeko ezarri

Hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Sinkronizazioa** > **Sinkronizatu Ovi-rekin** > **Irikitzer. eta ister.**. Gailua sinkronizazioa abiarazten du Mapak aplikazioa irei eta ixten duzunean.

Sinkronizatzean datu kantitate handiak igor daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

## Bilaketa historia

Historia ikuspegian, berriki bilatutako kokapenetara azkar itzultzeko aukera izango duzu.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

### Bilaketen historia ikusi

Hautatu **Aukerak** > **Historia**.

### Hautatutako kokapena mapan ikusi

Sakatu kokapena eta hautatu **Erakutsi mapan**.

### Kokapena gailu bateragarri batera bidali

Sakatu kokapena eta hautatu **Bidali**.

### Kokapena ibilbide batean gehitu

Sakatu kokapena eta hautatu **Gehitu ibilbidera**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Lizentziei buruz

Mapak aplikaziorako zerbitzu gehigarriak daude erabilgarri. Zerbitzu bat erabiltzeko, lizentzia erosi behar duzu. Zerbitzu gehienak eskualdearen araberakoak dira.

Lizentzia erosten duzunean, zenbait mugarri 3D ikuspegian agertuko dira mapan.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

### Uneko kokapenerako zerbitzu bat erosi

Hautatu **Aukerak** > **Denda eta lizentziak** > **Denda**.

Zerbitzu bat erosterakoan bi aukera dituzu:

- Erosi amaiera-data finkoa duen lizentzia.
- Harpidetu 30 egunero automatikoki berritzen den lizentzia batera, zuk bertan behera uzten duzun arte. Lizentzia bertan behera uzteko, hautatu **Aukerak** > **Denda eta lizentziak** > **Nire lizentziak**, zoaz lizentziara eta hautatu **Aukerak** > **Ezeztatu harpidetza**.

Zerbitzua kreditu-txartelaren bidez edo telefonoaren fakturaren bidez ordain dezakezu, zerbitzu-hornitzaileak onartzen badu. Erostean, zure kreditu-txartelaren zenbakia eta iraungitze-data gailuan gorde ditzakezu. Telefonotik kreditu-txartelaren informazioa kentzeko, hautatu **Aukerak** > **Garbitu datu pertsonalak**.

Zenbait gailuk City Explorer aplikazioaren lizentzia aldez aurretik instalatuta izan dezakete.

### Zure baliozko lizentziak ikusi

Hautatu **Aukerak** > **Denda eta lizentziak** > **Nire lizentziak**.

### Beste eskualdeetan erabilgarri dauden zerbitzuak ikusi

Hautatu **Aukerak** > **Denda eta lizentziak** > **Aukerak** > **Denda gehiago**.

## Zure helmugara ibili

Oinezko nabigaziorako lizentzia bat erosten duzunean, oinezko-guneak eta parkeak barne hartzen dituzten ibilbideak sor ditzakezu, bidexkak eta kale txikiak hobetsi eta autobideak ez ikusi.

Lizentziarekin, gailuan bilaketa hobetua zerbitzua jasoko duzu ere bai, zure herrialde edo lurraldean eskuragarri badaude. Bilaketa hobetua zerbitzua erabiliz, bilaketak burutzerakoan tokiko gertaerak eta bidaiari lotutako informazioa jasoko duzu.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

### Oinezko nabigaziorako lizentzia bat erosi

Hautatu **Aukerak** > **Denda eta lizentziak** > **Aukerak** > **Denda gehiago** > **Eskualde guztiak** > **Hiri-arakatzailea**. Lizentziak kreditu txartel bidez edo telefono faktura bidez ordaindu ditzakezu, zerbitzu-hornitzaileak onartzen badu.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

#### Nabigatzen hasi

Sakatu kokapen bat, sakatu maparen gaineko informazio-eremua eta hautatu **Joan oinez**.

Oinezko ibilbideen hasierako eta amaierako puntuen arteko gehienezko distantzia 50 kilometrokoa (31 miliakoa) da eta gehienezko abiadura 30 km/h-koa (18 mph-koa). Abiadura gainditzuz gero, nabigazioa gelditu egiten da eta onartutako abiadurara itzultzean berrekiten dio.

Helmugara errepidez iritsi ezin bada, ibilbidea oinezko norabidea adierazten duen lerro zuzen gisa pantailaratzen da.

Ez dago ahots-fitxategirik eskuragarri oinezko nabigaziorako baina telefonoak tonu edo dardara bidezko jakinarazpenak ematen ditu birak edo bestelako aldaketak baino 20 metro (22 yarda) lehenago. Jarraibide motak telefonoan aktibo dagoen profilaren araberakoak dira.

#### Ibilbidearen ikuspegi orokorra ikusi

Hautatu **Aukerak** > **Ibilbidearen ikuspegia**.

#### Nabigazioa gelditu

Hautatu **Gelditu**.

## Zure helmugaraino gidatzea

Oinez edo autoz nabigatzeko lizentzia eros dezakezu. Lizentzia eskualdearen araberakoa da eta aukeratutako eremuan bakarrik erabil daiteke.

Nabigaziorako eta gidatzerako laguntza gisa, telefonoan bide-laguntza eta abiadura-mugari buruzko abisu-zerbitzuak izango dituzu ere, zure herrialdean edo lurraldean eskuragarri badaude.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

#### Lizentziak erosi

Hautatu **Aukerak** > **Denda eta lizentziak** > **Denda** > **Gidarien gida %s**.

#### Autoz nabigatzen hasi

Hautatu kokapen bat, sakatu maparen gaineko informazio-eremua eta hautatu **Gidatu**.

Automobilezko nabigazioa lehen aldiz erabiltzean, ahozko gidaren hizkuntza hautatzeko eta lotutako ahozko gidaren fitxategiak deskargatzeko eskatuko zaizu.

**Oharra:** Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (sareko zerbitzua).

Nabigatzerakoan ikuspegiz aldatzeko, sakatu maparen gaineko informazio eremua eta hautatu **2D Ikuspegia**, **3D Ikuspegia**, **Gezi ikuspegia** edo **Ibilbidearen ikuspegia**.

#### Ordezko ibilbideak bilatu

Hautatu **Aukerak** > **Beste bat**.

#### Ahots bidezko gidaritza errepikatu

Hautatu **Aukerak** > **Errepikatu**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Ahots bidezko gidaritzaren bolumena egokitu**
Hautatu **Aukerak** > **Bolumena**.

**Bidaiaren iraupena eta distantzia ikusi**
Hautatu **Aukerak** > **Aginte-panel**.

**Nabigazioa gelditu**
Hautatu **Gelditu**.

Mapak aplikazioa erabiltzean, errepidean kontuz ibiltzea da garrantzitsuena. Ibilgailu motordunen gidariak ez lukete zerbitzu hau erabili behar gidatzen duten bitartean.

## Trafikoa eta segurtasuna

Zuzeneko trafiko informazio zerbitzuak zure bidaian eragina izan ditzaketen gertaerak jakinarazten dizkizu. Trafikoari buruzko informazioa eros edo deskarga dezakezu telefonora, zure herrialdean edo eskualdean eskuragarri badago.

Lizentzia erostean, zure ibilbidean aurkituko dituzun radarren kokapena agertuko zaizu nabigazioan zein jarraipenean, beti ere eginbide hau gaituta badago eta erabilgarri badago zure herrialdean edo eskualdean. Hainbat eskumenek abiadura kameren kokapenari buruzko informazio debekatu edo arautzen dute. Nokiak ez du erantzukizunik abiadura kameren kokapenari buruzko informazioaren doitasunarengan edo erabileraren ondorioengan. Halaber, radarren jakinarazpen zerbitzua jasoko duzu, zure herrialdean edo eskualdean erabilgarri badago.

**Oharra:** Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (sareko zerbitzua).

Sateliteko irudiak, gidak, eguraldiari eta trafikoari buruzko informazioa eta bestelako zerbitzuak Nokiarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek sortu dituzte. Baliteke informazioa guztiz osatua eta zehatza ez izatea, eta eskuragarritasunaren araberakoa izango da. Ez sekula informazio honetaz eta erlazionatutako zerbitzuez soilik fida.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

**Trafikoaren informazio-zerbitzuaren lizentzia erosi**
Hautatu **Aukerak** > **Denda eta lizentziak** > **Denda** eta hautatu zure eskualdeko trafikoaren informazio-zerbitzu bat.

**Trafiko-gertaerei buruzko informazioa ikusi**
Hautatu **Aukerak** > **Traf. inform.**. Gertaerak triangelu edo lerro gisa agertzen dira mapan.

**Ibilbidea berrantolatzearen xehetasunak eta aukerak ikusi**
Hautatu **Aukerak** > **Ireki**.

**Trafikoaren informazioa eguneratu**
Hautatu **Eguneratu trafikoa**.

**Telefonoak trafiko-gertaerak saihets ditzan ezarri**
Oinarrizko bistan, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Nabigazioa** > **Berrantol. trafikoagatik**.

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Kokapenaren xehetasunak

Kokapen batek xehetasunak izan ditzake, 24 orduko eguraldiaren iragarpena, adibidez.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

### Kokapen baten xehetasunak ikusi

Sakatu kokapena, sakatu maparen gaineko informazio-eremua eta hautatu **Erakutsi xehetasunak**.

### Eguraldiaren iragarpen xehatuagoa ikusi

Hautatu **Aukerak** > **Egural. xehet. guztiak**. Baliozko nabigazio-lizentzia behar duzu eta zerbitzuak kokapenerako erabilgarri egon behar du.

## Mapak iparrorratzarekin erabiltzea

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

Gailuaren iparrorratza gaituta dagoenean, iparrorratzaren inguruko zirkulua berdea da eta maparen bista automatikoki biratzen da gailuaren goiko aldea begira dagoen norabidearen arabera.

Iparrorratza gaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Piztu iparrorratza**. Iparrorratza erabileran ez dagoenean, bere inguruko zirkulua zuria da eta maparen bista ez da automatikoki biratzen.

## Iparrorratza kalibratzea

Iparrorratza ez da guztiz zehatza. Eremu elektromagnetikoek, metalezko objektuek edo bestelako kanpo-inguruabarrek ere iparrorratzaren zehaztasunean eragin dezakete. Iparrorratza behar bezala kalibratuta egon behar da.

Iparrorratza kalibratzeko, egin honakoa:



Biratu telefonoa ardatz guztiak igaroz mugimendu jarrai batean kalibratzailearen adierazlea berde ezartzen den arte. Adierazlea horia bada, iparrorratzaren zehaztasun-maila baxua da. Adierazlea gorria bada, iparrorratza ez dago kalibratuta.

## Mapa ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

Hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

**Internet** — Internet ezarpenak definitzea.

**Nabigazioa** — Nabigazio ezarpenak definitzea.

**Ibilbidea** — Bideraketa ezarpenak definitzea.

**Mapa** — Mapa ezarpenak definitzea.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

**Sinkronizazioa** — Zehaztu gordetako elementuak Ovi mapak zerbitzuarekin sinkronizatzeko ezarpenak.

## Interneteko ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

Hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Internet** eta hurrengoetatik:

**Konektatu abiaraztean** — Konfiguratu telefonoa Internetera konektatzeko Mapak aplikazioa irekitzen duzunean.

**Lehenetsitako sarbidea** edo **Sareko helbidea** — Hautatu Internetera konektatzeko erabili beharreko sarbide puntua.

**Roaming oharra** — Konfiguratu telefonoa etxeko sarea ez den sare batean erregistratzen denean jakinarazteko moduan.

## Nabigazio ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

Hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Nabigazioa** eta hurrengoetatik:

**Ahots bidezko gidaritza** — Aukeratu auto-nabigaziorako ahots bidezko aholkuetarako hizkuntza. Hizkuntza bat eta "kaleen izenekin" hautatuz gero, ahotsak kaleen izenak ere esaten ditu. Baliteke ahots fitxategiak deskargatu behar izatea hizkuntza aukeratu ahal izan aurretik.

**Atzeko argia** — Zehaztu atzeko argiaren ezarpena.

**Zoom automatikoa** — Erabili zoom automatikoa.

**Eguneratu zirkulazioaren informazioa** — Eguneratu zirkulazio gertaerei buruzko informazioa.

**Berrantol. trafikoagatik** — Zirkulazio jazoerak ekiditeko ibilbide berriaren plangintza egin.

**Ordu adierazlea** — Bistaratu bidaiaren irupena edo iristeko falta den denbora estimatua.

**Abiadura mugaren abisua** — Zehaztu telefonoa abiadura-muga gainditu duzunaz jakinaraz zaitzan, ibilbideko abiadura-mugak eskuragarri badaude.

**Segur. guneen abisua** — Zehaztu telefonoa radarren gertutasunaz jakinaraz zaitzan, ibilbidean datu hauek eskuragarri badaude.

**Maps-en hobekuntza** — Baimendu Nokiak zure telefonoko datuak erabiltzea Mapak aplikazioa hobetzeko. Datuak aldizka biltzen dira, ohiko abiaduretan gidatuz zoazenean eta informazioa anonimoa da eta enkriptatuta dago. Datuen artean norabidea, abiadura, kokapena, sateliteko ordua eta kokapenaren zehaztasuna daude. Mapak sareko konexio lokal finko edo hari gabeko batekin erabiltzen ari zarenean soilik bidaltzen da informazioa. Bidalitakoan, datuak telefonotik ezabatzen dira.

Aukera eskuragarriak ezberdinak izan daitezke.

## Ibilbide ezarpenak

Ibilbideak sortzean garraiobidea hauta dezakezu, bai eta ibilbidearen ezaugarri gogokoak ere.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

### Ibilbidearen ezarpenak editatu

Hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Ibilbidea**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

### Garraiobidea hautatu

Aukeratu **Garraiobidea** > **Oinez** edo **Autoz**. **Oinez** aukeratzen baduzu, norabide bakarreko kaleak kale arrunt gisa hartzen dira eta oinezkoentzako bideak erabili ahal izango dituzu.

### Ibilbiderik azkarrena erabili

Hautatu **Hautatu ibilbidea** > **Ibilbide azkarrena**. Aukera hau garraiobide gisa **Autoz** aukeratu baduzu bakarrik erabili dezakezu.

### Ibilbiderik motzena erabili

Hautatu **Hautatu ibilbidea** > **Ibilbide laburrena**.

Ibilbide motzenaren eta azkarrenaren abantailak konbinatzen dituzten ibilbideak planifikatzeko, hautatu **Hautatu ibilbidea** > **Optimizatua**.

Halaber, autobideak, tunelak, ferryak eta ordainketa-autopistak erabiltzea edo saihestea hauta dezakezu.

## Mapa ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

Hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Mapa** eta hurrengoetatik:

**Kategoriak** — Hautatu mapan ikusi nahi dituzun kokapen interesgarriak.

**Koloreak** — Optimizatu koloreak gauez edo egunez erabiltzeko.

**Erabilera memoria** — Hautatu mapen fitxategiak telefonoko zer tokitan gorde nahi dituzun.

**Geh. mem. erabilera** — Hautatu mapen gehienezko memoria-edukiera. Gehienezko edukierara iristean, mapa zaharrenak ordezten dira.

**Neurketa sistema** — Hautatu sistema metrikoa edo inperiala.

## Sinkronizazio ezarpenak

Zehaztu telefonoa Ovi Mapak zerbitzuarekin nola sinkronizatzea nahi duzun. Ovi-ko konturik ez baduzu, sortu bat www.ovi.com helbidean.

Hautatu **Menua** > **Mapak**.

### Zehaztu sinkronizazio-ezarpenak

Hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Sinkronizazioa**.

Mapak aplikazioa irekitzen edo ixten duzunean telefonoan gordetako elementuak Ovi zerbitzuarekin automatikoki sinkronizatzeko, hautatu **Sinkronizatu Ovi-rekin** > **Irikitzer. eta ister.**.

### Sinkronizatu gordetako elementuak Ovi-rekin eskuz

**Sinkronizatu Ovi-rekin** > **Eskuz** hautatu. Elementuak sinkronizatzeko, menu nagusian, hautatu **Aukerak** > **Gogokoak** > **Sinkronizatu Ovi-rekin**.

### Zehaztu Ovi-ko kontuaren xehetasunak

Hautatu **Saioa hasteko info.**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Mapak eguneratu

Gailu bateragarrian mapak eta ahozko gidaren fitxategiak eguneratzeko, deskargatu Nokia Maps Updater ordenagailuan hemen: www.nokia.com/maps. Konektatu gailu ordenagailuari, ireki Nokia Maps Updater eta egin hurrengoa:

1. Hautatu zure hizkuntza zerrendan.
2. Ordenagailuari gailu bat baino gehiago konektatuz gero, hautatu gailua zerrendan.
3. Nokia Maps Updater eguneratzeak aurkitzen dituenean, deskargatu haiek gailuan.
4. Baimendu deskarga gailuan gailuaren pantailan eskatzen zaizunean.

## Mapak aplikazioa eguneratzea

Telefonoak Mapak aplikazioaren bertsio zaharrago bat badu, erabili Nokia Maps Updater Mapak aplikazioaren azken bertsioa zure telefonoan instalatzeko. Halaber, Nokia Maps Updater aplikazioak telefonoan mapak eta bestelako zerbitzuak eguneratzen ditu, behar izanez gero. Deskargatu Nokia Maps Updater ordenagailu bateragarri batean www.nokia.com/maps helbidetik. Nokia Maps Updater erabiltzeko, Nokia PC Suite instalatu behar duzu ordenagailuan.

1. Konektatu telefonoa ordenagailura.
2. Ireki Nokia Maps Updater izeneko aplikazioa.
3. Hautatu zure hizkuntza zerrendan.
4. Ordenagailura gailu bat baino gehiago konektatuta badago, hautatu zure telefonoa zerrendan.
5. Nokia Maps Updater eguneratzeak aurkitzen dituenean, deskargatu telefonoan.
6. Onartu deskarga zure telefonoan pantailan eskatzen zaizunean. Eskatuz gero, itxi abian diren aplikazioak.

Mapak aplikazioaren bertsio zaharra Mapak 3.0 bertsiora eguneratzen duzunean, zerbitzuetarako dituzun lizentziak berri bihurtzen dira automatikoki. Oinezkoen edo autorako nabigazioaren lizentziaren estaldura alda daiteke, baina aurreko lizentziaren eremua estaltzen jarraitzen du. Lizentzia-epea ez da aldatuko. Lizentziaren estaldurari buruzko informazio gehiagorako, zoaz www.nokia.com/maps helbidera.

## Nokia Map Loader

Nokia Map Loader aplikazioarekin, mapak eta ahots bidezko gidaritza fitxategiak deskarga daitezke internetetik telefonoko memoriara edo bateragarria den memoria txartel batera. Mapak aplikazioa erabili behar duzu eta behintzat aldi batez mapak arakatu Nokia Map Loader erabili aurretik, Nokia Map Loader aplikazioak Mapak aplikazioaren informazioa erabiltzen duelako mapen zein bertsio deskargatu behar duen egiaztatzeko.

Nokia Map Loader ordenagailu bateragarri batean instalatzeko, zoaz www.nokia.com/maps helbidera (ingelesez) eta jarraitu pantailan agertzen diren argibideak.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

# Kamera

Telefonoak 2592x1944 pixel (5 megapixel) arteko bereizmena onartzen du. Gida honetan irudiaren bereizmena modu ezberdinean azal daiteke.

Kalitate oneko argazkiak ateratzeko, garbitu kameraren lentea oihal batekin.

## Argazkiak atera

### Argazki eta grabaketa ezarpenak

Argazki bat atera edo bideoklip bat grabatu aurretik argazki eta grabaketa ezarpenen ikuspegia irekitzeko, hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Kamera** eta .

Argazki eta grabaketa ezarpenen ikuspegiak elementuen eta ezarpenen lasterbide ugari eskaintzen ditu argazki bat atera edo bideoklip bat grabatu aurretik.

Argazki eta grabaketa ezarpenak lehenetsitako ezarpenetara itzuliko dira kamera ixtean.

Hautatu aukera hauetariko bat:

Hautatu eszena.

edo Aldatu bideo- eta argazki-moduen artean.

edo Erakutsi edo ezkutatu bisorearen sareta (argazkietan soilik).

Aktibatu tenporizadorea (argazkietan soilik).

Aktibatu sekuentzia-modua (argazkietan soilik).

Ireki Photos.

Irudiaren ezarpenak:

Hautatu kolore-efektua.

Doitu zuri-balantzea. Aukeratu uneko argi baldintzak. Honela, kamerak argazki zehatzagoak aterako ditu.

Doitu esposizio-konpentsazioa (argazkietan soilik). Gai ilun bat plano argi batetan atera nahi baduzu, elurretan, adibidez, egokitu esposizioa +1 edo +2ra hondoko argitasuna orekatzeko. Gai argitsuak plano ilunetan ateratzeko, erabili -1 edo -2.

ISO A Egokitu argiarekiko sentikortasuna (argazkietan soilik). Areagotu argiarekiko sentikortasuna argi gutxiko baldintzetan argazki ilunak eta lausoak saihesteko. Argi sentikortasuna areagotuz irudiaren zarata areago daiteke ere.

Egokitu kontrastea (argazkietan soilik). Egokitu argazkiko gune argi eta ilunen arteko desberdintasuna.

Doitu zehaztasuna (argazkietan soilik).

Pantailaren bistaratzea ezartzen dituzun ezarpenen arabera aldatzen da.

Argazkien ezarpenak argazkiak ateratzeko modua egokitzeko dira bakarrik. Modu batetik bestera aldatzean ez dira zehaztutako ezarpenak berrezarriko.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Eszena berri bat hautatzen baduzu, hautatutako eszenak argazki ezarpenak ordeztuko ditu. Beharrezkoa izanez gero, argazki ezarpenak alda ditzakezu eszena bat hautatu ondoren.

Ateratako argazkia gordetzeko denbora gehiago behar da zooma, argia edo kolorea aldatuz gero.

## Argazkiak atera

Argazkiak ateratzerakoan kontutan izan:

- Erabili bi eskuak kamera geldirik mantentzeko.
- Zooma erabilitako argazkien kalitatea zoomik gabeko irudiena baino okerragoa da.
- Kameraren bateria aurrezteko modura pasako da minutu batean zehar ekintzarik egiten ez baduzu. Argazkiak ateratzen jarraitzeko, hautatu **Jarraitu**.
- Segurtasun distantzia bat manten ezazu flasha erabiltzerakoan. Ez erabili flasha pertsona edo animaliengandik hurbil. Ez estali flasha argazkia ateratzen ari zaren bitartean.

Argazki bat kamera nagusiarekin ateratzeko, egin honakoa:

1. Argazki modutik bideo modura aldatzeko, beharrezkoa bada, aukeratu > .
2. Argazkiak ateratzeko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla. Ez mugitu telefonoa argazkia gorde eta irudia azaldu arte.

## Irudiak bigarren kamerarekin ateratzea

Argazkiak ateratzeko, hautatu . Ez mugitu telefonoa argazkia gorde eta azken irudia agertu aurretik.

Argazki bat ateratzerakoan irudia handiagotzeko edo txikiagotzeko, erabili zoom graduatzailea.

Kamera bigarren planoan irekita utzi eta beste aplikazioak erabiltzeko, sakatu menu tekla. Kamerara itzultzeko, eduki sakatuta argazkiak ateratzeko tekla.

## Argazkiak ateratzeko pantailako kontrolak eta adierazleak

Argazkien bisorean honakoak ikusten dira:




**1** Ateratzeko moduaren adierazlea
**2** Zoom graduatzailea. Zoom graduatzailea gaitzeko edo ezgaitzeko, ukitu pantaila.
**3** Argazkia atera ikonoa. Sakatu argazki bat ateratzeko.

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

4 Flash modua. Sakatu ezarpenak aldatzeko.
5 Argazkien ezarpenak Sakatu ezarpenak aldatzeko.
6 Bateria maila
7 Irudiaren bereizmena
8 Argazki kontagailua (uneko argazki kalitate ezarpenekin eta eskuragarri dagoen memoriarekin atera daitekeen argazki kopurua)
9 Erabilitako memoria. Telefonoaren konfigurazioaren arabera, honako aukerak daude: telefonoaren memoria ().
10 GPS seinalearen adierazlea

## Kokapen informazioa

Kokapen informazioa automatikoki gehi dezakezu ateratako materialaren fitxategi-xehetasunetan. Adibidez, Photos aplikazioan argazki bat non atera zen jakin dezakezu.

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Kamera**.

### Kokapenaren informazioa ateratako materialean gehitu

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erakutsi GPS-inform.** > **Aktibatu**. Kokapen-informazioa kamera nagusiarekin ateratako argazkietan soilik dago eskuragarri.

Hainbat minutu behar izan daitezke zure kokapenaren koordenatuak lortzeko. Zure kokapenak, eraikinek, oztopo naturalek eta eguraldiaren baldintzek, GPS seinaleen eskuragarritasunean eta kalitatean eragina izan dezakete. Kokapen-informazioa duen fitxategi bat partekatzen baduzu, kokapen-informazioa ere partekatu egiten da eta zure fitxategia ikusten dute hirugarrenek zure kokapena ere ikus dezakete. Telefonoak sareko zerbitzuak behar ditu kokapen-informazioa eskuratzeko.

Kokapen informazioaren adierazleak:

— Kokapen informazioa ez dago eskuragarri. GPSa atzealdean aktibo gelditzen da minutu batzuetan zehar. Satelite bidezko konexio bat ezartzen bada eta adierazlea une horretan modura aldatzen bada, denbora horretan ateratako argazkiei eta grabatutako bideoklipei GPSaren kokapen informazioan oinarritutako etiketak jarriko zaizkie.

— Kokapen informazioa eskuragarri dago. Kokapen informazioa fitxategiaren xehetasunetan gehitzen da.

Kokapen informazioa duten fitxategiek adierazlea dute Photos aplikazioan.

## Argazki bat atera ondoren

Argazki bat atera ondoren, hautatu aukera hauetariko bat (eskuragarri **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erakutsi harturiko irudia** > **Bai** hautatu baduzu soilik):

— Bidali argazkia multimedia edo mezu elektroniko bidez edo konexio-metodoen bidez, hala nola Bluetooth bidez.

— Kargatu argazkia lineako album bateragarri batean.

**Ezabatu** — Ezabatu irudia.

Irudia hasierako pantailako horma-paper gisa erabiltzeko, hautatu **Aukerak** > **Erabili irudia** > **Ezarri horm.-pa. gisa**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Irudia dei-irudi lehenetsi gisa erabiltzeko edozein dei-egoeratan, aukeratu **Aukerak** > **Erabili irudia** > **Ezarri dei-irudi gisa**.

Irudia kontaktu bati esleitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Erabili irudia** > **Esleitu kontaktuari**.

Bisorera itzuli eta argazki berri bat ateratzeko, argazkiak ateratzeko tekla sakatu.

## Flasharen eta bideoaren argia

Segurtasun distantzia bat manten ezazu flasha erabiltzerakoan. Ez erabili flasha pertsona edo animaliengandik hurbil. Ez estali flasha argazkia ateratzen ari zaren bitartean.

Telefonoko kamerak LED flash duala dauka argi gutxiko baldintzetarako.

Nahi den flash modua aukeratzeko, sakatu momentuko flash modu adierazlea (adierazlea hauetariko bat da): **Automatikoa**, **Murr. beg. gor.**, **Aktibatu** eta **Desaktibatu**.

Ez ukitu Flasharen LEDa atzeko zorroa kendu baldin bada. LEDa berotu daiteke erabilera luze baten ondoren.

### Bideoaren argia

Bideo bat argitasun gutxirekin grabatzerakoan argitasun maila areagotzeko, hautatu .

## Eszenak

Eszena batek uneko ingurunearentzako kolore eta argi ezarpen egokiak aukeratzen lagunduko dizu. Eszena bakoitzaren ezarpenak estilo edo ingurune jakinetara egokitu dira.

Argazki eta bideo moduan lehenetsitako modua **Automatikoa** da (A ikurrarekin adierazita).

Eszena aldatzeko, aukeratu > **Eszena moduak** eta eszena.

Zure eszena ingurune baterako egokia izan dadin, joan **Erabiltz. zehaztuta** aukerara eta hautatu **Editatu**. Erabiltzaileak zehaztutako eszenan argi eta kolore ezarpen ugari egoki ditzakezu. Beste eszena bateko ezarpenak kopiatzeko, hautatu **Eszena mod. oinarritua** eta nahi den eszena. Aldaketa guztiak gordetzeko eta eszena zerrendara itzultzeko, hautatu **Atzera**. Zure eszena aktibatzeko, hautatu **Erabiltz. zehaztuta** > **Hautatu**.

## Argazkiak sekuentzian ateratzea

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Kamera**.

Sekuentzia modua kamera nagusian eskuragarri dago soilik.

Sekuentzia azkar batean argazkiak ateratzen hasteko, hautatu > **Sekuentzia**. Ezarpenen leihoa ixteko, hautatu . Eduki sakatuta argazkiak ateratzeko tekla. Telefonoak argazkiak ateratzen ditu **Gelditu** hautatu arte edo memoria amaitu arte.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Ateratako argazkiak sareetan agertzen dira. Argazki bat ikusteko, hautatu argazkia. Sekuentzia moduko bisorera itzultzeko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla.

Tenporizadorearekin ere sekuentzia modua erabil dezakezu.

Sekuentzia modua desaktibatzeko, hautatu > **Arg. bakarra**.

## Zu ere argazkian — tenporizadorea

Erabili tenporizadorea argazkia ateratzeko denbora atzeratzeko zu ere argazkian azaldu zaitezen.

Tenporizadorearen denbora ezartzeko, aukeratu > eta argazkia atera aurretik behar den denbora.

Tenporizadorea aktibatzeko, aukeratu **Aktibatu**. Kronometroaren ikonoak pantailan kliska egiten du eta geratzen den denbora tenporizadorea abiatzen denean agertzen da. Kamerak argazkia aterako du aukeratutako atzerapena igaro ondoren.

Tenporizadorea itzaltzeko, aukeratu > > .

**Aholkua:** Aukeratu **2 segundo** eskua egonkor mantentzeko argazkia ateratzen duzun bitartean.

# Bideoak grabatzea

## Bideoak grabatu

1. Argazki modutik bideo modura aldatzeko, beharrezkoa bada, hautatu eta bideo modua .
2. Grabatzen hasteko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla edo hautatu . Ikur gorri bat agertuko da, grabatzen ari denaren seinale.
3. Grabaketa edozein momentutan eteteko, aukeratu **Eten**. Jarraitzeko, aukeratu **Jarraitu**. Grabaketa eteten baduzu eta ez baduzu teklarik sakatzen minutu batean, grabaketa gelditu egingo da.

   Gaia gerturatzeko edo urruntzeko, erabili zoom teklak.
4. Grabatzeari uzteko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla. Bideoklipa automatikoki Photos atalean gordetzen da.

## Bideo grabazioen pantailako kontrolak eta adierazleak

Bideoen bisorean honakoa ikusten da:




**1** Ateratzeko modua
**2** Audioa desaktibatuta
**3** Grabaketa ikurra. Hautatu bideoklipak grabatzeko.
**4** Bideo argi adierazlea.
**5** Grabaketaren ezarpenak. Hautatu ezarpenak aldatzeko.
**6** Bateria maila

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

7 Bideoaren kalitatea. Ezarpena aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Bideoaren kalitatea**.
8 Bideoklip fitxategi mota
9 Geratzen den grabazio denbora. Grabatzerakoan, bideoaren iraupen adierazleak grabatutako denbora eta geratzen dena erakusten ditu.
10 Bideoklipa gordetzen den kokapena
11 GPS seinale adierazlea

## Bideo klipa grabatu ondoren

Bideoklipa grabatu ondoren, hautatu aukera hauetatik (eskuragarri **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erakutsi harturiko bideoa** > **Bai** aukeratu baduzu soilik):

**Erreproduzitu** — Erreproduzitu orain grabatu duzun bideo klipa.

— Kargatu argazkia lineako album bateragarri batean.

**Ezabatu** — Ezabatu bideoklipa.

Bisorera itzuli eta beste bideo bat grabatzeko, sakatu argazkiak ateratzeko tekla.

## Kameraren ezarpenak

### Argazki kameraren ezarpenak

Ezarpen nagusiak aldatzeko, irudi moduan, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

**Irudiaren kalitatea** — Ezarri bereizmena. Irudi bereizmena zenbat eta altuagoa izan, geroz eta memoria gehiago erabiliko da.

**Erakutsi harturiko irudia** — Ikusi argazkiak atera ondoren edo jarraitu argazkiak ateratzen.

**Irudi-izen lehenetsia** — Zehaztu ateratako argazkien izen lehenetsia.

**Kliskagailuaren tonua** — Ezarri argazki bat ateratzen duzunean entzungo den tonua.

**Erabilitako memoria** — Hautatu non gorde nahi dituzun irudiak.

**Erakutsi GPS-inform.** — Irudi fitxategi bakoitzari GPS kokapen koordenatuak gehitzeko, hautatu **Aktibatu**. GPS seinalea jasotzeak denbora behar lezake edo baliteke seinalea eskuragarri ez egotea.

**Biratu irudiak automatik.** — Hautatu telefonoa bertikalean zegoenean ateratako argazkiak Argazkiak atalean irekitzean biratzea nahi duzun ala ez.

**Lehen. kameraren ezarp.** — Kameraren ezarpenak lehenetsitako balioetara leheneratu.

### Bideo ezarpenak

Ezarpen nagusiak aldatzeko, bideo moduan, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

**Bideoaren kalitatea** — Ezarri bideokliparen kalitatea. Hautatu **Partekatzen** bideoklipa multimedia mezu bidez bidali nahi baduzu. Klipa QCIF bereizmenarekin grabatzen da 3GPP formatuan eta tamaina 600 kB-ra mugatuta dago (minutu bat gutxi gorabehera). Baliteke MPEG4 fitxategi formatuan gordetako bideoklipak multimedia mezu batean bidali ezin izatea.

**Erakutsi GPS-inform.** — Fitxategi bakoitzari GPS kokapen koordenatuak gehitzeko, hautatu **Aktibatu**. GPS seinalea


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

jasotzeak denbora behar lezake edo baliteke seinalea eskuragarri ez egotea.

**Audio grabaketa** — Grabatu soinua.

**Erakutsi harturiko bideoa** — Ikusi grabatutako bideokliparen lehenengo fotograma grabaketa gelditzen denean. Bideoklip osoa ikusteko, hautatu **Erreproduzitu** ▷.

**Bideo-izen lehenetsia** — Idatzi grabatutako bideoklipen izen lehenetsia.

**Erabilitako memoria** — Hautatu non gorde nahi dituzun bideoklipak.

**Lehen. kameraren ezarp.** — Kameraren ezarpenak lehenetsitako balioetara leheneratu.

# Argazkiak

## Argazkiak

Hautatu **Menua** > **Argazkiak** eta hurrengoetatik:

**Kapturatua** — Ikusi atera dituzun argazki eta bideo guztiak.

**Hileak** — Ikusi argazkiak eta bideoak ateratako hilabetearen arabera sailkatuta. Telefonoarekin hartutako edo grabatutako edukiarentzat aplikagarria da soilik.

**Albumak** — Ikusi album lehenetsiak eta zuk sortutakoak.

**Etiketak** — Ikusi elementu bakoitzarentzat sortu dituzun etiketak.

**Deskargak** — Ikusi saretik deskargatutako elementuak eta bideoklipak, multimedia-mezu edo mezu elektroniko gisa jasotakoak, memoria-txartelean gordetakoak edo telefonoaren memorian kopiatutakoak beste memoria-txartel batetik edo bestelako iturburuetatik.

**Par. on-line** — Igo argazkiak eta bideoklipak sarera.

## Argazkiak eta bideoak ikusi

Hautatu **Menua** > **Argazkiak**.



Irudiak eta bideoklipak gailu bateragarri batetik ere jaso ditzakezu. Jasotako irudi bat edo bideoklip bat Argazkiak aplikazioan ikusi ahal izateko, aurretik hura gorde behar da.

Irudiak eta bideoklipak dataren eta orduaren arabera ordenatuta daude. Fitxategi kopurua agertuko da. Irudiak arakatzeko, kolpatu goran edo beheran

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Fitxategi bat irekitzeko, hautatu fitxategia. Tresna-barra ikusteko, kolpatu irudia. Irudia gerturatzeko, erabili zoom graduatzailea. Zoom erlazioa ez da behin betiko gordeko.

Irudi bat edo bideoklip bat editatzeko, hautatu fitxategia eta **Aukerak** > **Editatu**.

Irudiaren xehetasunak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Xehetasunak**.

Argazkiak inprimagailu bateragarri batetan inprimatu nahi badituzu, **Aukerak** > **Inprimatu** aukeratu.

## Fitxategiaren xehetasunak ikusi eta editatu

Hautatu **Menua** > **Argazkiak**.

Irudi edo bideoklip baten propietatean ikusteko eta editatzeko, hautatu fitxategia, **Aukerak** > **Xehetasunak** eta hauetako bat:

**Izena** — Fitxategiaren miniatura eta fitxategiaren izena ikustea. Fitxategiaren izena editatzeko, hautatu izenaren eremua.

**Deskribapena** — Fitxategiaren formaturik gabeko deskribapen bat ikustea. Deskribapen bat gehitzeko, hautatu eremua.

**Etiketa** — Une honetan erabilitako etiketak ikustea. Uneko fitxategiari etiketa gehiago gehitzeko, hautatu **Etiketa berria**.

**Albuma** — Uneko fitxategia kokatuta dagoen bildumak zein diren ikustea.

**Kokalekua** — GPS kokapenaren informazioa ikustea, eskuragarri badago.

**Bereizmena** — Irudiaren tamaina pixeletan ikustea.

**Iraupena** — Bideokliparen iraupena ikustea.

**Lizentzia** — Uneko fitxategiaren DRM eskubideak ikustea.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

## Argazkiak eta bideoak antolatu

Hautatu **Menua** > **Argazkiak**. Fitxategiak honela antola ditzakezu:

Elementuak Etiketak ikuspegian ikusteko, elementuei etiketak gehitzeko.

Elementuak hilabetearen arabera ikusteko, **Hileak** aukeratu.

Elementuak gordetzeko album bat sortzeko, **Albumak** > **Aukerak** > **Album berria** aukeratu.

Bilduma bati irudi bat edo bideoklip bat gehitzeko, hautatu elementua eta **Aukerak** > **Gehitu albumera**.

Irudi bat edo bideoklip bat ezabatzeko, hautatu elementua eta **Ezabatu** tresna-barra aktibotik.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Argazkien tresna-barra

Tresna-barra aktibotik hautatu nahi duzun aukera. Eskuragarri dauden aukerak ikuspegiaren eta irudi bat edo bideoklip bat den arabera ezberdinak dira.

Irudi bat edo bideoklip bat pantaila osoko moduan ikustean, ukitu elementua tresna-barra eta zoom graduatzailea ikusteko.

Hautatu irudi edo bideoklip bat eta aukera hauetariko bat:

- Bidali irudia edo bideoklipa.
- Markatu irudia edo bideoklipa.
- Kargatu irudia edo bideoklipa online album bateragarri batean (eskuragarri online album bateragarri batean kontu bat badaukazu soilik).
- Ezabatu irudia edo bideoklipa.
- Aldatu irudiaren edo bideokliparen izena.
- Ikusi irudiak diaporama gisa.
- Sortu album berri bat.

## Albumak

Hautatu **Menua** > **Argazkiak** eta **Albumak**.

Bildumak erabiliz, irudiak eta bideo klipak era erosoan kudea ditzakezu.

Album bat sortzeko, hautatu .

Bilduma bati irudi bat edo bideo klip bat gehitzeko, hautatu elementua eta **Aukerak** > **Gehitu albumera**. Bilduma zerrenda bat agertuko da. Hautatu irudia edo bideo klipa gehitu nahi diozun bilduma. Bildumari gehitutako elementua oraindik ere ikusgai egongo da hemen: Argazkiak.

Album batetik irudi edo bideoklip bat ezabatzeko, hautatu albuma eta elementua eta hautatu **Aukerak** > **Kendu albumetik**.

## Fitxak

Hautatu **Menua** > **Argazkiak**.

Erabili etiketak Argazkiak ataleko multimedia elementuak sailkatzeko. Etiketa arakatzaileak momentuan erabiltzen diren etiketak eta etiketa bakoitzarekin loturiko elementu zenbakia erakusten du.

Irudi bati etiketa bat esleitzeko, hautatu irudia eta **Aukerak** > **Gehitu etiketa**. Etiketa bat sortzeko, hautatu **Etiketa berria**.

Sortu dituzun etiketak ikusteko, hautatu **Etiketak**. Etiketaren izenaren tamaina etiketari esleitutako elementu kopuruari dagokia. Etiketa bati lotutako irudi guztiak ikusteko, hautatu etiketa zerrendan.

Zerrenda orden alfabetikoan ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Izena**.

Zerrenda erabilitakoenen ordenean ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Onarpena**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Etiketa bati irudi bat ezabatzeko, hautatu etiketa eta irudia, eta hautatu **Aukerak** > **Kendu etiketatik**.

## Diapositiba aurkezpena

Hautatu **Menua** > **Argazkiak**.

Irudiak diapositiba aurkezpen gisa ikusteko, hautatu irudia eta **Aukerak** > **Diaporama** > **Erreproduzitu**. Diapositiba aurkezpena hautatutako fitxategitik hasten da.

Hautatutako irudiak diapositiba aurkezpen gisa ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Markatu/Kendu marka** > **Markatu** irudiak markatzeko. Diapositiba aurkezpena hasteko, hautatu **Aukerak** > **Diaporama** > **Erreproduzitu**.

Etendako diapositiba aurkezpena jarraitzeko, hautatu **Jarraitu**.

Diapositiba aurkezpena eteteko, hautatu **Atzera**.

Diapositiba aurkezpena abiarazi aurretik, diapositiba aurkezpenaren ezarpenak egokitzeko, hautatu **Aukerak** > **Diaporama** > **Ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

**Irudi ordena** — Erakutsi irudiak zaharrenetik berrienera edo alderantziz.

**Abestia** — Hautatu musika fitxategi bat zerrendatik.

**Trantsizio-abiadura** — Egokitu diapositiba aurkezpenaren erritmoa.

Bolumena diapositiba aurkezpenean zehar egokitzeko, erabili bolumen teklak.

## Telebista irteera-modua

Ateratako irudiak eta grabatutako bideoklipak telebista bateragarri batean ikusteko, erabili Nokiaren bideo konektagarritasun kablea.

Telebistan irudiak eta bideoklipak ikusi aurretik, baliteke telebista irteeraren ezarpenak eta itxura-erlazioa konfiguratu behar izatea.

Irudiak eta bideoklipak telebista batean ikusteko, egin ondorengoa:

1. Konektatu Nokiaren bideo konektagarritasun kablea telebista bateragarri baten bideo sarrerara.
2. Konektatu Nokiaren bideo konektagarritasun kablearen beste muturra telefonoaren Nokia AV konektorera.
3. Baliteke kable modua hautatu behar izatea.
4. Hautatu **Menua** > **Argazkiak** eta arakatu ikusi nahi duzun fitxategia.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.



Audio guztia, dei aktiboak, bideoklip audio estereoa, teklatu tonuak eta dei-tonua barne, telebistara bideratuta daude Nokiaren konektagarritasun kablea telefonora konektatuta dagoenean. Telefonoaren mikrofonoa beti bezala erabil dezakezu.

Bideoklipak ez beste edukiarekin, telebistaren pantailan telefonoaren pantailan agertzen dena ikus daiteke. Bideoklipak telebistaren pantailan soilik bistaratzen dira, eta ez telefonoaren pantailan.

Irudiak diaporama batean ikus ditzakezu telebistan. Album bateko elementu guztiak edo markatutako irudiak telebistan pantaila osoko moduan agertzen dira hautatutako musika erreproduzitzen den bitartean.

Telebistaren irudiaren kalitatea ezberdina izan daiteke pantaila bereizmen desberdinak direla eta.

Ezin duzu kameraren bisore gisa erabili telebista TB irteera moduan.

Hari gabeko irrati seinaleak, hala nola sarrerako deiak, telebistaren irudian interferentziak eragin lezakete.

## Editatu irudiak

### Argazki editorea

Irudi bat editatzeko, Argazkietan, joan irudira eta hautatu **Aukerak** > **Editatu**.

Irudiei efektuak gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu efektua**. Irudia moztu eta bira dezakezu; argia, kolorea, kontrastea eta bereizmena egokitu, eta irudiari efektuak, testua, clip art-ak edo marko bat gehi diezaiokezu.

### Argazkiak moztu

Irudi bat mozteko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu efektua** eta (**Moztu**).

Irudia eskuz mozteko, hautatu **Eskuzkoa**. Gurutze bat agertzen da irudiko goiko ezkerreko eta beheko eskuineko izkinetan. Mozteko ertzak egokitzeko, arrastatu izkinetako gurutzeak. Mozteko gune bat ezartzeko, hautatu **Ezarri**. Mozteko gune bat ezartzen denean, mozteko gunea arrasta dezakezu tamaina edo itxura-erlazioa aldatu gabe. Mozteko gunearekin pozik zaudenean, hautatu **Moztu**.

Aurretik zehaztutako itxura-erlazio bat hautatzen baduzu, hautatutako itxura-erlazioa blokeatzen da mozteko ertzak egokitzen dituzun bitartean.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Begi gorriak murriztu

Irudi batean begi-gorri efektua murrizteko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu efektua** eta (**Begi gorriak murriztea**).

Arrastatu gurutzea begiraino eta hautatu **Aukerak** > **Ezarri**. Arrastatu neurria aldatzeko eta mugitu begizta begia azpimarratzeko eta hautatu **Aukerak** > **Murriztu begi gorr. efek.**. Irudia editatzen amaitutakoan, hautatu **Egina**.

Aldaketa guztiak gordetzeko eta aurreko ikuspegira itzultzeko, hautatu **Atzera**.

## Bideoak editatu

Bideo editoreak .3gp eta .mp4 bideo formatuak eta .aac, .amr, .mp3, eta .wav audio formatuak onartzen ditu. Baliteke fitxategi formatu baten ezaugarri guztiak edo aldaketak ez onartzea.

Argazkiak atalean bideoak editatzeko, bideo batera joan eta ondoren, aukeratu **Aukerak** > **Editatu** eta ondorengoetako bat:

**Batu** — argazki bat edo bideo bat gehitzeko aukeratutako bideoaren hasiera edo bukaerara

**Aldatu soinua** — soinu klip berri bat gehitzeko eta jatorrizko soinua bideoklipan ordezkatzeko.

**Gehitu testua** — testua gehitzeko bideoaren hasiera edo bukaerara

**Ebaki** — bideoa uzkurtu eta bideoklipan gorde nahi dituzun atalak markatzeko

Bideoklip batetik argazki bat atera nahi baduzu, bideoa mozteko ikuspegian, **Aukerak** > **Argazkia atera** aukeratu. Koadro txikiko ikuspegian, gurpila sakatu eta **Argazkia atera** aukeratu.

## Inprimatu irudiak

PictBridge-rekin bateragarria den inprimagailu batekin telefonoko irudiak inprima ditzakezu. JPEG formatuan dauden irudiak soilik inprima ditzakezu.

Argazkiak atalean, kameran edo irudi-ikustailuan dauden irudiak inprimatzeko, irudiak markatu eta hautatu **Aukerak** > **Inprimatu**.

## Inprimagailu batera konektatu

Inprimatu azpimenuan, hautatu Bluetooth konektagarritasuna ala USB datu kable bateragarria erabiliz inprimatu nahi duzun irudia.

USB datu kable bat erabiliz inprimatu nahi baduzu, aurrena konektatu zure telefonoa inprimagailu bateragarri batera USB datu kablea erabiliz eta hautatu **Irudi-transferentzia** USB konexio-modu gisa.

## Inprimatze aurrebista

Inprimagailu bat hautatu ondoren hautatutako irudiak agertzen dira lehenetsitako diseinuarekin.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Diseinua aldatzeko, joan ezkerrera edo eskuinera hautatutako inprimagailuak eskuragarri dauzkan diseinuak ikusteko. Irudia ez bada orri bakar batean sartzen, mugitu gora eta behera gainerako orriak ikusteko.

Orriaren neurria hautatzeko, hautatu **Paper tamaina**.

Inprimaketa kalitatea hautatzeko, hautatu **Inprimaketa kalitatea**.

### Partekatu on-line

Argazkiak eta bideoak parteka ditzakezu sareko album bateragarrietan, weblogetan edo sareko bestelako partekatze zerbitzuetan. Edukia karga dezakezu, amaitu gabeko mezuak eta zirriborroak gorde eta beranduago haiekin jarraitu eta albumetako edukia ikusi. Eduki mota bateragarriak zerbitzu-hornitzailearen araberakoak dira.

Argazkiak eta bideoak sarean partekatzeko, argazkiak partekatzeko zerbitzu batean erregistratuta egon behar duzu. Normalean zerbitzu-hornitzailearen webgunean harpide zaitezke zerbitzu hauetara. Azalpen gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Zerbitzu hau erabiltzerakoan, datu kopuru handiak igor daitezke zure zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Konektatzeko modu gomendatua WLAN da.

Argazkiak ataleko fitxategi bat sareko zerbitzu batera kargatzeko, hautatu **Menua** > **Argazkiak**, nahi duzun fitxategia eta **Aukerak** > **Bidali** > **Kargatu** edo **Partekatu Ovi-n**.

Aplikazioari eta zerbitzu bateragarriei buruzko informazio gehiagorako, zoaz tokiko Nokiaren webguneko produktuaren laguntza atalera.

## Musika

**Abisua:**
Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake. Entzun musika bolumen egokian eta ez eduki telefonoa belarriaren ondoan bozgorailua abian denean.

### Abesti edo podcast bat erreproduzitu

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Musika-liburutegia**.

Abesti edo podcast bat erreproduzitzeko:

1. Hautatu kategoriak entzun nahi duzun abestira edo podcastera joateko.
2. Elementu bat erreproduzitzeko, hautatu elementua zerrendan.

Erreprodukzioa eteteko, ukitu ⏸; jarraitzeko, ukitu ▷.

Azkar aurrera edo atzera joateko, luze ukitu ⏭ edo ⏮.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 




Hurrengo elementura joateko, ukitu ▷▷▯. Elementuaren hasierara itzultzeko, ukitu ▯◁◁. Aurreko elementua saltatzeko, ukitu ▯◁◁ berriro 2 segundo barru abesti edo podcast bat hasi ondoren.

Ausazko erreprodukzioa (⇄) pizteko edo itzaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Ausazko erreprodukzioa**.

Uneko elementua errepikatzeko (↻1), elementu guztiak erreproduzitzeko (↻) edo errepikatu ezgaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Errepikatu**.

Podcastak erreproduzitzerakoan, ausazko erreprodukzioa eta errepikatu automatikoki ezgaitzen dira.

Musika erreprodukzioaren tonua aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ekualizadorea**.

Balantze eta irudi estereoa aldatzeko edo baxua areagotzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Hasierako pantailara itzultzeko eta erreproduzitzailea atzealdean funtzionatzen uzteko, amaierako tekla sakatu.

Erreproduzitzailea ixteko, hautatu **Aukerak** > **Irten**.

## Erreprodukzio zerrendak

Aukeratu **Menua** > **Musika** > **Musika-liburutegia** eta **Errepr.-zerrend.**.

Erreprodukzio zerrendaren xehetasunak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Errepr.-zerr. xehetas.**.

### Erreprodukzio zerrenda bat sortu

1. Aukeratu **Aukerak** > **Errepr.-zerr. berria**.
2. Izena eman erreprodukzio zerrendari eta aukeratu **Ados**.
3. Abestiak orain gehitzeko, aukeratu **Bai**; abestiak beranduago gehitzeko, aukeratu **Ez**.
4. **Bai** aukeratzen baduzu, aukeratu artistak zerrendara gehitu nahi dituzun abestiak aurkitzeko. Aukeratu **Gehitu** elementuak gehitzeko.

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Artistaren izenaren azpian abestien zerrenda ikusi nahi baduzu, aukeratu **Zabaldu**. Abesti zerrenda ezkutatzeko, aukeratu **Tolestu**.

5 Aukeraketa egin ondoren, aukeratu **Egina**.

Zerrenda telefonoaren memoria osagarrian gordeko da.

Beranduago abesti gehiago gehitzeko, erreprodukzio zerrenda ikusterakoan, aukeratu **Aukerak** > **Gehitu abestiak**.

Musika menuaren ikuspegi desberdinetatik abestiak, albumak, artistak, generoak eta egileak zerrenda batean gehitzeko, aukeratu elementu bat eta **Aukerak** > **Gehitu errepr.-zerrndra.** > **Gorderiko errep-.zerr.** edo **Errepr.-zerr. berria**.

Zerrenda batetik abesti bat ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kendu**.

Honela abestia ez da telefonotik ezabatuko, zerrendatik baizik.

Erreprodukzio zerrenda batean abestiak berrantolatzeko, aukeratu nahi duzun abestia eta **Aukerak** > **Berrant. errepr.-zerr.**.

Abesti bat hartu eta kokapen berri batean uzteko, aukeratu abestia nahi den lekuan eta **Jaregin**.

Erreprodukzio zerrenda berrantolatzen amaitzeko, aukeratu **Egina**.

## Podcastak

Aukeratu **Menua** > **Musika** > **Musika-liburutegia** eta **Podcastak**.

Podcast menuak telefonoan eskuragarri dituzun podcastak erakusten ditu.

Podcast pasarteak hiru egoeratan egon daitezke: erreproduzitu gabe, zati bat erreproduzituta eta guztiz erreproduzituta. Pasarte bat osorik erreproduzitu ez bada, erreproduzitzen den hurrengo aldian utzitako tokitik aurrera erreproduzitzen hasiko da. Pasarte bat ez bada inoiz erreproduzitu edo guztiz erreproduzitu ez bada, hasieratik erreproduzituko da.

## Ordenagailu batetik musika transferitu

Musika transferitzeko ondorengo moduak daude:

- Telefonoa PCra konektatu, USB kable batekin edo Bluetooth bidez. Honela, telefonoa memoria osagarri gisa ikusiko da PCan. USB datu-kablea erabiltzen ari bazara, hautatu **Biltegiratze masiboa** konexio modu gisa.
- Windows Media Player aplikazioarekin musika sinkronizatzeko, konektatu USB datu-kable bateragarri bat eta hautatu **Multim.-transferentz.** konexio-modu gisa.
- Musika-fitxategiak kudeatzeko eta antolatzeko Nokia Music instalatu nahi baduzu, deskargatu ordenagailurako softwarea www.music.nokia.com/download helbidean eta jarraitu argibideak.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

USB konexio lehenetsia aldatzeko, sakatu **Menua** > **Ezarpenak** eta aukeratu **Konektagarritas.** > **USB** > **USB konexio-modua**.

## Nokia Musika Denda

Hautatu **Menua** > **Musika** > **Mus. denda**.

Nokia Musika Dendan (sareko zerbitzua) telefonora deskargatzeko musika bila, araka eta eros daiteke. Musika erosteko, lehenik zerbitzuan erregistratu behar da.

Nokia Musika Dendan sartzeko, Interneteko sargune zuzena behar da.

Nokia Musika Denda ez dago eskuragarri herrialde eta eskualde guztietan.

### Nokia Musika Dendaren ezarpenak

Nokia Musika Dendaren eskuragarritasuna eta itxura ezberdina izan daiteke. Baliteke ezarpenak aurrez ezarrita egotea eta editatu ezin izatea. Baliteke sarbide bat aukeratzeko eskatzea Nokia Musika Dendara konektatzerakoan. Hautatu **Lehenetsitako sarbidea**.

Nokia Musika Dendan baliteke ezarpenak editatu ahal izatea honakoa hautatzen **Aukerak** > **Ezarpenak**.

## Nokia Podcasting

Nokia Podcasting aplikazioarekin (sare zerbitzua), sarean podcastak bilatzeko, ezagutzeko, harpidetzeko eta deskargatzeko aukera izango duzu, baita audio eta bideo podcastak erreproduzitzeko, kudeatzeko eta partekatzeko ere.

### Podcasting aplikazioaren ezarpenak

Nokia Podcasting aplikazioa irekitzeko, aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Podcasting**.

Nokia Podcasting aplikazioa erabili aurretik, zehaztu zure konexio eta deskarga ezarpenak.

Konektatzeko modu gomendatua WLAN da. Bestelako konexio metodoak erabili aurretik, jo zerbitzu hornitzailearengana baldintzak eta datu zerbitzuen kostuak ezagutzeko. Adibidez, tarifa finkoko datu plan batek datu kopuru handiak transferitzeko aukera ematen du, hilero zenbateko jakin bat ordainduz.

### Konexio ezarpenak

Konexio ezarpenak editatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Konexioa** eta hauetatik:

**Lehenetsitako sargunea** — Aukeratu sargunea zure Interneteko konexioa zehazteko.

**Bilatu URL zerbitzaria** — Zehaztu erabili nahi duzun podcasten bilaketa zerbitzuaren URLa.

### Deskarga ezarpenak

Deskarga ezarpenak editatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Deskargatu** eta hauetatik:


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Hemen gorde:** — Aukeratu podcastak gordetzeko memoria.

**Eguneratzeen tartea** — Zehaztu podcasten eguneratze maiztasuna.

**Hurrengo eguner. data** — Zehaztu hurrengo eguneratze automatikoaren data.

**Hurrengo eguner. ordua** — Zehaztu hurrengo eguneratze automatikoaren ordua.

Eguneratze automatikoak egiteko sargune lehenetsi bat zehaztu edo Nokia Podcasting aplikazioa abiarazi behar da. Nokia Podcasting aplikazioa abian ez bada, eguneratze automatikoak ez dira burutuko.

**Deskarga muga (%)** — Zehaztu podcasten deskargentzat eskuragarri dagoen memoriaren ehunekoa.

**Muga gaindituz gero** — Zehaztu zer egin deskargek muga gainditzen dutenean.

Aplikazioaren ezarpenetan podcastak automatikoki berreskuratzea zehaztuz gero, zure zerbitzu hornitzailearen saretik datu kopuru handiak bidaliko dira. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo zerbitzu hornitzailearengana.

Lehenetsitako ezarpenak berrezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Berrez. lehenets.** ezarpenen ikuspegian.

## Podcastak bilatu

Bilatu zerbitzuarekin podcastak gako-hitzen edo izenburuaren arabera aurki daitezke.

Bilatu zerbitzuak **Podcasting** > **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Konexioa** > **Bilatu URL zerbitzaria** atalean zehaztu duzun podcastak bilatzeko zerbitzuaren URLa erabiltzen du.

Podcastak bilatzeko, hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Podcasting** eta **Bilatu** eta idatzi gako-hitzak.

**Aholkua:** Bilaketa zerbitzuak podcasten izenburuak eta gako-hitzak deskribapenetan bilatzen ditu, ez pasarteetan. Gai orokorrek, futbola edo hip-hopa, esaterako, talde edo artista zehatzek baino emaitza hobeak eskaini ohi dituzte.

Markatutako kanaletara harpidetzeko eta hauek zure podcastetan gehitzeko, hautatu **Harpidetu**. Podcast bat gehitzeko bere izenburua ere hauta dezakezu.

Bilaketa berri bati ekiteko, hautatu **Aukerak** > **Bilaketa berria**.

Podcastaren webgunea irekitzeko, sakatu podcasta eta hautatu **Aukerak** > **Ireki web orria** (sareko zerbitzua).

Podcast baten xehetasunak ikusteko, sakatu podcasta eta hautatu **Aukerak** > **Deskribapena**.

Podcast bat gailu bateragarri batera bidaltzeko, sakatu podcasta eta hautatu **Aukerak** > **Bidali**.

## Direktorioak

Direktorioak irekitzeko, hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Podcasting** eta **Direktorioak**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Direktorioekin podcasten pasarte berriak aurki ditzakezu, baita hauetara harpidetu ere.

Direktorioetako edukia aldatu egiten da. Hautatu nahi duzun direktorioa eguneratzeko (sareko zerbitzua). Direktorioaren kolorea aldatu egiten da eguneratzea osatzean.

Direktorioek podcastak ospearen arabera zerrendatuta edo gaiaren arabera sailkatuta erakuts ditzakete.

Karpeta bat irekitzeko, hautatu karpeta. Podcasten zerrenda bat agertzen da.

Podcast batera harpidetzeko, hautatu izena eta **Harpidetu**. Podcast baten pasarteetara harpidetu ondoren, hauek podcasten menuan deskargatu, kudeatu eta erreproduzitu ditzakezu.

Direktorio edo karpeta berria gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Berria** > **Web direktorioa** edo **Karpeta**.

Idatzi OPML fitxategiaren izenburua eta URLa eta hautatu **Egina**.

Hautatutako karpeta, web esteka edo web direktorioa editatzeko, hautatu **Aukerak** > **Editatu**.

OPML fitxategi bat telefonoan inportatzeko, hautatu **Aukerak** > **Inpor. OPML fitxat.**.

Fitxategiaren kokapena aukeratu eta inportatu.

Direktorio-karpeta bat multimedia mezu batean edo Bluetooth bidez bidaltzeko, hautatu karpeta eta **Aukerak** > **Bidali**.

Bluetooth bidez OPML fitxategi bat duen mezu bat jasotzen duzunean, ireki fitxategia eta gorde Direktorioak ataleko Jasotakoak karpetan. Karpeta ireki estekaren batera harpidetu eta podcastetan gehitzeko.

## Deskargak

Podcast batera harpidetu ondoren, Podcastak atalean pasarteak kudeatu, deskargatu eta erreproduzi daitezke, bai direktorioetatik, bai bilaketa bidez, baita URL bat idatzita ere.

Harpidetutako podcastak ikusteko, hautatu **Podcasting** > **Podcastak**.

Pasarteen izenburuak banaka ikusteko (pasarte bat podcast baten multimedia fitxategi berezi bat da), podcastaren izena aukeratu.

Deskargatzen hasteko, pasartearen izena aukeratu. Hautatutako edo markatutako pasarteak deskargatzen hasteko edo jarraitzeko, hautatu **Aukerak** > **Deskargatu**. Pasarte bat baino gehiago deskarga daiteke aldi berean.

Deskargatzen ari den bitartean edo zati baten deskarga amaitutakoan podcastaren zatitxo bat entzuteko, hautatu podcasta eta **Aukerak** > **Errepr. aurrebista**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Guztiz deskargatutako podcastak Podcastak karpetan aurki daitezke; batzuk, ordea, ez dira agertuko liburutegia eguneratu arte.

### Podcastak erreproduzitu eta kudeatu

Aukeratutako podcastaren pasarte eskuragarriak ikusteko, **Podcastak** atalean **Ireki** aukeratu.

Pasarte bakoitzaren azpian, fitxategiaren formatua, tamaina eta kargatu den ordua agertzen dira.

Podcasta guztiz deskargatu denean, pasarte osoa erreproduzitzeko podcasta eta **Erreproduzitu** aukeratu.

Aukeratutako edo markatutako podcasta eguneratu eta, pasarte berri bat lortzeko, **Aukerak** > **Eguneratu** aukeratu.

Eguneratzea gelditzeko, **Aukerak** > **Gelditu eguneratzea** aukeratu.

Podcast berri bat gehitzeko, URLa idatzi eta **Aukerak** > **Podcast berria** aukeratu.

Sargunerik zehaztuta ez baduzu, edo pakete-datuen konexioan zehar erabiltzailea eta pasahitza eskatzen bazaizkizu, zure zerbitzu-hornitzailearengana jo.

Aukeratutako podcastaren URLa editatzeko, **Aukerak** > **Editatu** aukeratu.

Deskargatutako edo markatutako podcast bat telefonotik ezabatzeko, **Aukerak** > **Ezabatu** aukeratu.

Aukeratutako edo markatutako podcastak gailu bateragarri batera bidaltzeko (.opml fitxategi gisa, multimedia mezu batean edo Bluetooth bidez), **Aukerak** > **Bidali** aukeratu.

Podcast multzo bat aldi berean eguneratu, ezabatu edo bidaltzeko, **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** aukeratu, podcastak markatu eta **Aukerak** sakatu nahi den agindua hautatzeko.

Podcastaren webgunea irekitzeko (sare zerbitzua), **Aukerak** > **Ireki web orria** aukeratu.

Zenbait podcastek sortzaileei laguntzeko aukera eskaintzen dute, ohar eta bozketen bidez. Internetera konektatu eta goian esandakoa egin ahal izateko, **Aukerak** > **Ikusi oharrak** aukeratu.

## FM irratia

### Irratia entzun

Aukeratu **Menua** > **Musika** > **Irratia**.

FM irratia entzuteko, gailuak haririk gabeko antena ez den beste antena bat erabiliko du. Aurikular edo osagarri bateragarria jarri behar zaio gailuari FM irratiak funtzionamendu egokia izan dezan.

Aplikazioa lehenengo aldiz irekitzen duzunean, lekuko irratiak automatikoki sintonizatzea aukera dezakezu.

Hurrengo edo aurreko irratia entzuteko, aukeratu edo .

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

Irratia isilarazteko, aukeratu .

Aukeratu **Aukerak** eta hauetatik:

**Kateak** — Ikusi gordetako irratiak.

**Sintonizatu kateak** — Bilatu irrati kateak.

**Gorde** — Gorde irrati katea.

**Aktibatu bozgorailua** edo **Desaktibatu bozgorail.** — Piztu edo itzali bozgorailua.

**Frekuentz. alternatiboak** — Frekuentzia maila jaisten bada, aukeratu irratiak automatikoki irrati katearentzako RDS frekuentzia hobea bilatzea nahi duzun ala ez.

**Erreproduzitu atzeald.** — Itzuli hasierako pantailara irratia atzealdean abian denean.

### Irrati kateak kudeatu

Aukeratu **Menua** > **Musika** > **Irratia**.

Gordetako irrati kateak entzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Kateak** eta aukeratu zerrendako irrati kate bat.

Irrati kate bat ezabatzeko edo berrizendatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kateak** > **Aukerak** > **Ezabatu** edo **Berrizendatu**.

Nahi den frekuentzia eskuz aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sintonizatu kateak** > **Aukerak** > **Eskuzko sintonizazioa**.

## Bideoak

Bideoklipak airearen bidezko Internet bideo zerbitzu bateragarrien bitartez deskarga eta zuzenean erreproduzi ditzakezu (sareko zerbitzua) datu-pakete edo WLAN konexio bat erabiliz. Bideoklipak ordenagailu bateragarri batetik telefonora transferi ditzakezu hauek ikusteko.

Bideoak deskargatzean datu kantitate handiak igor daitezke zure zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Telefonoak zerbitzu lehenetsiak eduki ditzake.

Zerbitzu-hornitzaileek dohako edukiak eskein ditzakete baina baita gastuak kargatu ere. Prezioa zerbitzuan egiaztatu edo zerbitzari-hornitzaileagandik lortu.

### Deskargatu eta ikusi bideoklipak

**Bideo zerbitzuetara konektatu**

1. Aukeratu **Menua** > **Bideoak eta TB**.
2. Bideo zerbitzuak instalatzeko zerbitzu batera konektatzeko, hautatu **Bideo jarioak** > **Bideoak** eta nahi duzun bideo zerbitzua.

   Bideo jario bat eskuz gehitzeko, bideo jario ikuspegian, hautatu **Aukerak** > **Gehitu jarioa** > **Gehitu eskuz**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Bideoklip bat ikusi

Instalatutako bideo zerbitzuen edukiak arakatzeko, aukeratu **Bideo jarioak**.

Zenbait bideo zerbitzuen edukia kategorietan sailkatuta dago. Bideoklipak arakatzeko, aukeratu kategoria bat.

Zerbitzuan bideoklip bat bilatzeko, aukeratu **Bideo bilaketa**. Baliteke bilaketa eskuragarri ez egotea zerbitzu guztietan.

Bideo batzuk zuzenean erreproduzi daitezke, baina beste batzuk lehenengo telefonora deskargatu behar dira. Bideo bat deskargatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Deskargatu**. Deskargak atzealdean jarraituko dute aplikaziotik irteten bazara. Deskargatutako bideoklipak Nire bideoetan gordetzen dira.

Bideo bat zuzenean erreproduzitzeko edo deskargatutako bat ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Erreproduzitu**.

Erreprodukzioan zehar kontrol teklak ikusteko, pantaila ukitu.

Bolumena egokitzeko, erabili bolumenaren tekla.

## Deskargak antolatu

Zerbitzu batean bideo baten deskarga automatikoa programatzeko, hautatu **Aukerak** > **Jarri deskargak taulan**.

Bideoklip berriak automatikoki deskargatzen dira egunero zehazten duzun orduan.

Programatutako deskargak indargabetzeko, hautatu **Eskuzko deskarga** deskarga metodo bezala.

## Bideo jarioak

Hautatu **Menua** > **Bideoak eta TB**.

Instalatutako bideo zerbitzuen edukia RSS jarioak erabiltzen banatzen da. Jarioak ikusteko eta kudeatzeko, hautatu **Bideo jarioak**.

Aukeratu **Aukerak** eta hauetatik:

**Jarioaren harpidetzak** — Egiaztatu zure uneko jario harpidetzak.

**Jarioaren xehetasunak** — Ikusi bideo jario bati buruzko informazioa.

**Gehitu jarioa** — Harpidetu jariora. Hautatu **Bideo direktor. bidez** bideoen direktorioko zerbitzu baten jarioa hautatzeko.

**Eguneratu jarioak** — Eguneratu jario guztien edukia.

**Kudeatu kontua** — Jario baterako kontu informazio aukerak kudeatu, eskuragarri badago.

**Mugitu** — Mugitu bideoklipak nahi duzun lekura.

Jarioan eskuragarri dauden bideoak ikusteko, hautatu jarioa zerrendan.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Nire bideoak

Nire bideoak bideo guztiak gordetzen diren lekua da. Deskargatutako bideoak eta gailuaren kamerarekin grabatutako bideoklipak ikuspegi ezberdinetan zerrenda daitezke.

Karpeta bat ireki eta bideoklipak ikusteko, aukeratu karpeta. Bideoklip bat erreproduzitzen ari denean, aukeraketa teklak erreproduzitzailea kontrolatzeko erabiltzeko sakatu pantaila.

Bolumena aldatzeko, sakatu bolumen tekla.

Aukeratu **Aukerak** eta hauetatik:

**Jarraitu deskarga** — Berrekin bertan behera utzitako edo huts egin duen deskarga bat.

**Ezeztatu deskarga** — Ezeztatu deskarga bat.

**Bideo xehetasunak** — Ikusi bideoklip bati buruzko informazioa.

**Aurkitu** — Aurkitu bideoklip bat. Fitxategiaren izenarekin bat datorren bilaketa testu bat sartu.

**Memoria egoera** — Ikusi erabilitako eta libre dagoen memoria.

**Sailkatu honen arabera** — Sailkatu bideoklipak. Hautatu nahi duzun kategoria.

**Mugitu eta kopiatu** — Bideoklipak mugitu edo kopiatu. Hautatu **Kopiatu** edo **Mugitu** eta nahi duzun lekua.

## Bideoak zure ordenagailutik transferitu

Transferitu zure bideoklipak gailu bateragarrietatik USB datu kable bateragarri bat erabiliz. Gailuak onartzen duen formatu batean dauden bideoklipak soilik erakusten dira.

1. Telefonoa ordenagailu batean fitxategiak transferi ditzakezun memoria masibo gisa ikusteko, konektatu USB datu kable bat erabiliz.
2. Aukeratu **Biltegiratze masiboa** konexio modu gisa.
3. Aukeratu zure ordenagailutik kopiatu nahi dituzun bideoklipak.
4. Mugitu bideoklipak zure telefonoaren memoria osagarriaren **E:\Nire bideoak** karpetara edo, eskuragarri badago, memoria-txartel baten **F:\Nire bideoak** karpetara.

   Transferitutako bideoklipak nire bideoak karpetan agertzen dira.

## Bideo ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Bideoak eta TB**.

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hurrengoetatik:

**Bideo zerb. hautaketa** — Hautatu ikuspegi nagusian agertu beharreko bideo zerbitzuak. Bideoen zerbitzuen xehetasunak gehitu, ken, edita eta ikus ditzakezu. Aurretik instalatutako bideoen zerbitzuak ezin dira editatu.

**Konexio ezarpenak** — Sareko konexioarekin erabili beharreko sarearen helmuga zehazteko, hautatu **Sare konexioa**. Sarera konektatzen zaren bakoitzean konexioa eskuz hautatzeko, hautatu **Galdetu beti**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Gurasoen kontrola** — Ezarri bideoentzako adin muga. Eskatutako pasahitza telefonoaren blokeo-kode bera da. Blokeo-kodearen lantegiko ezarpena 12345 da. Eskatu ahalako bideo zerbitzuetan, zuk zehaztutako adin-muga bera duten bideoak edo gainditu egiten dutenak ezkutatu egiten dira.

**Hobetsitako memoria** — Hautatu deskargatutako bideoklipen kokapena. Aukeratutako memoria betetzen bada, gailuak beste memorian batean gordeko ditu bideoak.

**Koadro txikiak** — Hautatu bideo jarioen koadro txiki irudiak deskargatzea eta ikustea nahi duzun.

# Telefonoa pertsonalizatzea

Telefonoa pertsonaliza dezakezu egonean modua, menu nagusia, tonuak, gaiak edo letra-tamaina aldatuz. Pertsonalizazio aukera gehienetan, letra-tamaina aldatzeko esaterako, telefonoaren ezarpenetatik sar zaitezke.

## Telefonoaren itxura aldatu

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Gaiak**.

Gaiak erabil ditzakezu pantailaren itxura aldatzeko, adibidez, atzealdeko irudia.

Aplikazio guztietarako erabiltzen den gaia aldatzeko, hautatu **Orokorra**. Gai bat aktibatu aurretik aurreikusteko, joan gaira eta itxaron segundo batzuk. Gaia aktibatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarri**. ✓ gai aktiboa adierazten du.

Aldatzen diren argazkiak dituen irudi edo diapositiba-aurkezpen bat hasierako pantailako atzealdeko irudi gisa ezartzeko, hautatu **Horma-papera** > **Irudia** edo **Diapositiba aurkezp.**.

Hasierako pantailan dei bat jasotzerakoan agertzen den irudia aldatzeko, hautatu **Dei-irudia**.

## Profilak

Profilen bidez tonuak zehatz eta pertsonaliza daitezke: deiak, mezuak, taldeak eta bestelako gertaerentzako. Aukeratutako profilaren izena hasierako pantailaren goialdean agertuko da. Profil Orokorra erabiltzen ari bazara, data bakarrik agertuko da.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Profilak**.

Joan profil batera eta hautatu aukera hauetariko bat:

**Aktibatu** — Aktibatu profila.

**Pertsonalizatu** — Pertsonalizatu profila.

**Epea ezarrita** — Ezarri profila hurrengo 24 orduetako epe bat arte aktibo egon dadin.

Epea igarotakoan profila aurreko epe gabeko profilera itzultzen da. Hasierako pantailan, 🕒 ikurrak ordua ezarrita duen profila adierazten du. Lineaz kanpo profilari ezin zaio eperik ezarri.

Profil berri bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Sortu berria**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## 3-D tonuak

3-D tonuekin, tonuentzako hiru dimentsioko soinu efektuak gaituko dituzu. Dei tonu guztiek ez dituzte e-D efektuak onartzen.

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Profilak**. Joan profil batera eta hautatu **Aukerak** > **Pertsonalizatu**.

Dei-tonuari ezarritako 3D efektua gaitzeko, hautatu **3D dei-tonuaren efektua** eta nahi duzun efektua.

Dei-tonuari ezarritako 3D oihartzun efektua aldatzeko, hautatu **3D dei-tonuaren oihartz.** eta nahi duzun efektua.

3D efektu bat entzuteko hautatu aurretik, joan efektura eta itxaron segundo bat.

## Hasierako pantaila aldatzea

Elementuak aldatzeko, hala nola, posta elektroniko jakinarazpenak, hasierako pantailan, hautatu **Aukerak** > **Editatu edukia**.

Irudi bat edo diaporama bat hasierako pantailako atzealdeko irudi gisa erabiltzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Gaiak** > **Horma-papera**.

Hasierako pantailan agertzen den erlojua aldatzeko, hasierako pantailan ukitu erlojua eta hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erloju mota**.

## Menu nagusia aldatu

Menu nagusian gailuaren funtzioetan sar zaitezke. Menu nagusia irekitzeko, menu tekla sakatu.

Menu bista aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Zerrenda ikuspegia** edo **Sareta ikuspegia**.

Menu nagusia berrantolatzeko, hautatu **Aukerak** > **Antolatu**. Adibidez, menuko ikono bat beste karpeta batera mugitzeko, hautatu ikonoa, **Aukerak** > **Mugitu karpetara** eta karpeta berria. Ikur bat arrasta dezakezu ere menu nagusian.

# Aplikazioak

## Egutegia

Egutegia irekitzeko, hautatu **Menua** > **Egutegia**.

### Egutegiaren ikuspegiak

Hilabete, aste edo zeregin ikuspegien artean aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Aldatu ikuspegia** > **Eguna**, **Astea** edo **Egitekoak**.

Asteko lehen eguna, egutegia irekitzerakoan azaltzen den ikuspegia edo egutegiaren alarma ezarpenak aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Data zehatz batera joateko, aukeratu **Aukerak** > **Joan datara**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Egutegiaren tresna-barra

Tresna-barran, hautatu aukera hauetako bat:

**Hurrengo ikuspegia** — Aukeratu hilabetearen ikuspegia.

**Hurrengo ikuspegia** — Aukeratu astearen ikuspegia.

**Hurrengo ikuspegia** — Aukeratu egunaren ikuspegia.

**Hurrengo ikuspegia** — Aukeratu egitekoen ikuspegia.

**Bilera berria** — Ezarri bilera gogorazle berria.

**Zeregin-ohar berria** — Gehitu egitekoen ohar berri bat.

## Egutegiko sarrerak sortu

1 Egutegian sarrera berri bat gehitzeko, sakatu nahi duzun data eta hautatu **Aukerak** > **Sarrera berria** eta hurrengo aukeretako bat:

   **Bilera** — Gehitu hitzorduaren gogorarazlea.

   **Bilera eskaera** — Sortu eta bidali hitzordu-eskaera bat. Postontzia konfiguratuta eduki behar duzu eskaerak bidaltzeko.

   **Memoa** — Idatzi egunari buruzko ohar orokor bat.

   **Urteurrena** — Gehitu urtebetetzeen eta data berezien gogorarazleak (sarrerak urtero errepikatzen dira).

   **Egitekoen oharra** — Gehitu egun zehatz batetan egin behar den zeregin baten gogorarazlea.

2 Bete eremu guztiak. Sakatu eremu bat bertan idazteko. Testu editorea ixteko, hautatu ✓.

   Sarrerari deskribapen bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu deskribapena**.

3 Sarrera gordetzeko, **Egina** aukeratu.

Egutegiko alarmak jotakoan, hautatu **Isilarazi** alarma isilarazteko.

Egutegiko alarma gelditzeko, **Gelditu** aukeratu.

Alarma errepikarazi nahi baduzu, **Errepikatu** aukeratu.

Alarma errepikatzeko maiztasuna zehazteko, errepikatzeko moduan ezarrita dagoenean, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Alarma errepi. tartea**.

## Egutegiko sarrerak kudeatu

Hainbat gertaera aldi batez ezabatzeko, ireki hilabete-ikuspegia eta hautatu **Aukerak** > **Ezabatu sarrera** > **Haut. data baino lehen** edo **Sarrera guztiak**.

Ataza bat egitekoen ikuspegian amaituta gisa markatzeko, hautatu ataza eta **Aukerak** > **Markatu egina bez.**.

Egutegiko ohar bat bidaltzeko gailu bateragarri batera, hautatu **Aukerak** > **Bidali**.

Beste telefonoa Denbora Unibertsal Koordinatuarekin (UTC) bateragarria ez bada, baliteke jasotako egutegiko sarreren orduari buruzko informazioa zuzena ez izatea.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

# Ordularia

## Ezarri ordua eta data

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Erlojua**.

Aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hurrengoetatik:

**Ordua** — Ezarri ordua.

**Data** — Ezarri data.

**Ordu-eguneratze autom.** — Ezarri sareak zure mugikorraren ordua, data eta ordu-eremua automatikoki eguneratzea (sareko zerbitzua).

## Alarma

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Erlojua**.

Alarma berri bat ezartzeko, hautatu **Alarma berria**. Ezarri alarmaren ordua. Hautatu **Errepikatu** alarma errepika dadin eta noiz errepikatzea nahi duzun zehazteko eta hautatu **Egina**.

Zure alarma aktibo eta ez aktiboak ikusteko, aukeratu **Alarmak**. Aktibatzerakoan, ikusten da. Alarma errepikaturik badago, ikusten da.

Alarma bat kentzeko, aukeratu **Alarmak**, joan alarmara eta aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu alarma**.

Alarma jotzen duenean alarma desaktibatzeko, hautatu **Gelditu**. Alarma errepikatzeko, hautatu **Errepikatu**.

Telefonoa itzalita badago alarma jo behar duenean, telefonoa piztuko da eta alarma-tonua jotzen hasiko da.

Alarma errepikatzeko tartea zehazteko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Alarma errepika. tartea**.

Alarma-tonua aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erlojuaren alarma-tonua**.

## Munduko ordua

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Erlojua**.

Uneko ordua leku desberdinetan ikusteko, aukeratu **Munduko ord.**. Zerrendan kokapenak gehitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gehitu kokapena**.

Zure oraingo kokapena zehazteko, mugitu kokapen batera eta aukeratu **Aukerak** > **Ezarri uneko kokap. gisa**. Zure telefonoaren ordua aukeratutako lekuaren arabera aldatuko da. Ziurtatu ordua zuzen dagoela eta zure ordu eremuarekin bat datorrela.

# RealPlayer

RealPlayer aplikazioarekin, bideoak erreproduzitu edo sareko multimedia fitxategiekin lan egin daiteke, aurrez telefonoan gordetzeko beharrik gabe.

RealPlayer-ek ez ditu fitxategi formatu guztiak edo formatu mota desberdinak onartzen.

## Bideo klipak erreproduzitu

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **RealPlayer**.

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Bideo klip bat erreproduzitzeko, aukeratu **Bideoklipak** eta klipa.

Entzundako azken fitxategien zerrenda ikusteko, aplikazioaren ikuspegi nagusian aukeratu **Berriki erreprod.**.

Bideo klip zerrendan, joan klip batera joan, aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

**Erabili bideoklipa** — Esleitu bideo bat kontaktu bati edo ezarri tonu gisa.

**Markatu/Kendu marka** — Elementu asko aldi berean bidali edo ezabatzeko, markatu zerrendako elementuak.

**Ikusi xehetasunak** — Ikusi aukeratutako elementuaren xehetasunak, hala nola, formatua, bereizmena eta iraupena.

**Ezarpenak** — Editatu bideoen erreprodukzio eta transmisiorako ezarpenak.

Bideoklip, berriki erreproduzitutako eta zuzeneko erreprodukzioen esteka ikuspegietan, baliteke hurrengo tresna-barra eskuragarri egotea:

**Bidali** — Bidali bideoklip edo zuzeneko erreprodukziorako esteka bat.

**Erreproduzitu** — Erreproduzitu bideoklipa edo zuzeneko erreprodukzioa.

**Ezabatu** — Ezabatu bideoklip edo zuzeneko erreprodukziorako esteka bat.

**Kendu** — Ezabatu fitxategi bat berriki erreproduzitutako zerrendatik.

## Edukia zuzenean erreproduzitu

RealPlayer aplikazioan RTSP esteka ireki daiteke soilik. Halere, RealPlayer aplikazioak RAM fitxategiak ere erreproduzitzen ditu, arakatzaile batean haien HTTP esteka irekitzen baduzu.

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **RealPlayer**.

Airean zehar edukiak zuzenean erreproduzitzeko (sareko zerbitzua), hautatu **Stream. estek.** eta esteka bat. Zuzeneko erreprodukziorako esteka testu-mezu bidez, multimedia mezu bidez edo web orri batean aurki dezakezu, azken kasu honetan esteka irekiz.

Zuzeneko edukia erreproduzitu aurretik, telefonoa gunera konektatzen da eta edukia deskargatzen hasten da. Edukia ez da telefonoan gordetzen.

## RealPlayerraren ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **RealPlayer**.

RealPlayer ezarpenak zure zerbitzu-hornitzailearen mezu berezi batean jaso ditzakezu. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Bideo ezarpenak hautatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Bideoa**.

Konektatzerakoan, erabiliko den proxy zerbitzaria hautatzeko, lehenetsitako sarbidea aldatzeko eta konektatzean erabiltzen den ataka barrutia ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Streaming**. Ezarpen

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

zuzenak lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

1 Ezarpen aurreratuak editatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Streaming** > **Sarea** > **Aukerak** > **Ezarpen aurreratuak**.
2 Sare mota baterako erabilitako banda-zabalera hautatzeko, hautatu sare mota eta nahi duzun balioa.

   Banda-zabalaren balioa zuk editatzeko, hautatu **Erabiltzail. zehaztua**.

## Grabagailua

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Grabagailua**.

Grabagailua aplikazioarekin, ahots-oharrak eta telefono-hizketaldiak graba daitezke.

Grabagailua ezin da erabili datuen dei bat edo GPRS konexio bat aktibatuta dauden bitartean.

Soinu klipa grabatzeko, aukeratu .

Soinu klipa grabatzen amaitzeko, aukeratu .

Soinu klipa entzuteko, aukeratu .

Grabaketa kalitatea edo soinu klipak non gordetzeko aukeratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Telefono-hizketaldi bat grabatzeko, ahots-dei bat egiten edo jasotzen duzunean grabagailua ireki eta aukeratu .

Grabatzen ari den bitartean, bi aldeek tonu bat entzungo dute, noizean behin.

## Oharrak

### Oharrak idatzi

Ohar bat idazteko, aukeratu **Aukerak** > **Ohar berria**. Sakatu oharraren eremua testua idazteko eta aukeratu .

Oharretan jasotzen dituzun testu arrunt formatuko fitxategiak (.txt fitxategi formatua) gorde ditzakezu.

### Kudeatu oharrak

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Oharrak**.

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

**Ireki** — Ireki oharra.

**Bidali** — Oharra gailu bateragarrietara bidaltzea.

**Ezabatu** — Ohar bat ezabatu. Hainbat nota ezaba ditzakezu aldi berean. Ezabatu nahi dituzun oharrak markatzeko, hautatu **Aukerak** > **Markatu/Kendu marka** eta ezabatu oharrak.

**Sinkronizazioa** — Sinkronizatu oharrak gailu bateragarrietako aplikazio bateragarriekin edo zehaztu sinkronizazio ezarpenak.

## Bulegoa

### Fitxategi kudeatzailea

#### Fitxategi kudeatzailea

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Fitxat. kude.**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Fitxategi kudeatzailearekin, zure telefonoko, memoria osagarriko, memoria txarteleko edo kanpoko unitate bateragarri bateko fitxategiak araka, kudea eta ireki ditzakezu telefonoan.

Eskuragarri dauden aukerak desberdinak dira aukeratutako memoriaren arabera.

## Fitxategiak bilatu eta antolatu

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Fitxat. kude.**.

Fitxategi bat bilatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aurkitu**. Idatzi fitxategiaren izenarekin bat datorren bilaketa testua.

Fitxategiak eta karpetak mugitu eta kopiatu edo memorian karpeta berriak sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Antolatu** eta nahi duzun aukera.

Fitxategiak antolatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sailkatze-irizpidea** eta nahi duzun kategoria.

## Memoria txartela editatu

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Fitxat. kude.**.

Aukera hauek telefonoan memoria txartel bateragarria sartu bada bakarrik daude eskuragarri.

Aukeratu **Aukerak** eta hauetatik:

**Mem.-txartel. aukerak** — Aldatu izena edo formateatu memoria txartela.

**Memor.-txart. pasahitza** — Babestu memoria txartela pasahitz batekin.

**Desblok. mem.-txartela** — Desblokeatu memoria txartela.

## Memoria txartel batean fitxategien segurtasun kopiak sortu

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Fitxat. kude.**.

Fitxategien segurtasun kopiak sortzeko, aukeratu memoria txartelean kopiatu nahi dituzun fitxategi motak eta aukeratu **Aukerak** > **Egin babeskopia orain**. Egiaztatu zure txartel memorian memoria libre nahiko dagoela aukeratu dituzun fitxategien segurtasun kopiak sortzeko.

## Memoria osagarria formateatu

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Fitxat. kude.**.

Memoria masiboa birformateatzen denean, datu guztiak behin betiko galtzen dira. Memoria masiboa formateatu aurretik, egin gorde nahi dituzun datuen segurtasun kopia. Nokia Ovi Suite erabil dezakezu datuen segurtasun kopia ordenagailu bateragarri batean egiteko. Baliteke eskubide digitalen kudeaketa (DRM) teknologiek eragoztea segurtasun kopia egindako zenbait datu berrezartzea. Zure edukiarentzako erabilitako DRMei buruzko informazio gehiagorako, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Memoria osagarria formateatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Format. memor. masiboa**. Ez formateatu memoria

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

osagarria ordenagailuaren softwarearekin honen jarduera kalte dezake eta.

Formateatzeak ez du memoria osagarrian gordetako datu konfidentzial guztiak behin betiko ezabatu direnik bermatzen. Formateatze estandarrak formateatutako eremua leku libre gisa markatzen ditu eta fitxategiak berriro aurkitzeko helbideak ezabatzen ditu bakarrik. Formateatutako edo gainidatzitako datuak oraindik berreskura litezke berreskuratze tresna eta software bereziarekin.

## Hiztegia

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Hiztegia**.

Hitzak hizkuntza batetik bestera itzultzeko, idatzi testua bilaketa eremuan. Testua sartzen duzun bitartean, hitz proposamenak agertuko dira. Hitz bat itzultzeko, aukeratu zerrendatik hitz bat.

Agian ez dira hizkuntza guztiak onartzen.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

**Entzun** — Entzun aukeratutako hitza.

**Historia** — Bilatu uneko saioan lehenago itzulitako hitzen bat.

**Hizkuntzak** — Hautatu jatorri edo xede hizkuntza, deskargatu hizkuntzak Internetetik edo kendu hiztegiko hizkuntza bat. Ezin duzu ingelesa hiztegitik ezabatu. Ingelesaz gain beste bi hizkuntza instala ditzakezu.

**Hizketa** — Editatu ahots funtzioen ezarpenak. Ahotsaren abiadura eta bolumena doi ditzakezu.

## Quickoffice

### Quickoffice buruz

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Quickoffice**.

Quickoffice Quickword-en datza Microsoft Word dokumentuak ikusteko, Quicksheet Microsoft Excel lan-orriak ikusteko, Quickpoint Microsoft PowerPoint aurkezpenetarako eta Quickmanager softwarea erosteko. Microsoft Office 2000, XP, 2003 eta 2007ko dokumentuak (DOC, XLS eta PPT fitxategi-formatuak) Quickoffice-ekin ikus ditzakezu. Quickoffice-ren editore bertsioa baldin badaukazu, fitxategiak editatu ditzakezu.

Ez ditu edozein ezaugarri edo formatutako karpetak onartzen.

## Bihurgailua

Bihurgailuarekin neurriak unitate batetik bestera bihur ditzakezu.

Bihurgailuak zehaztasun mugatua du eta biribiltze erroreak izan ditzake.

### Moneta bihurgailua

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Bihurgailua**.

Hautatu **Mota** > **Moneta**. Moneta bihurketak egin aurretik, oinarrizko moneta bat eta truke-tasak zehaztu behar dituzu.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Oinarrizko monetaren izen lehenetsia Etxekoa da. Oinarrizko monetaren truke-tasa beti 1 izango da.

1 **Aukerak** > **Moneta-tasak** aukeratu.
2 Beste monetaren izen lehenetsia Atzerrikoa da. Moneta baten izena aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Berrizendatu moneta**.
3 Moneten truke-tasak gehitu eta hautatu **Egina**.
4 Beste Unitate eremuan, hautatu bihurketaren emaitzarako erabiliko den moneta.
5 Lehenengo Kopurua eremuan, idatzi bihurtu nahi duzun balioa. Beste Kopurua eremuak automatikoki erakutsiko du bihurtutako balioa.

Oinarrizko moneta aldatzeko, **Aukerak** > **Moneta-tasak** aukeratu, gero moneta eta azkenik **Aukerak** > **Ezarri onar. moneta gisa** aukeratu.

Oinarrizko moneta aldatuz gero, truke-tasa berriak zehaztu behar dira, aurreko truke-tasa guztiak garbitzen baitira.

### Bihurtu neurriak

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Bihurgailua**.

1 Mota eremuan, hautatu erabili nahi duzun neurria.
2 Lehenengo Unitatea eremuan, hautatu bihurtu nahi duzun unitatea.
3 Beste Unitatea eremuan, hautatu bihurketaren emaitzarako erabiliko den unitatea.
4 Lehenengo Kopurua eremuan, idatzi bihurtu nahi duzun balioa.

   Beste Kopurua eremuak automatikoki erakutsiko du bihurtutako balioa.

## Kalkulagailua

### Kalkuluak egitea

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Kalkulag.**.

Kalkulagailuaren doitasuna mugatua da, eta kalkulu errazak egiteko soilik balio du.

Kalkuluak egiteko, idatzi kalkuluaren lehenengo zenbakia. Zenbaki bat ezabatzeko, hautatu atzera tekla. Hautatu funtzio bat, hala nola gehitu edo kendu. Idatzi kalkuluaren bigarren zenbakia eta hautatu **=**.

### Kalkuluak gordetzea

Kalkulu baten emaitzak gordetzeko, hautatu **Aukerak** > **Memoria** > **Gorde**. Gordetako emaitzak aurretik gordetako emaitza ordezten du memorian.

Kalkulu baten emaitza memoriatik berreskuratzeko eta kalkulu batean erabiltzeko, hautatu **Aukerak** > **Memoria** > **Berreskuratu**.

Gordetako azken emaitza ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Azken emaitza**. Memoria ez da ezabatzen kalkulagailutik ateratzerakoan edo telefonoa itzaltzerakoan. Kalkulagailu

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

aplikazioa hurrengo aldian irekitzerakoan gordetako azken emaitza berreskuratu ahal izango duzu.

## Zip kudeatzailea

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Zip**.

Zip kudeatzailearekin fitxategi berriak sor ditzakezu konprimatutako ZIP formatuko fitxategiak gordetzeko; fitxategi batera konprimatutako fitxategi edo direktorio bat baino gehiago gehitu; babestutako fitxategien pasahitza ezarri, ezabatu edo alda dezakezu, eta ezarpenak aldatu, adibidez konpresio-maila.

Fitxategi fitxategiak telefonoaren memorian edo memoria-txartel batean gorde ditzakezu.

## Ohar aktiboak

Ohar aktiboekin argazkiak, soinuak eta bideoak dituzten oharrak sor ditzakezu. Oharrak kontaktuei lot diezazkiekezu. Oharra kontaktuarekin hitz egiterakoan erakutsiko da.

### Oharrak sortu eta editatu

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Ohar aktib.**.

Ohar bat sortzeko, hasi idazten.

Ohar bat editatzeko, aukeratu oharra eta **Aukerak** > **Editatze aukerak**.

Testuan letra lodia edo etzana erabiltzeko, edo testua azpimarratzeko edo letraren kolorea aldatzeko, eduki sakatuta Shift tekla eta mugitu testua aukeratzeko. Ondoren, aukeratu **Aukerak** > **Testua**.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

**Txertatu objektua** — Txertatu irudiak, soinu edo bideoklipak, bisita-txartelak, Interneteko laster-markak eta fitxategiak.

**Bidali** — Bidali oharra.

**Oharra deiari lotu** — Aukeratu **Kontaktuak gehitu** ohar bat kontaktu bati lotzeko. Dei bat egiterakoan edo kontaktuaren dei bat jasotzerakoan agertuko da oharra.

### Ohar aktiboen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Ohar aktib.** eta **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Oharrak non gorde nahi dituzun aukeratzeko, aukeratu **Erabilitako memoria** eta nahi duzun memoria.

Ohar aktiboen diseinua aldatzeko edo oharrak zerrenda gisa ikusteko, aukeratu **Ikuspegia aldatu** > **Sareta** edo **Zerrenda**.

Ohar bat atzealdean ikusteko deiak egiterakoan edo jasotzerakoan, aukeratu **Deian zehar oharra erak.** > **Bai**.

## Adobe Reader

Hautatu **Menua** > **Aplik.** > **Bulegoa** > **Adobe PDF**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Adobe Reader-ekin telefonoarekin PDF dokumentuak irakurri, dokumentuetan testua bilatu, ezarpenak aldatu, zoom maila eta orri-ikuspegiak esaterako eta posta elektronikoaren bidez PDF fitxategiak bidal ditzakezu.

# Ezarpenak

Baliteke zure zerbitzu-hornitzaileak aurretik ezarpen batzuk lehenestea eta hauek aldatu ezin izatea.

## Telefonoaren ezarpenak

### Data eta ordu ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Data eta ordua**.

Aukeratu hauetatik:

**Ordua** — Idatzi uneko ordua.

**Ordu eremua** — Aukeratu zure kokapena.

**Data** — Idatzi data.

**Data formatua** — Aukeratu dataren formatua.

**Data banatzailea** — Aukeratu egunak, hilabeteak eta urteak banantzen dituen ikurra.

**Ordu formatua** — Aukeratu orduaren formatua.

**Ordu banatzailea** — Aukeratu orduak eta minutuak banantzen dituen ikurra.

**Erloju mota** — Aukeratu ordulari mota.

**Erlojuaren alarma-tonua** — Aukeratu alarmarentzako tonua.

**Alarma errepika. tartea** — Zehaztu alarma jotzeko ordua.

**Lanegunak** — Aukeratu lan egunak. Adibidez, alarma lan egunetan bakarrik jotzeko aukera dezakezu.

**Ordu-eguneratze autom.** — Ordua, data eta ordu eremua eguneratzeko, aukeratu **Aktibatu**. Baliteke sare zerbitzu hau sare guztietan eskuragarri ez izatea.

### Hiztuna

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Telefonoa** > **Hizketa**.

Hiztuna aplikazioarekin mezu irakurtzailearen hizkuntza, ahotsa eta ahots funtzioak ezar ditzakezu.

Mezu irakurtzailearen hizkuntza ezartzeko, aukeratu **Hizkuntza**. Zure telefonoarentzako hizkuntza gehigarriak jaisteko, aukeratu **Aukerak** > **Hizkuntzak deskargatu**.

**Aholkua:** Hizkuntza berri bat jaisten baduzu, gutxienez ahots bat jaitsi behar duzu hizkuntza horrentzako.

Ahots hiztuna ezartzeko, aukeratu **Ahotsa**. Ahotsa hizkuntzaren araberakoa izango da.

Hiztunaren abiadura ezartzeko, aukeratu **Abiadura**.

Hiztunaren bolumena ezartzeko, aukeratu **Bolumena**.

Ahots baten xehetasunak ikusteko, ireki ahots fitxa eta hautatu ahotsa eta **Aukerak** > **Ahotsaren xehetasunak**. Ahotsa entzuteko, hautatu ahotsa eta ondoren hautatu **Aukerak** > **Ahotsa erreproduzitu**.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Hizkuntzak edo ahotsak ezabatzeko, hautatu elementu bat eta **Aukerak** > **Ezabatu**.

## Mezu irakurtzailearen ezarpenak

Mezu irakurtzailearen ezarpenak aldatzeko, ireki Ezarpenak fitxa eta zehaztu ondorengoa:

**Hizkuntza antzematea** — Aktibatu irakurketa hizkuntz antzemate automatikoa.

**Etengabeko irakurketa** — Aktibatu hautatutako mezu guztien irakurketa jarraitua.

**Hiztunaren pasahitzak** — Ezarri mezu irakurtzailea mezuetan eskaerak sartu ditzan.

**Audio iturria** — Entzun mezuak aurikularren edo bozgorailuaren bidez.

## Hizkuntza ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Hizkuntza**.

Telefonoaren hizkuntza aldatzeko, aukeratu **Telefonoaren hizkuntza**.

Idazteko hizkuntza aldatzeko, aukeratu **Idazketa hizkuntza**.

Testu iragarlea pizteko edo itzaltzeko, aukeratu **Testu iragarlea**.

## Pantailaren ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Pantaila**.

Aukeratu hauetatik:

**Argi-sentsorea** — Egokitu telefonoaren argi sentsorearen sentikortasuna. Argi sentsorea argiak pizten ditu zauden lekuko argia iluna denean eta itzali egiten ditu argia dagoenean.

**Letra-tamaina** — Aukeratu pantailako testuaren eta ikonoen tamaina.

**Ongietorri-oharra / logoa** — Aukeratu telefonoa pizten duzunean ohar edo irudi bat pantailan ikusi nahi duzun ala ez.

**Argiaren iraupena** — Aukeratu telefonoa itzaltzen duzunean argia zenbat denboran zehar piztuta geldituko den.

## Ahots komandoak

Aplikazioak eta profilak hasteko, ahots komando hobetuak aktibatzeko, eduki sakatuta deitzeko tekla hasierako pantailan.

Gailua ahots komando hobetuekin kontrolatzeko, eduki sakatuta dei tekla hasierako pantailan eta esan ahots komando bat. Ahots komandoa da zerrendan ikusgai dagoen aplikazioaren edo profilaren izena.

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Ahots kom.**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Hautatu **Aukerak** eta aukera hauetariko bat:

**Aldatu komandoa** — Editatu ahots komandoak.

**Erreproduzitu** — Entzun ahots sintetizatuko etiketa.

**Kend. ahots-komandoa** — Eskuz gehitu duzun ahots komando bat ezabatu.

**Ezarpenak** — Ezarpenak egokitu.

**Ahots-komand. tutoriala** — Ahots-komandoetako tutoriala ireki.

## Sentsore ezarpenak eta pantaila biraketa

Telefonoko sentsoreak aktibatzen dituzunean, funtzio batzuk telefonoa mugituz kontrola daitezke.

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Sentsore-ezarp.**.

Aukeratu hauetatik:

**Sentsoreak** — Aktibatu sentsoreak.

**Biratze-kontrola** — Aukeratu **Deiak isilarazi** eta **Alarma errepikariak** deiak eta alarmak isilarazteko telefonoaren pantaila behera begiraka jarriz. Aukeratu **Birat. pantaila autom.** pantailaren edukia automatikoki biratzeko telefonoa ezkerretara edo atzera biratzen baduzu (posizio bertikalean). Baliteke aplikazio eta ezaugarri batzuk edukia ez biratzea.

## Taparen ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Estaldura ezarpenak**.

Estalkia ixitean teklatua blokeatzea nahi baduzu, hautatu **Tekla blok. tel. estaltz.**.

## Osagarrien ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Osagarriak**.

Osagarrien konektore batzuk telefonoan zein motatako osagarria konektatua dagoen adierazten dute.

Aukeratu osagairen bat eta honako hauetatik:

**Profil lehenetsia** — Ezarri zein profil aktibatzea nahi duzun osagarri bateragarriren bat zure telefonora konektatzerakoan.

**Erantzun automatikoa** — Aukeratu zure telefonoak sarrerako dei bat duzunean bost segundo ondoren automatikoki erantzutea nahi duzun ala ez. Tonu mota **Behin bip egin** edo **Mutu** gisa ezartzen bada, erantzun automatikoa desgaitzen da.

**Argiak** — Ezarri denboraz kanpo geratzean argiak piztuta jarraitzea nahi duzun ala ez.

Ezarpen eskuragarriak osagarriaren motaren menpe daude.

### Telebistarako irteera ezarpenak

Telebistarako irteera konexioaren ezarpenak aldatzeko, aukeratu **TB-irteera** eta honako hauetatik:

**Profil lehenetsia** — Ezarri zein profil aktibatzea nahi duzun Nokiaren bideo konexiorako kable bat zure telefonora konektatzerakoan.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

**TB itxura-erlazioa** — Aukeratu telebistaren eskala erlazioa: **Arrunta** edo **Pantaila zabala** pantaila zabaleko telebistetan.

**TB-sistema** — Aukeratu zure telebistarekin bateragarria den bideo analogikoaren seinale sistema.

**Keinukari-iragazkia** — Zure telebistako pantailaren irudi kalitatea hobetzeko, aukeratu **Aktibatu**. Gerta daiteke iragazki keinukariak irudiaren dirdira ez gutxitzea telebista pantaila guztietan.

## Aplikazioen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Aplikazio ezarp.**.

Aplikazioen ezarpenetan, aplikazio batzuen ezarpenak telefonoan alda ditzakezu.

Bestela, ezarpenak aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** aplikazio bakoitzean.

## Telefonoaren eguneratzeak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Gailu egunerak.**.

Telefonoaren eguneratzeekin zerbitzarira konekta zaitezke eta telefonoko konfigurazio-ezarpenak jaso ditzakezu, zerbitzari-profil berriak sortu edo daukazun softwarearen bertsioa eta informazioa ikusi eta zerbitzari-profilak ikusi era kudeatu.

Zure sareak hari gabeko software eguneratzeak onartzen baldin baditu, hauek gailuaren bidez ere eska ditzakezu.

Zerbitzu hornitzaileak eta enpresaren informazio kudeaketa sailak zerbitzariaren profila eta konfigurazio ezarpenak bidal ditzakete. Baliteke konfigurazio ezarpen hauek telefonoko aplikazio desberdinek erabiltzea (konexioa eta bestelako ezarpenak).

Zerbitzarira konektatzeko eta telefonorako konfigurazio ezarpenak jasotzeko, aukeratu **Aukerak** > **Zerbitzari-profilak**, profila eta **Aukerak** > **Hasi konfigurazioa**.

Zerbitzari profil bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Zerbitzari-profilak** > **Aukerak** > **Zerbitzari-profil berria**.

Zerbitzari profila ezabatzeko, aukeratu profila eta **Aukerak** > **Ezabatu**.

Eguneratze eskuragarriak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Bilatu eguneratzeak**.

**Abisua:**
Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da telefonoa erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa amaitu eta telefonoa berrabiarazi arte. Egiaztatu datuen segurtasun-kopiak egiten dituzula softwarea eguneratu aurretik.

Software eguneratzeak deskargatzean datu kantitate handiak transferi daitezke (sareko zerbitzua).

Eguneratzea hasi aurretik behar adina bateria duzula egiaztatu edo kargagailura konektatu.

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Segurtasun ezarpenak

### Telefonoa eta SIM txartela

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Seg..-ezarpenak** > **Telefonoa eta SIM txart.**.

Aukeratu hauetatik:

**PIN kode eskaera** — Aktibatuta dagoenean, kodea eskatuko da telefonoa pizten den bakoitzean. SIM txartel batzuk ez dute PIN kodea desaktibatzen utziko.

**PIN kodea**, **PIN2 kodea** eta **Blokeatzeko kodea** — Blokeo kodea, PIN kodea eta PIN2 kodea alda daitezke. Kode hauek 0 eta 9 bitarteko zenbakiak bakarrik izan ditzakete. Larrialdi zenbakien antzekoak diren kodeak erabiltzen ekiditu nahi gabe larrialdi zenbakira deitzea saihesteko. PIN edo PIN2 kodea ahazten baduzu, jo zerbitzu hornitzailearengana. Blokeo kodea ahazten baduzu, jo Nokiaren Laguntza puntura edo zure zerbitzu hornitzailearengana.

**Telef. blok. autom. epea** — Baimenik gabeko erabilera eragozteko, epe bat ezar dezakezu honen ondoren telefonoa automatikoki blokea dadin. Ezin da blokeatutako telefono bat erabili desblokeo kode egokia idatzi arte. Automatikoki blokeatzeko aldia desgaitzeko, aukeratu **Bat ere ez**.

**SIM txart. ald. bada, blok.** — SIM txartel ezezagun bat zure telefonoan sartzen duzunean, telefonoak desblokeo kodea eska dezan ezar dezakezu. Telefonoak jabearen txarteltzat hartzen dituen SIM txartelen zerrenda bat mantentzen du.

**Urruneko tel.-blokeoa** — Gaitu edo desgaitu urruneko blokeoa.

**Erabiltzaile-talde itxia** — Deitzen dituzun eta deitzen dizuten pertsonekin talde bat zehatz dezakezu (sareko zerbitzua).

**Baieztatu SIM zerbitzuak** — SIM txartelaren zerbitzua erabiltzen duzunean (sareko zerbitzua), telefonoak baieztapen mezuak bistara ditzake.

### Ziurtagirien kudeaketa

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Seg..-ezarpenak** > **Ziurtagirien kudeaketa**.

Ziurtagiri digitalak Interneteko bankuetara, zenbait webgunetara edo urrutiko zerbitzari batera konektatzeko erabili behar dira, hau da, informazio konfidentziala bidaltzen den ekintzetan. Halaber, birus edo beste software maltzurren arriskua murrizteko, eta deskargatutako eta instalatutako softwarearen egiazkotasuna ziurtatzeko ere erabiliko dira.

Aukeratu hauetatik:

**Autoritate ziurtagiriak** — Ikusi eta editatu autoritate ziurtagiriak.

**Gune fidag. ziurtagiriak** — Ikusi eta editatu gune fidagarrien ziurtagiriak.

**Ziurtagiri pertsonalak** — Ikusi eta editatu ziurtagiri pertsonalak.

**Telefono ziurtagiriak** — Ikusi eta editatu telefonoko ziurtagiriak.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Ziurtagiri digitalek ez dute segurtasuna bermatzen; softwarearen jatorria egiaztatzeko erabiltzen dira.

**Garrantzitsua:** Ziurtagiriak erabiltzeak urrutiko konexioa eta software instalazioarekin lotuta egon daitezkeen arriskuak ia nabarmen gutxitzen dituen arren, ziurtagiri horiek zuzentasunez erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatu ahal izateko. Ziurtagiri bat izateak soilik, berez, ez du eskaintzen inolako babes motarik. Ziurtagirien administratzaileak ziurtagiri zuzenak, egiazkoak edo fidagarriak eduki behar ditu ziurtasun gehigarria erabilgarria izan dadin. Ziurtagiriek bizi iraupen mugatua izaten dute. "Ziurtagiri iraungia" edo "Ziurtagiri onartezina" oharrak agertzen badira, ziurtagiriak onargarria izan behar lukeen arren, egiazta ezazu telefonoko data eta ordua zuzenak direla.

## Ziurtagiriaren xehetasunak ikusi — egiazkotasuna aztertu

Zerbitzari batez fidatu ahal izateko, egiaztatu bere ziurtagiriaren sinadura eta baliozkotasuna.

Zerbitzariaren identitatea egiazkoa ez dela edo zure telefonoan segurtasun ziurtagiri egokia ez duzula jakinaraziko zaizu.

Ziurtagiri baten xehetasunak egiaztatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ziurtagiriaren xehetas.**. Ziurtagiriaren baliozkotasuna egiaztatzen da eta hauetako oharren bat ikusiko da:

**Ziurtagiria ez da fidagarria** — Ez duzu ziurtagiria erabiltzeko aplikaziorik zehaztu.

**Ziurtagiria iraungita** — Ziurtagiriaren baliozkotasun epea iraungi da.

**Ziurtagiria ez da oraindik balioduna** — Ziurtagiriaren baliozkotasun epea oraindik ez da hasi.

**Ziurtagiri hondatuta** — Ziurtagiria ezin da erabili. Jo ziurtagiri hornitzailearengana.

## Segurtasun ezarpenak aldatu

Ziurtagiriaren ezarpen datutik aldatu baino lehen, ziurtagiriaren jabea konfidantzazkoa dela eta ziurtagiria benetan zerrendan dagoen jabearena dela egiazta ezazu.

Autoritate ziurtagiri baten ezarpenak aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Fidagarrit.-ezarpenak**. Ziurtagiriaren arabera, aukeratutako ziurtagiria erabil dezaketen aplikazioen zerrenda agertzen da. Adibidez:

**Symbian instalazioa**: **Bai** — Ziurtagiri honek Symbian sistema eragileko aplikazio berrien iturriak ziurtatzen ditu.

**Internet**: **Bai** — Ziurtagiri honek zerbitzariak ziurtatzen ditu.

**Aplikazio instalazioa**: **Bai** — Ziurtagiri honek Java aplikazio berrien jatorria ziurtatzen du.

Balioa aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aldatu segurt.-ezarpenak**.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

### Segurtasun modulua

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Seg..-ezarpenak** > **Segurtasun-modulua**.

Segurtasun modulu bat ikusteko edo editatzeko (eskuragarri badago), aukeratu zerrendatik.

Segurtasun modulu bateko informazio xehetasunak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Segurtasun-xehetasunak**.

## Jatorrizko ezarpenak berrezarri

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Fabrikako ezarp.**.

Ezarpen batzuen jatorrizko balioak berrezar daitezke. Horretarako, blokeo kodea beharrezkoa da.

Berrezarri ondoren, telefonoak pizteko denbora gehiago beharko du. Ez dauka dokumentu eta fitxategiengan eraginik.

## Eduki babestua

Eskubide digitalei buruzko lizentziak kudeatzeko, aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Telef. kudeaketa** > **Seg..-ezarpenak** > **Babestutako edukia**.

### Eskubide digitalen kudeaketa

Edukien jabe batzuek DRM edo eskubide digitalen kudeaketa (Digital Rights Management) teknologia ezberdinak erabil ditzakete, beraien jabetza intelektuala babesteko, copyrights-ak barne. Gailu honek DRM software desberdinak erabiltzen ditu DRM-arekin babestutako edukiak atzitzeko. Gailu honekin WMDRM 10, OMA DRM 1.0 eta OMA DRM 2.0 teknologiekin babestutako edukiak ikus daitezke. DRM softwareen batek edukia babestea lortzen ez badu eta edukiaren jabeek hala nahiko balute, DRM bidez babestutako edukia ikusteko gaitasuna baliogabetu daiteke. Baliogabetzeak DRM bidez babestutako eduki hori zure gailuan berriztea debeka dezake. DRM sorftware hori baliogabetzeak ez die eragiten bestelako DRM motekin babestutako edukiei, ezta babesik gabekoei ere.

Eskubide digitalen kudeaketak (DRM) babestutako edukiak, berari dagokion lizentzia bat dauka edukia erabiltzeko zure eskubideak azalduz.

Telefonoak OMA DRM bidez babestutako edukia badu, aktibazio-gakoen eta edukiaren segurtasun-kopiak egiteko erabili Nokia Ovi Suiteko funtzioa.

Zure telefonoak WMDRM bidez babestutako edukia baldin badauka, lizentzia eta edukia galduko dira telefonoaren memoria formateatuz gero. Lizentzia eta edukia gal ditzakezu zure telefonoko fitxategiak hondatuz gero. Lizentzia edo edukia galtzeak, zure telefonoan berriz eduki bera erabiltzeko aukera muga dezake. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Zenbait lizentzia SIM txartel jakin bati lotuak egon daitezke, eta eduki babestua SIM hori telefonoan sartzen bada bakarrik ikusi ahal izango da.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

### Jakinarazpenen argia

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Jakinarazpen argiak**.

Egonean moduko arnasketa-argia aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Arn. arg. egon.**.

Egonean moduko arnasketa-argia aktibatuta dagoenean, menu tekla piztu egiten da tarteka.

Jakinarazpen argia aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Jakinarazpen argia**.

Jakinarazpenen argia aktibatuta dagoenean, menu teklaren argiak keinu egiten du zehazten duzun denbora tarte batean zehar galdutako gertaerak jakinarazteko, hala nola, dei galduak edo irakurri gabeko mezuak.

## Aplikazio kudeatzailea

### Aplikazioen kudeatzaileari buruz

Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Aplikazio-kudtzl.**.

Aplikazio kudeatzailearekin, telefonoan instalatuta dauzkazun software paketeak ikusi ahal izango dituzu. Instalatutako aplikazioen xehetasunak ikusi, aplikazioak ezabatu eta instalazioaren ezarpenak zehaztu ahal izango dituzu.

Telefonoan mota hauetako aplikazioak eta softwareak instala ditzakezu:

- .jad eta .jar fitxategi luzapenak duten Java™ teknologian oinarritutako JME aplikazioak.
- .sis edo .sisx fitxategi luzapena duten eta Symbian sistema eragilearekin bateragarriak diren bestelako aplikazioak
- .wgz luzapena duten widgetak

Instalatu zure gailuarekin bateragarria den softwarea soilik.

### Aplikazioak instalatu

Instalazio fitxategiak telefonora bidaltzeko modu desberdinak daude: bidali ordenagailu bateragarri batetik, deskargatu arakatzean, jaso multimedia mezu gisa, jaso mezu elektroniko batean eranskin gisa, baita bestelako konexio metodoak erabilita ere, adibidez, Bluetooth bidez.

Nokia Application Installer erabil dezakezu Nokia Ovi Suite programarekin telefonoan aplikazio bat instalatzeko.

Aplikazio kudeatzaileko ikonoek ondorengoa adierazten dute:

 SIS edo SISX aplikazioa

 Java aplikazioa

 widgetak

 aplikazioa memoria txartelean instalatu da

 aplikazioa memoria osagarrian instalatu da

**Garrantzitsua:** Seguruak diren iturrietako aplikazio eta softwareak soilik instalatu eta erabili. Symbian Signed edo Java Verified™ aplikazioen proba gainditu dutenak, adibidez.

Instalatu aurretik, ondorengoak kontutan izan:


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

- Aplikazio mota, bertsio zenbakia eta hornitzailea edo egilea ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Ikusi xehetasunak**.

  Aplikazioaren segurtasun ziurtagiriaren xehetasunak ikusteko, aukeratu **Xehetasunak:** > **Ziurtagiriak:** > **Ikusi xehetasunak**. Kontrolatu ziurtagiri digitalen erabilera Ziurtagiri kudeatzailean.
- Dagoeneko instalatuta dagoen aplikazio baten eguneratze edo konponketa fitxategi bat instalatzen baduzu, jatorrizko aplikazioa berreskuratzeko, jatorrizko fitxategia edo ezabatutako software paketearen segurtasun kopia izan beharko duzu. Jatorrizko aplikazioa berreskuratzeko, ezabatu aplikazioa eta instalatu berriro aplikazioa, jatorrizko instalazio fitxategia edo segurtasun kopia erabilita.

  JAR fitxategia beharrezkoa da Java aplikazioak instalatzeko. Hau falta bada, baliteke gailuak deskargatzeko eskatzea. Aplikazioarentzako ez bada sargunerik zehaztu, bat aukeratzeko eskatuko zaizu.

Aplikazio bat instalatzeko, jarraitu ondorengo urratsak:

1. Instalazio fitxategi bat aurkitzeko, aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Aplikazio-kudtzl.**. Bestela, bilatu instalazio fitxategiak Fitxategi kudeatzailean edo aukeratu **Mezularitza** > **Sarr. erretilua** eta ireki instalazio fitxategia duen mezua.
2. Aplikazio kudeatzailean, aukeratu **Aukerak** > **Instalatu**. Beste aplikazioetan, aukeratu instalazio fitxategia eta abiatu instalazioa.

   Instalazioan zehar, telefonoak instalazio prozesuaren berri emango dizu. Sinadura edo ziurtagiri digitalik ez duen aplikazio bat instalatzen baduzu, telefonoak ohar bat erakutsiko dizu. Jarraitu instalazioarekin, beti ere aplikazioaren jatorria eta edukia seguruak direla badakizu.

Instalatutako aplikazio bat abiarazteko, kokatu aplikazioa menuan eta hautatu aplikazioa. Aplikazioak ez badu karpeta lehenetsirik ezarrita, menu nagusiko Apl. instalatuak aukeran instalatuta egongo da.

Aukeratu **Aukerak** > **Ikusi erregistroa** instalatu edo ezabatu diren software paketeak ikusteko.

**Garrantzitsua:** Zure telefonoak birusen aurkako aplikazio bakarra onartzen du. Birusen aurkako aplikazio bat baino gehiago instalatuz gero, telefonoaren jarduna kaltetu liteke, eta telefonoak funtzionatzeari utz liezaioke.

Memoria-txartel bateragarri batean aplikazioak instalatu eta gero, instalazio-fitxategiak (.sis, .sisx) telefonoaren memorian geratzen dira. Fitxategiek memoria handia har dezakete, beste fitxategi batzuk gordetzea eragotziz. Behar adina memoria izateko, erabili Nokia Ovi Suite instalazio fitxategien segurtasun kopia PC bateragarri batean gordetzeko eta ezabatu instalazio fitxategiak telefonoko memoriatik fitxategi kudeatzailea erabiliz..sis fitxategia mezu baten eranskina bada, ezabatu mezua postontziko Mezularitza postontzitik.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Aplikazioak ezabatu

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Aplikazio-kudtzl.**.

Software pakete bat ezabatzeko, aukeratu **Apl. instalatuak** > **Aukerak** > **Desinstalatu**. Baieztatzeko, aukeratu **Bai**.

Softwarea ezabatu eta berriro instalatu nahi baduzu, jatorrizko instalazio fitxategia edo software paketearen segurtasun kopia oso bat beharko duzu. Software pakete bat ezabatzen baduzu, ezin izango dituzu software horrekin sortutako dokumentuak ireki.

Software pakete baten bat ezabatu duzunaren menpe bazegoen, baliteke softwareak gehiago ez funtzionatzea. Informazio gehiagorako, irakurri instalatutako softwarearen dokumentazioa.

## Aplikazio kudeatzailearen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Aplikazio-kudtzl.**.

Aukeratu **Instalazio xehetasunak** eta hauetatik:

**Softwarearen instalazioa** — Aukeratu egiaztatutako sinadura digitalik ez duen Symbian softwarea instala daitekeen ala ez.

**Ziurtagir. lineako egiazt.** — Aplikazioa instalatu aurretik, aukeratu sareko ziurtagiriak egiaztatu behar diren ala ez.

**Lehenets. web helbidea** — Sareko ziurtagiriak egiaztatzerakoan, ezarri erabili ohi den web helbide lehenetsia.

# Dei ezarpenak

## Dei ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak**. Aukeratu **Deitzen** > **Deia** eta honako hauetatik:

**Bidali nire zenbakia** — Aukeratu **Bai** deitzen ari zaren pertsonari zure telefono zenbakia erakusteko. Zerbitzu-hornitzailearekin adostutako ezarpena erabiltzeko, aukeratu **Sarearen arabera** (sareko zerbitzua).

**Bidali nire Intern. dei. IDa** — Aukeratu **Bai** deitzen ari zaren pertsonari zure dei IDa erakusteko.

**Deia zain** — Gaitu telefonoa dei batean zehar beste sarrera dei bat dagoela jakinarazteko (sareko zerbitzua) edo funtzioa aktibaturik dagoen egiaztatzeko.

**Interneteko deiak zain** — Gaitu telefonoa dei batean zehar Internet sarrera dei bat dagoela jakinarazteko.

**Interneteko deien abisua** — Aukeratu **Aktibatu** telefonoak Internet sarrera dei bat dagoenean jakinarazteko. **Desaktibatu** aukeratzen baduzu, jakinarazpena deia galtzen baduzu soilik jasoko duzu.

**Ukatu mezudun deiak** — Uko egin dei bati testu-mezu batekin deitzen duen pertsonari deia zergatik ez duzun erantzun azaltzeko.

**Mezuaren testua** — Idatzi dei bati uko egiten diozunean bidaliko den testu-mezu estandarra.

**Neure bideoa dei jas.etan** — Aukeratu telefonoko bideo dei batean zehar bideo bidalketa baimendu nahi duzun ala ez.

**Irudia bideo-deian** — Bideoa bidali ez bada bideo deia egiterakoan, irudi bat aukera dezakezu horren ordez bistaratzeko.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Birmarkatu automatikoki** — Dei batek arrakastarik ez badu, ezarri telefonoa gehienez hamar bider aldiz konektatzen saia dadin. Birmarkatze automatikoa eteteko, sakatu amaitzeko tekla.

**Erak. deiaren iraupena** — Aukeratu deiaren iraupena agertzea nahi duzun ala ez dei batean zehar.

**Laburpena deiaren ond.** — Aukeratu deiaren iraupena agertzea nahi duzun ala ez dei baten ostean.

**Markatze bizkorra** — Gaitu markatze bizkorra

**Edozein teklak erantzun** — Gaitu edozein teklarekin erantzuteko aukera.

**Erabiltzen ari den linea** — Ezarpen hau (sareko zerbitzua) SIM txartelak bi zenbaki harpidetu, hau da, bi telefono linea onartzen baditu soilik ikus daiteke. Aukeratu zer telefono linea erabili nahi duzun deiak egin eta testu-mezuak bidaltzeko. Bi lineetako deiak erantzun daitezke bakarra aukeratu izan arren. **2. linea** aukeratzen baduzu eta sareko zerbitzu honetara harpidetu ez bazara, ezin izango duzu deirik egin. Bigarren linea aukeratzen bada, 2 agertuko da hasierako pantailan.

**Linea aldaketa** — Aukeratu linea aukeratzea eragotzi nahi duzun ala ez (sareko zerbitzua), zure SIM txartelak onartuz gero. Ezarpen hau aldatzeko, PIN2 kodea behar da.

## Deien desbideraketa

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Deien desbid.**.

Deien desbideraketak jasotako deiak ahots postontzira edo beste telefono zenbaki batera desbideratzeko aukera eskaintzen du. Informazio gehiago jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

1. Hautatu desbideratu nahi dituzun deien mota eta desbideratze-aukera: Adibidez, ahots-dei guztiak desbideratzeko, hautatu **Ahots-deiak** > **Ahots dei guztiak**.
2. Deien desbideraketa aktibatzeko, aukeratu **Aktibatu**.
3. Deiak erantzungailura desbideratzeko, hautatu **Ahots-postontzira**.
4. Deiak beste telefono zenbaki batera desbideratzeko, hautatu **Beste zenbaki batera** eta idatzi zenbakia edo hautatu **Aurkitu** kontaktuetan gordetako telefono bat eskuratzeko.

Desbideraketa aukera asko egon daitezke aldi berean aktibatuta. Dei guztiak desbideratzen badira, agertzen da hasierako pantailan.

## Deien murrizketa

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Deitzen** > **Dei-murrizketa**.

Deien murrizketarekin (sareko zerbitzua) telefonoarekin egiten eta jasotzen dituzun deiak murritz daitezke. Adibidez, atzerrian zaudenean nazioarteko sarrerako edo irteerako dei guztiak murritz ditzakezu. Ezarpenak aldatzeko, lortu deien murrizketarako pasahitza zure zerbitzu hornitzailearengandik.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

### Ahots deien murrizketa

Aukeratu murrizketa aukera eta **Aktibatu**, **Desaktibatu** edo **Egiaztatu egoera**. Deien murrizketak dei guztiei eragiten die, datu deiak barne.

### Interneteko deien murrizketa

Interneteko dei ezezagunak onartzeko edo ukatzeko, aukeratu **Dei anonimoen murrizketa**.

## Arazo konponketa

Maiz egiten diren galderak ikusteko, ikus produktuaren laguntza zerbitzua www.nokia.com/support helbidean.

### Q: Zein da blokeo, PIN eta PUK kodeen pasahitza?

A: Blokeo-kode lehenetsia 12345 da. Blokeo-kodea ahazten baduzu, jo telefonoaren hornitzailearengana. PIN edo PUK kodea ahazten baduzu, edo kodea oraindik jaso ez baduzu, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

Pasahitzei buruzko informazio gehiago jasotzeko, jo zure sargune hornitzailearengana, adibidez, Interneteko zerbitzu hornitzaile komertziala (ISP) edo sare zerbitzu hornitzailea.

### Q: Nola itxi dezaket ez dabilen aplikazio bat?

A: Hautatu **Aukerak** > **Erakutsi aplik. irekiak** eta joan aplikaziora menu-tekla erabiliz. Eduki sakatuta menu-tekla aplikazioa irekitzeko eta hautatu **Aukerak** > **Irten**.

### Q: Zergatik ez dira ondo ikusten irudiak?

A: Ziurtatu kamera lentearen babes-leihoak garbituta daudela.

### Q: Zergatik agertzen dira puntu zatarrak edo distiratsuak, edo puntuak falta dira, pantailan gailua pizterakoan?

A: Pantaila mota honen ezaugarri bat da hori. Baliteke hainbat pantailek pixel edo puntu gutxiago izatea. Normala da, ez da akats bat.

### Q: Zergatik ezin du nire Nokia telefonoak GPS konexio bat ezarri?

A: GPS konexioa ezartzeak segundo edo minutu batzuk iraun ditzake. GPS konexioa ibilgailu baten barruan ezartzeak denbora gehiago iraun dezake. Eraikuntza baten barnean bazaude, zoaz kanpora seinale hobea jasotzeko. Kanpoan bazaude, zoaz inguru irekiago batera. Ziurtatu eskuak e duela telefonoko GPSaren antena estaltzen. Eguraldi baldintza txarrek seinalearen indarrean eragin dezakete.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Ibilgailuetako leiho tindatuek (tenplatuek) satelitearen seinaleak blokeatze dituzte.

## Q: Zergatik ez dut nire lagunaren gailua aurkitzen Bluetooth konektibitatea erabiliz?

A: Egiaztatu bi telefonoak bateragarriak direla, Bluetooth konexioa aktibatua daukatela eta modu ezkutatuan ez daudela. Halaber, ziurtatu gailuen arteko distantzia 10 metro (33 oin) baino luzeagoa ez dela eta gailuen artean hormarik edo oztoporik ez dagoela.

## Q: Zergatik ezin dut Bluetooth konexioa itxi?

A: Beste gailuren bat zure telefonora konektatua badago, konexioa beste telefonoa erabiliz edo Bluetooth konexioa desaktibatuz itxi dezakezu. Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Bluetootha** > **Bluetootha** > **Desaktibatu**.

## Q: Zergatik ezin dut hari gabeko LAN (WLAN) sargune bat ikusi nahiz eta bere eremuan egon?

A: Baliteke WLAN sarbide puntuak zerbitzu multzoen adierazle (SSID) ezkutatu bat erabiltzea. Ezkutatutako SSID erabiltzen duten sareetara sartzeko SSID egokia ezagutu behar da eta sarerako WLAN Interneteko sargune bat zure Nokia telefonoan sortzea beharrezkoa da.

## Q: Nola itzal dezaket hari gabeko LAN (WLAN) aplikazioa nire Nokia telefonoan?

A: WLAN aplikazioa Nokia telefonoan kasu hauetan desaktibatzen da: konektatzen saiatzen ez bazara, beste sargune batean konektatua ez bazaude edo eskuragarri dauden sareetan bilatzen ez baduzu. Bateriaren kontsumoa gehiago murrizteko, Nokia gailuak sareak bila ez ditzan ezar dezakezu. WLAN aplikazioa desaktibatzen da atzealdeko bilaketen bitartean.

Atzealdeko bilaketen ezarpenak aldatzeko, jarraitu ondorengo urratsak:

1. Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Hari gabek. LANa**.
2. Atzealdeko bilaketen arteko denbora tartea luzatzeko, egokitu Sareen bilaketa atalaren denbora. Atzealdeko bilaketak amaitzeko, **Erakutsi WLAN eskurag.** > **Inoiz ez** aukeratu.
3. Aldaketak gordetzeko, sakatu **Atzera**.

   **Erakutsi WLAN eskurag.Inoiz ez** gisa ezartzen denean, WLAN eskuragarritasunaren ikonoa ez da agertzen hasierako pantailan. Hala ere, WLAN sare eskuragarriak eskuz bila daitezke eta WLAN sareetara betiko moduan konekta daiteke.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Q: Zer egin memoria beteta badago?

A: Ezabatu elementuak memoriatik. **Ez dago eragiketa egiteko adina memoriarik. Lehenik, datu batzuk ezabatu.** edo **Memoria gutxi libre. Telefonoaren memorian datuak ezabatu.** oharra erakusten bada aldi berean hainbat elementu ezabatzen ari zarenean, ezabatu elementuak banan-banan txikienetatik hasita.

## Q: Zergatik ezin dut kontaktu bat hautatu mezu batentzat?

A: Kontaktuen txartelak ez dauka telefono zenbaki, helbide edo helbide elektronikorik. Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak** eta dagokion kontaktua eta editatu kontaktuaren txartela.

## Q: Nola amaitu dezaket datu konexioa gailua behin eta berriz datu konexio bat ezartzen saiatzen denean?

A: Baliteke gailua multimedia mezu bat berreskuratzen saiatzen egotea multimedia mezuen zentrotik. Telefonoak datu-konexiorik egin ez dezan, hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Multimedia mezua** > **Multimedia berreskuratz.**. Hautatu **Eskuzkoa** multimedia mezularitza zentroak mezuak geroago berreskuratu ahal izateko, edo **Desaktibatu** jasotzen diren multimedia mezu guztiak ezikusteko. **Eskuzkoa** aukeratuz gero, jakinarazpen bat jasoko duzu multimedia mezu zentroan mezu bat jasotakoan. **Desaktibatu** hautatuz gero, gailuak ez du multimedia mezuei lotutako sare konexiorik ezarriko.

Telefonoak pakete-datuen konexioa behar duen aplikazio edo ekintza bat hasten duzun kasuetan soilik erabiltzea nahi baduzu, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Konektagarritas.** > **Admin. ezarp.** > **Pakete-datuak** > **Pakete-datuen konexioa** > **Behar denean**.

Honek laguntzen ez badu, itzali telefonoa eta berriz piztu.

## Q: Erabil al dezaket nire Nokia gailua fax modem gisa ordenagailu bateragarri batean?

A: Ezin duzu zure gailua fax modem gisa erabili. Hala ere, dei desbideraketarekin (sareko zerbitzua), sarrerako fax deiak beste fax zenbaki batera desbidera daitezke.

## Q: Pantaila nola kalibra dezaket?

A: Pantaila lantegian kalibratzen da. Pantaila berriro kalibratu behar bada, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Ukipen-sarrera** > **Ukimen-pantai. kalibratu**. Jarraitu argibideak.


© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Aholku berdeak

Aholku hauek ingurumena zaintzen lagunduko dizute.

### Aurreztu energia

Bateria guztiz kargatutakoan eta telefonoa kargagailutik deskonektatu duzunean, kendu kargagailua hormako hartunetik.

Bateria ez duzu horren maiz kargatu beharko ondorengoak eginez gero:

- Itxi eta desgaitu aplikazioak, zerbitzuak eta konexioak erabiltzen ez dituzunean.
- Murriztu pantailaren argitasuna.
- Telefonoan eskuragarri badago, aktibatu telefonoa energia aurrezteko moduan ezartzeko aukera inaktibitate tarte baten ondoren.
- Desgaitu beharrezkoak ez diren soinuak, adibidez, teklatuarenak edo deienak.

### Birziklatu

Nokia telefonoko material gehienak birziklagarriak dira. Ikusi Nokia produktuak nola birziklatu www.nokia.com/werecycle helbidean edo, telefonoko arakatzailearekin, www.nokia.mobi/werecycle helbidean.

Birziklatu kaxa eta erabiltzailearen gidak zure tokiko birziklatze-zentroan.

### Aurreztu papera

Erabiltzailearen gida honek telefonoa erabiltzeko oinarrizko ezagutzak eskaintzen ditu. Xehetasun gehiagorako, ireki telefonoko laguntza (aplikazio gehienetan, hautatu **Aukerak** > **Laguntza**). Laguntza gehiagorako, zoaz www.nokia.com/support helbidera.

### Informazio gehiago

Telefonoaren ingurumenarekiko eraginari buruzko informazio gehiagorako, zoaz www.nokia.com/ecodeclaration helbidera.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Osagarriak

**Abisua:**
Nokia konpainiak modelo zehatz honekin erabiltzeko homologatutako bateria, kargagailu eta osagarriak bakarrik erabili. Bestelakorik erabiliz gero, onarpen eta bermeak indargabetu litezke eta arriskutsua izan liteke. Onartu gabeko kargagailu edo bateria bat erabiltzeak sute, leherketa, isurketa edo bestelako arriskuren bat suposa lezake.

Osagarri homologatuak non eskuratu daitezkeen jakiteko, jo ezazu zure banatzailearengana. Osagarriren baten kablea kentzeko, entxufetik eutsi eta tira, ez eutsi kabletik.

## Bateria

### Bateria eta kargagailuaren informazioa

Telefonoa bateria kargagarri batekin elikatzen da. Telefono honekin erabili beharreko bateria BL-4D da. Baliteke Nokiak bateria modelo gehiago eskuragarri izatea telefono honentzat. Telefono hau ondorengo bateriek emandako energiarekin erabili behar da: AC-10. Kargagailuaren modelo zenbakia ezberdina izan daiteke entxufe motaren arabera. Entxufe ezberdinak ondorengoen bidez identifikatzen dira: E, EB, X, AR, U, A, C, K edo UB.

Bateria behin eta berriro karga edo deskarga daiteke, baina azkenean agortu egiten da. Hitz egiteko eta egoneko tarteak ohi baino nabarmen laburragoak badira, bateria aldatu egin beharra dago. Erabili soilik Nokiak onartutako bateriak eta kargatu bateria Nokiak zure telefonorako diseinaturiko kargagailu homologatuekin soilik.

Bateria lehenengo aldiz erabiltzeko, edo bateria luzaroan erabili ez baldin bada, beharbada kargagailua konektatu, deskonektatu eta berriz ere konektatu egin beharko da bateria kargatzen has dadin. Bateria guztiz deskargatuta baldin badago, kargagailuaren ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

Segurtasunez kentzea. Bateria kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

Modu egokian kargatzea. Kargagailua erabiltzen ari ez bazara, desentxufatu eta telefonotik deskonektatu. Ez utzi guztiz kargatutako bateriarik kargagailura konektatuta, gehiegi kargatzeak bateriaren iraupena labur baitezake. Guztiz kargatutako bateria erabili gabe utziz gero, pixkanaka deskargatu egingo da.

Saihestu tenperatua altuegiak edo baxuegiak. Bateria 15º eta 25º artean gordetzen saiatu. Tenperatura oso altu edo baxuek bateriaren bizitza eta gaitasuna murrizten dituzte. Baliteke bateria beroa edo hotza duen telefonoak denboraldi batean ez funtzionatzea. Bateriaren errendimendua asko gutxitzen da zero azpiko tenperaturetan.

Ez eragin zirkuitulaburrik. Nahi gabe zirkuitulaburra sor daiteke, metalezko objekturen batek (txanpon bat, klip bat edo axota bat, adibidez) bateriaren terminal positibo (+) eta negatiboak (-) zuzenean konektatzen baditu. (horiek banda metalikoen antza dute baterian). Sakelean edo poltsan ordezko bateria bat eramanez gero hori gerta liteke. Terminaletan zirkuitu-laburrik gertatuz gero, bateria edo konektatutako objektua hondatu egin litezke.

Botatzea. Bateriak ez sutara bota, lehertu egin daitezke eta. Bateriak botatzeko garaian, tokian tokiko arauak bete behar dira. Ahal dela, birziklatu. Ez bota etxeko gainerako hondakinekin batera.

Isurtzea. Ez desmuntatu, moztu, ireki, bihurritu, deformatu, zulatu edo txikitu telefonoa edo bateriak. Isurketarik gertatuz gero, saihestu bateriaren likidoa azala edo begiak ukitzea. Hori gertatuz gero, busti urarekin kaltetutako tokiak ahal bezain laster edo zoaz medikuarengana.

Kaltetzea. Ez ezazu bateria itxuraldatu eta ez iezaiozu objektu arrotzik sartu. Era berean, ez ezazu bateria ur edo beste likidoren batean murgildu edo busti. Bateriak lehertu egin daitezke hondatuta badaude.

Behar bezala erabiltzea. Bateria dagokion helbururako bakarrik erabili. Bateriaren erabilera okerrak sute, leherketa edo bestelako arriskuren bat eragin lezake. Telefonoa edo bateria eroriz gero, gainazal gogor batera bereziki, eta kaltetu egin dela irudituko balitzaizu, eraman ezazu zerbitzu zentroren batera erabiltzen jarraitu aurretik. Ez erabili hondatuta dagoen kargagailu edo bateriarik. Zure bateria umeen eskuetatik urrun mantendu.

### Nokia bateria autentikatzeko jarraibideak

Erabil itzazu beti Nokia bateria originalak zure segurtasunerako. Nokia konpainiaren jatorrizko bateria bat erabiltzen ari zarela egiaztatzeko, erosi bateria Nokia konpainiak baimendutako denda batean eta egiaztatu jatorrizko holograma duela ondorengo pausoak jarraituz:

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

## Holograma autentikatu

1 Hologramaren etiketa begiratzerakoan, Nokiaren esku elkartuen ikurra ikusi beharko litzateke angelu batetik eta Nokia Original Enhancements logotipoa bestetik.



2 Holograma ezkerrera, eskuinera, gora eta behera okertzean, 1, 2, 3 eta 4 puntu ikusi beharko lirateke alde bakoitzean hurrenez hurren.



Hurrengo urratsak zuzentasunez bete arren, ezin da bateria egiazkoa dela guztiz ziurtatu. Bateriaren jatorria ezezaguna bada edo edozein arrazoirengatik Nokiaren holograma duen bateria egiazkoa ez dela susmatuz gero, ez ezazu erabili eta eraman ezazu hurbilen duzun Nokia zerbitzu-gunera edo zerbitzu-hornitzailearengana laguntza eskatzeko.

Nokia bateriei buruz gehiago jakiteko, zoaz www.nokia.com/battery helbidera.

## Telefonoa zaintzea

Zure telefonoa diseinu eta fabrikazio bikaineko produktu bat da, eta kontuz erabili behar da. Hurrengo proposamen hauek garantiaren estaldura babesten lagunduko dizute.

- Telefonoa lehor manten ezazu. Euriak, hezetasunak eta mota guztietako likidoek edo egoera bustiek, zirkuitu elektronikoak erdoil ditzaketen mineralak izan ditzakete. Zure gailua bustiz gero, atera bateria, eta utz iezaiozu guztiz lehortzen berriz jarri baino lehen.
- Ez erabili edo gorde telefonoa toki zikin edo hautsez betetako tokietan. Atal higikorrak eta osagarri elektronikoak honda daitezke.
- Ez ezazu gorde telefonoa tenperatura hotzak edo altuak dauden tokietan. Tenperatura altuek gailu elektronikoen iraupena laburtu, bateriak hondatu eta plastiko batzuk deformatu edo urtu ditzakete. Telefonoa tenperatura hotzetik bere tenperatura normalera iristen denean, barruan hezetasuna sor daiteke, eta horrek, zirkuitu elektronikoen plakak honda ditzake.
- Ez zaitez telefonoa gida honetan azaltzen ez den modu batean zabaltzen saiatu.
- Ez ezazu utzi telefonoa lurrera erortzen; ez kolpatu edo astindu telefonoa. Modu zakarrean erabiliz gero, barruko zirkuituen plakak eta atal hauskorrenak apur daitezke.
- Ez ezazu erabili produktu kimiko kaltegarririk, disolbatzailerik edo garbigarri gogorrik telefonoa garbitzeko. Erabili ehun leuna, lehorra eta garbia telefonoaren azala garbitzeko.
- Ez ezazu telefonoa margotu. Margoak atal mugikorrak buxatu eta funtzionamendu egokia galarazi dezake.
- Telefonoarekin batera hornitu edo homologatutako ordezko antena soilik erabili. Baimenik gabeko antena, aldaketa edo atxikitako elementuek, gailua hondatu eta irrati tresnen araudien urratze bat suposa ditzakete.
- Kargagailua beti toki baten barruan erabili, ez aire librean.
- Sor ezazu beti gorde nahi duzun datuen segurtasun-kopia bat, kontaktu eta agendako oharrak, esaterako.
- Noizean behin telefonoa berrezarri eta honen etekinik onena ateratzeko, itzal ezazu telefonoa eta ken iezaiozu bateria.

Gomendio hauek berdin balio dute telefono, bateria, kargagailu edo beste edozein osagarrirentzat.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

### Birziklatu

Eraman beti erabilitako produktu elektronikoak, bateriak eta paketatze-materialak dagokien bilketa tokietara. Honela kontrolik gabeko hondakinen erauzketa ekiditen lagunduko duzu eta birziklatzea bultzatu. Egiaztatu produktuaren ingurumenari buruzko informazioa eta Nokia produktuak birziklatzeko moduari buruzko informazioa www.nokia.com/werecycle helbidean edo nokia.mobi/werecycle helbidean.



Telefonoan, dokumentazioan edo kaxan agertzen den gurutze batez estalitako zaborrontziak produktu elektrikoak edo elektronikoak, bateriak eta metagailuak funtzionatzeari uzten diotenean biltegi berezietara eraman behar direla gogorarazten du. Eskakizun hau Europar Batasunean bete behar da. Produktu hauek ezin dira sailkatu gabeko udal-zabortegietan bota. Ingurumenari buruzko informazio gehiagorako, ikus produktuaren ekologia agiria www.nokia.com/environment helbidean.

## Segurtasun informazio gehigarria

### Ume txikiak

Telefonoa eta honen osagarriak ez dira jostailuak. Zati txikiak izan ditzakete. Haurren eskumenetik kanpo mantendu.

### Inguru eragilea

Telefono honek irrati-frekuentziekiko esposizio-arauak betetzen ditu baldin eta modu egokian erabiltzen bada edo belarritik honako gutxieneko tartea mantentzen bada: 1,5 zentimetro (5/8 hazbete). Soinean eraman ditzakezun zorro babesle, gerriko poltsatxo edo euskarriek ez lukete metalik izan behar eta telefonoa gorputzetik aurrez aipatutako distantziara eraman beharko zenuke.

Datu-fitxategiak edo mezuak bidaltzeko, kalitate honeko sare konexioa beharrezkoa da. Datu-fitxategiak edo mezuak beranduago bidaliko dira horrelako konexioren bat eskuragarri egon arte. Jarraitu tarteari buruzko argibideak transmisioa amaitu arte.

Telefonoaren atal batzuk magnetikoak dira. Telefonoak material metalikoak erakar ditzake. Ez itzazu jarri kreditu txartelak edo beste biltegiratzeko modu magnetikorik gailuarengandik hurbil; bestela, gordetzen duen informazioa ezabatu daiteke.

### Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoek, telefono mugikorrak barne, modu ezegokian babestutako tresna medikoen funtzionamenduan eragin dezakete. Jarri harremanetan medikuarekin edo gailu medikoaren egilearekin kanpoko irrati-frekuentziaren energiatik ondo babestuta daudela zehazteko. Itzali telefonoa argitaratutako arauak hori egitea eskatzen dizutenean. Ospitaleetan edo osasun zentroetan irrati-frekuentziaren energiarekiko sentikorra den ekipamendua erabil daiteke.

### Medikuntzako tresna inplantatuak

Medikuntzako tresnen egileek hari gabeko gailuaren eta inplantatutako mediku tresnaren artean, taupada-markagailu edo desfibriladoreak esaterako, gutxienez 15,3 zentimetroko (6 hazbeteko) tartea egotea gomendatzen dute medikuntza tresnarekiko egon daitezkeen interferentziak ekiditeko. Tresna hauetakoren bat darabilten pertsonek:

- Eduki haririk gabeko gailua tresna medikotik 15,3 zentimetrotara (6 hazbetetara) baino gehiagotara
- Ez eraman telefonoa paparreko zorro batean.
- Eduki haririk gabeko gailua tresna medikoa dagoen kontrako belarrian.
- Interferentziaren bat dela susmatu bezain laster, itzali hari gabeko telefonoa.
- Jarraitu egilearen argibideak inplantatutako gailu medikoari dagokionez.

Zure haririk gabeko telefonoa medikuntzako tresna batekin batera erabiltzeari buruzko zalantzarik izanez gero, jar zaitez zure sendagilearekin harremanetan.

### Entzuteko aparatuak

Gailu mugikor digital batzuek audiofono batzuetan eragina izan dezakete.

### Ibilgailuak

Irrati-frekuentziako seinaleek ibilgailuetan gaizki instalatutako edo gaizki babestutako sistema elektronikoetan eragina izan dezakete, hala nola, erregaiaren injekzio elektronikoetan, balazten blokeoa saihesteko sistema elektronikoetan, abiaduraren kontrol elektronikoetan edo airbag sistemetan. Informazioa lortzeko, egiaztatu autoaren edo honen ekipamenduaren fabrikatzailearekin.

Langile kualifikatuek soilik ikuska ditzakete telefonoak eta ibilgailuetan instalatu. Behar bezala instalatu edo erabili ezean, arriskuak sor daitezke eta bermea baliogabe daiteke. Egiaztatu erregularki ibilgailuan instalatutako hari gabeko osagarriek behar bezala funtzionatzen dutela. Ez gorde edo eraman likido sukoiak, gasak edo material

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

lehergarriak telefonoa, haren zatiak edo osagarriak daramatzazun toki berean. Gogoratu airbag-ak indar handiarekin puzten dela. Ez jarri telefonoa edo osagarriak airbag-a aterako den tokian.

Itzali telefonoa hegazkinera igo aurretik. Hari gabeko gailuak hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren funtzionamendurako eta legez kanpokoa izan daitekeelako.

**Balizko ingurune leherkorrak**

Itzali telefonoa leherketak gertatzeko arriskua badago. Bete argitaratutako argibideak. Txinpartak horrelako inguruetan gertatuz gero, leherketak edo suteak gerta daitezke, kalte fisikoak edo heriotza eraginez. Itzali telefonoa gasolina inguruan dagoenean, gasolindegietan, adibidez. Jarraitu gasolina gordetzen eta banatzen den tokietan erabiltzeko murriztapenak, bai eta gune kimikoetan edo eragiketa arriskutsuak abian direnean ere. Leher daitekeen ingurumena duten lekuak argi eta garbi markatuta egon ohi dira, baina ez beti. Zure autoaren motorra itzaltzeko eskatzen zaizun tokiak, itsasontzietako bizkar azpian, transferentzia kimikoak egiteko edo biltegiratzeko eraikuntzak eta aireak alea, errautsa edo metalezko partikulak dituen ingurumenak barne. Likido egindako petroleo-gasa erabiltzen duten autoen egileekin egiaztatu behar duzu (butano edo propano, esaterako) hurbilean gailu hau segurtasunez erabil daitekeen zehazteko.

**Larrialdi deiak**

**Garrantzitsua:** Telefono mugikorrek, telefono hau barne, irrati seinaleak, hari gabeko eta lehorreko sareak eta erabiltzaileak programatutako funtzioak erabiliz funtzionatzen dute. Zure gailuak Internet bidezko ahots deiak onartzen baditu (Interneteko deiak), aktibatu bai mugikorra bai Interneteko telefonoa. Honela, telefonoak larrialdi deiak egiteko mugikorraren sarea eta Internet hornitzailea erabiliko ditu aktibatuta badaude. Ez da uneoro konektatzeko aukera izatea ziurtatzen. Ez zaitez inoiz egon telefono mugikor baten menpe komunikazio garrantzitsuetarako, adibidez, osasun larrialdietarako.

Larrialdi deiak egiteko:

1. Telefonoa itzalita badago, piztu ezazu. Egiaztatu seinaleak behar besteko indarra daukan ala ez. Telefono motaren arabera, baliteke ondorengoak ere egin behar izatea:
   - Sartu SIM txartela, telefonoak bat badarabil.
   - Desgaitu aktibatu dituzun zenbait dei murrizketa.
   - Aldatu profila deskonektatuta modutik modu aktibora.
   - Pantaila eta teklatua blokeatuta badaude, mugitu telefonoaren alboan dagoen blokeo etengailua desblokeatzeko.
2. Sakatu amaitzeko tekla behar bezain beste, bistaratutakoa ezabatu eta telefonoa deietarako prestatzeko.
3. Ireki markagailua markagailuaren ikonoa aukeratuz ().
4. Idatzi zauden tokiko larrialdi zenbaki ofiziala. Larrialdi zenbakiak tokiaren arabera alda daitezke.
5. Sakatu deitzeko tekla.

Larrialdi dei bat egitean, eman ezazu beharrezko informazio guztia ahalik eta zehatzen. Zure telefono mugikorra komunikatzeko modu bakarra izan daiteke istripu bat dagoen tokian. Ez amaitu deia hori egiteko baimenik ez den bitartean.

**Ziurtagiri informazioa (SAR)**

**Telefono honek irrati uhinekiko arriskuari buruzko arauak betetzen ditu.**

Zure telefono mugikorra irrati-igorlea eta irrati-hargailua da. Araudi internazionalek gomendatzen duten irrati uhinekiko arrisku egoerara ez heltzeko diseinatua dago. Araudi hauek ICNIRP elkarte zientifiko independenteak garatu ditu eta pertsona guztiak babesteko marjina daukate, adina edo osasuna kontutan izan gabe.

Telefono mugikorren arriskuen kontrako araudiak Berariazko Absortzio Tasa (Specific Absorption Rate) edo SAR moduan ezagutzen den neurri unitate bat erabiltzen du. ICNIRP araudian ezartzen den SAR limitea 2.0 watt/kilogramo (W/kg)-koa da, 10 gramoko ehunean erabilita batezbeste. SAR probak funtzionamendu posizio estandarretan egiten dira, telefonoak potentzia mailarik altuenean transmititzen duen bitartean probatutako frekuentzia banda guztietan. Funtzionatzen ari den telefono baten kasuan kasuko SAR maila, gehiengo balioaren azpitik egon daiteke, zeren telefonoa sarea atzitzeko behar duen indarra erabiltzeko bakarrik diseinatuta baitago. Kantitatea faktore batzuen arabera alda daiteke, adibidez, sare estazio gune batekiko zein hurbil zauden.

SAR balio altuena ICNIRP araudien arabera telefonoa belarrian erabiltzeko honakoa da: 0,67 W/kg.

Telefonoaren osagarriak erabiltzeak SAR balio ezberdinak eman ditzake. SAR balioak proba eta informazio nazionalen eskakizunen eta sareko bandaren araberakoak izan daitezke. SAR-i buruzko informazio gehiago jasotzeko kontsultatu ezazu produktuari buruzko informazioa helbide honetan: www.nokia.com.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

# Aurkibidea

## Ikurrak/Zenbakiak


3-D tonuak 122


## A


A-GPS (lagunduriko GPSa) 84
abestiak 111
adierazleak eta ikonoak 31
ahots deiak
 Ikus *deiak*
ahots komandoak 40, 132
 Ikus, halaber, *ahots markaketa*
ahots kontrola 132
ahots markaketa 40
ahots-komandoak 32
alarma 124
— egutegiko oharra 122, 123
albisteen jarioak 80
albumak, multimedia 107
antenak 18
aplikazio kudeatzailea 138
— ezarpenak 140
aplikazioak 138
aplikazioak ezabatu 140
aplikazioak instalatu 138
aplikazioen ezarpenak 134
arakatzailea
— cache memoria 81
— edukiak bilatu 81
— ezarpenak 82
— laster markak 81
— orriak arakatu 79, 80
— segurtasuna 82
— tresna-barra 79
argazkiak
— begi-gorriak 110
— etiketak 107
— fitxategiak antolatzen 106
— fitxategiaren xehetasunak 106
— ikusi 105
— sarean partekatu 111
— tresna-barra 107
 Ikus *kamera*
argazkiak ateratzeko ezarpenak
— kameran 99
argazkiak ateratzeko moduak
— kamera 102
astearen ezarpenak
— egutegiaren alarma 122
atzealdeko irudia 121, 122
audio mezuak 57
aurikularrak 20
aurkezpenak, multimedia 59
azken deiak 45


## B


bateria
— energia aurreztu 13
— kargatzea 20
— sartu 16
bateria kargatzea 20
begi-gorriak kentzea 110
bidalitako mezuen karpeta 57
bideo
— bideoklipak erreproduzitzea 120
— deskargatzea 118
— ezarpenak 120
— ikustea 118
— nire bideoak 120
bideo deiak 40, 41
bideo ezarpenak 104
bideo-deiak 41
bideo-partekatzea
— bideoklipak partekatzea 44
— zuzeneko bideo-partekatzea 44
bideoa
— partekatuta 45
bideoa partekatu
— eskakizunak 43
bideoak
— bideoen jarioak 119
— bideoklipak transferitzea 120
bideoklipak
— partekatuak 43
bideoklipak grabatu 103
bihurgailua 128, 129


 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

bilatu 32, 33
— ezarpenak 33
bilera oharrak 123
blogak 80
blokeo kodea 12, 19
blokeoa
— urrunetik 13
Bluetooth konexioa
— datuak bidali 75
— datuak jaso 76
— ezarpenak 74
— gailuak blokeatu 76
— gailuak uztartu 75
— gailuaren helbidea 75
— gailuaren ikusgarritasuna 74
— piztu edo itzali 74
— segurtasuna 75
bolumenaren kontrolak 33
bozgorailua 33

## C

cache memoria 81
copyright babesa 137

## D

data eta ordu ezarpenak 131
datu konexioak
— kablea 77
— PCrako konexioak 77
— sinkronizazioa 73
— telefonoaren eguneratzeak 134
datu paketeen konexioa
— ezarpenak 78
— sargunearen ezarpenak 71
datu-paketeen konexioa
— kontagailuak 46
datuen sinkronizazioa 73
dei guztiak amaitu aukera 39
dei-tonuak 121, 122
deia zain 39
deiak 37
— bideo deiak 40
— birmarkatu 140
— deian zehar dauden aukerak 37
— erantzun 38
— ezarpenak 140
— Interneteko deiak 42
— iraupena 46
— konferentzia 39
— markatutako zenbakiak 32
— mugatzea
Ikus *markatze finkoa*
— ukatu 38
deiak erantzun 38
deiak ukatu 38
Ikus *deiak ukatu*
deien erregistroa 45, 46
deien iraupena 46
deskonektatuta profila 34
diapositiba aurkezpena 108
DRM (digital rights management) 137

## E

edukia
— sinkronizatu, bidali eta berreskuratu 28
edukia transferitu 27
egitekoak 123
eguneraketak 11
egutegia 122
— tresna-barra 123
egutegiko sarrera
— bidali 123
— ezabatu 123
eranskinak 59, 60
erantzungailua 32
erlojua 122
erlojuak
— ezarri data 124
— ezarri ordua 124
eskumutur uhala 21
eszenak
— irudia eta bideoa 102
ezarpenak 99, 133
— aplikazioak 134
— arakatzailea 82
— bideo 120
— bideoa partekatu 44
— Bluetooth konexioa 74

— datu pakete 78
— datu paketeen sarguneak 71
— deiak 140
— deiak desbideratu 141
— deien murrizketa 141
— fitxategi banaketa 114
— hizkuntza 132
— Interneteko deiak 42
— kokapena 87
— mapak 97
— mezuak 62
— ohar aktiboak 130
— ordua eta data 131
— pantaila 132
— posta elektronikoko jakinarazpenak 30
— sarea 68
— sargune izenen kontrola 78
— sarguneak 70, 71
— SIP 78
— tapa 133
— telebistarako irteera 133
— WLAN 70, 72
— ziurtagiriak 135

**F**

fabrikako ezarpenak
— berrezarri 137
fitxategi banaketa
— deskargak 116
— ezarpenak 114
fitxategi kudeatzailea 126, 127
— fitxategiak antolatu 127
— fitxategien segurtasun kopiak egin 127
FM irratia 117

**G**

gaiak 121
gogorarazleak
Ikus *egitekoak*
gonbidapenak
— bideo partekatzea 45
GPS
— posizio eskaerak 85
GPS (kokatze sistema-orokorra) 83
grabaketaren ezarpenak
— kameran 99

**H**

hari gabeko LAN ezarpenak 70
haririk gabeko LAN (WLAN) 68
hasierako pantaila 30, 121, 122
— jakinarazpenak 30
— kontaktuak 30
— musika erreproduzitzailea 30
hitzorduak
— instalazioa 123
hizketa 131
hizkuntza ezarpenak 132
hiztegia 128
HSDPA (abiadura handiko downlink pakete sarrera) 34
hurbiltasun sentsorea 37

**I**

IAP (Interneteko sarguneak) 69
ibiltaritza 68
IM (istanteko mezularitza) 53
informazio baliagarria 10
informazio orokorra 10
informazio zerbitzuko mezuak 61
internet arakatzailea 79
Internet konexioa 79
Ikus, halaber, *arakatzailea*
Interneteko deiak 42
— egin 42
— ezarpenak 43
— Interneteko deiak 42
— saioa hasi 42
iparrorratza 95
irratia 117
— entzun 117
— irrati kateak 118
irteera ontzia, mezua 57
irtenbideak 142
irudiak
— editatu 109
— editatzen 109

 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**J**

jakinarazpenen argia 138
jarioak, albisteak 80
Java aplikazioak 138
JME Java aplikazioaren laguntza 138

**K**

kable konexioa 77
kalkulagailua 129
kamera
— adierazleak 100
— argazki modua 100
— aukerak 101
— bideo kalitatea 104
— bideo modua 103
— eszenak 102
— ezarpenak 104
— flasha 102
— grabatu 104
— irudiak bidali 101
— irudiaren kalitatea 104
— kokapen informazioa 101
— kontaktuei irudiak esleitu 101
— sekuentzia modua 102
— tenporizadorea 103
kokapen-informazioa 83
kokapenaren ezarpenak 87
konektoreak 16
kontaktu
— taldeak 50
kontaktuak 47
— ahots etiketak 47
— argazkiak 47
— bidali 47
— editatu 47
— ezabatu 47
— gogokoak 30
— gorde 47
— kopiatu 49
— lehenetsiak 48
— sinkronizatu 73
— taldeak sortu 50
— tonuak 48
kontuak 55

**L**

lagunduriko GPSa (A-GPS) 83
laguntza aplikazioa 10
laguntza baliabideak 10
laster markak 81
lizentziak 137

**M**

Mail for Exchange 66
Mapak
— adierazleak 89
— iparrorratza 95
mapak 88
— bildumak 90
— eguneratu 98
— eguneratzea 98
— eguraldia 95
— ezarpenak 95, 96, 97
— gidatzea 93
— gogokoak 90
— historia 91
— ibilbideak 90, 96
— Interneteko ezarpenak 96
— iparrorratza 95
— kokapenak bidali 90
— kokapenak bilatzea 89
— kokapenak gorde 90
— lizentziak 92
— nabigazioa 89
— Nokia Map Loader 98
— oinez 92
— sinkronizatu 91, 97
— trafikoaren informazioa 94
markatze bizkorra 39
markatze finkoa 50
memoria
— ezabatu 14
— webaren cachea 81
memoria osagarria
— formateatu 127
memoria txartela
— editatu 127
— fitxategien segurtasun kopiak egin 127


**© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.** 

memoriaren segurtasun kopia egin 126
mezu elektronikoak 59
mezu irakurtzailea
— ahotsa aukeratu 131
mezuak
— ahotsa 38
— ezarpenak 62
— jasotakoen ikonoa 58
— karpetak 57
— multimedia 59
— posta elektronikoa 59
mikrofonoa 33
Minimapa 80
MMS (multimedia mezuen zerbitzua) 57, 59, 62
moneta
— bihurgailua 128
mugarriak 85
multimedia
— RealPlayer 124
multimedia mezuak 57, 59, 62
musika abiarazlea
— erreprodukzio zerrendak 112
— musika transferitu 113
musika denda 114
musika erreproduzitzailea 30, 111

## N

nabigazio-tresnak 83
nire musika 111
Nokia kontua 35, 51, 55
Nokia laguntzaren informazioa 10
Nokia Map Loader 98
Nokia Maps Updater 98
Nokia Mezularitza 67
Nokia Musika Denda 114
nokia software eguneratzailea 11

## O

ohar aktiboak 130
— ezarpenak 130
oharrak 126
ordenagailuaren konexioak 77
Ikus, halaber, *datu konexioak*
ordua eta data 124
ordua eta data automatikoki eguneratu 124
ordularia 124
orriaren ikuspegi orokorra 80
osagarriak 133
Ovi denda 35
— bilatu 35
— erosi 36
— ezarpenak 36
— kontu bat sortu 35
— lagunekin partekatu 36
— saioa hasi 35
— xehetasunak 35
Ovi kontaktuak 51
— bilatu 53
— eskuragarritasunaren egoera 52
— ezarpenak 55
— konexiorako ezarpenak 57
— lagunak gehitu 53
— mugarriak 56
— pertsonalizazioa 56
— presentzia 56
— profilak 52
— sinkronizazioa 54
— zure kokapena partekatu 52, 56
Ovi Mapak 91

## P

pantaila biraketa 133
pantailaren ezarpenak 132
Partekatu on-line 31
partekatutako bideoak 43
PDF reader 130
pertsonalizazioa 121
PIN kodea 12
pin kodea 19
PIN2 kodea 12
podcastak
— bilatu 115
— direktorioak 115
podcasting
— erreproduzitu 117


 © 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

posizionamendu-informazioa 83
posta elektronikoa 66, 67
— jakinarazpenak 30
postontzia
— ahotsa 38
— bideoa 38
— posta elektronikoa 59
presentzia 56
profilak 29, 121
— deskonektatuta profilaren mugak 34
— pertsonalizazioa 29
— profilak aldatu 32
proxy zerbitzariaren ezarpenak 72
PUK kodeak 12

**R**

RealPlayer 124

**S**

sarbide kodeak 12
sare ezarpenak 68
sarguneak 69, 70
— taldeak 71
sarrera ontzia
— mezua 58
sarrera ontzia, mezua 58
segurtasun kodea 12
segurtasun modulua 137
segurtasuna
— web arakatzailea 82
— ziurtagiriak 135
sentsoreak 133
SIM txartela
— mezuak 61
— sartu 16
SIM txartelaren segurtasuna 135
sinkronizazioa 54
SIP 78
SMS (mezu laburren zerbitzua) 57
software
— eguneratzea 11
software aplikazioak 138
softwarearen eguneratzeak 11
soinua mututu 38
Symbian aplikazioak 138

**T**

taparen ezarpenak 133
teklak 15, 16
teklatua 24, 27
teklatuaren blokeoa 27
Telebista irteera-modua 108
telebistaren konfigurazioa 133
telefonoaren eguneratzeak 134
telekonferentziak 39
tenporizadorea
— kamera 103
testu mezuak
— ezarpenak 62
— SIM mezuak 61
testu-mezuak
— bidali 57
— erantzun 58
— jaso eta irakurri 58
tonuak 29, 121
— 3-D 122
tresna-barra aktiboa
— Argazkietan 107
txat zerbitzuak (IM) 53

**U**

ukimen-pantaila 21
UPIN kodea 12
UPUK kodea 12
urruneko blokeoa 13
urruneko postontzia 59
urrutiko SIM modua 76
urtebetetze oharrak 123
urteurren oharrak 123
USB bidez kargatzea 20
USB kable konexioa 77

**W**

web arakatzailea 79
web konexioa 79
weben erregistroak 80
WLAN (hari gabeko tokiko sarea) 72

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta. 

## Z


zerbitzu komandoak 61
zerbitzuaren mezuak 59
Zip kudeatzailea 130
ziurtagiri pertsonalak 135
ziurtagiriak 135
zure kokapena partekatu 54



© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

ONESPEN ADIERAZPENA

CE0434 ⓘ

Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-555 telefonoak 1999/5/EC Arteztarauko oinarrizko baldintzak eta dagozkion gainerako xedapenak betetzen dituela . Onespen-adierazpen horren kopia bat http://www.nokia.com/phones/ declaration_of_conformity/ helbidean aurki daiteke.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Nokia, Nokia Connecting People, Nseries, N97 mini, N-Gage, Nokia Jatorrizko Osagarrien logoa eta Ovi Nokia Corporation-en marka komertzialak edo marka erregistratuak dira. Nokia tune Nokia Corporationen soinu marka bat da. Hemen aipatzen diren gainerako produktu eta enpresa izenak haien jabeen marka komertzialak edo erregistratuak izan daitezke.

Galarazita dago dokumentu honen edukia, zatika nahiz osorik, kopiatzea, igortzea, zabaltzea edo gordetzea, edozein modutan, Nokia konpainiak aldez aurretik idatzizko baimenik ematen ez badu. Nokia konpainiak etengabeko garapen politika bat du. Nokia konpainiak dokumentu honetan deskribatutako edozein produktutan aldaketak eta hobekuntzak egiteko eskubidea gordetzen du, aldez aurretik horren berririk eman gabe.

US Patent No 5818437 and other pending patents. T9 text input software Copyright © 1997-2009. Tegic Communications, Inc. All rights reserved.

symbian

This product includes software licensed from Symbian Software Ltd ©1998-2009. Symbian and Symbian OS are trademarks of Symbian Ltd.

Java POWERED

Java and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.

Portions of the Nokia Maps software are ©1996-2009 The FreeType Project. All rights reserved.

Produktu honek MPEG- 4 Visual Portfolio License-ek emandako lizentzia du (i) jarduera pertsonal eta ez komertzialetan ari den kontsumitzaile batek MPEG- 4 Visual Standard-en arabera kodetutako informazioarekin erlazionatutako erabilpen pertsonal eta ez komertzialerako eta (ii) lizentziadun bideo hornitzaile batek emandako MPEG-4 bideoarekin erabiltzeko. Lizentzia batik ez da emango edo engaiatuko beste edozein erabilpenerako. Argibide gehigarriak, sustapena, barne edo erabilpen komertzialekin zerikusia dutenak barne, MPEG LA, LLC-tik lortu daitezke. Ikusi http://www.mpegla.com.

LEGEAK ONARTZEN DUEN NEURRIRIK HANDIENEAN, NOKIA EDO BERE BESTE EDOZEIN BAIMEN HORNITZAILEK EZ DU INONDIK INORA ERANTZUKIZUNIK IZANGO, EDOZEIN DATU EDO IRABAZIEN GALERAGATIK EDO EDONOLA SORTUTAKO KALTE BEREZI, USTEKABEKO, ONDORIOZKO EDO ZEHARKAKOENGATIK.

Telefonoarekin batera emandako aparteko aplikazioak, Nokia taldekoak ez diren edo Nokiarekin zerikusirik ez duten pertsona edo erakundeek sortuak eta haien jabetzakoak izan daitezke. Nokiak ez du beste aplikazio horien copyright edo jabetza intelektualen gain inolako eskubiderik. Beraz, Nokiak ez du inolako erantzukizunik hartzen azken erabiltzaileei laguntzeko orduan, aplikazioen funtzionalitatean, ez eta aplikazio edo material hauei buruzko informazioari dagokionez. Nokiak ez du inolako bermerik ematen aplikazio hauentzat.

APLIKAZIO HORIEK BERE HORRETAN EMAN ZAIZKIZULA ONARTZEN DUZU, ERABILTZEAZ, APLIKAZIO HORIEK, INOLAKO BERME ESPLIZITU EDO INPLIZITURIK GABE, ETA LEGEAK BAIMENTZEN DUEN NEURRIAN. ERA BEREAN, EZ NOKIAK EZ BERE TALDEKOEK EZ DIZUTELA INOLAKO BERME ESPLIZITU EDO INPLIZITURIK ESKAINI EDO AURKEZTU ONARTZEN DUZU HONAKO ALDERDI HAUEI DAGOKIENEZ: (EZ HORIEI BAKARRIK, ORDEA): JABEGO BERMEAK, HELBURU JAKIN BATERAKO SALEROSTEKO AUKERA EDO EGOKITASUNA ETA APLIKAZIOAK BESTE INOREN PATENTERIK, COPYRIGHTIK, MERKATARITZA MARKARIK EDO BESTELAKO ESKUBIDERIK EZ URRATZEN EZ DUELA, BESTEAK BESTE.

DOKUMENTU HONEN EDUKIAK "BERE HORRETAN" HORNITZEN DIRA. LEGEAK ESKATZEN DUENETIK AT, DOKUMENTU HONEN ZEHAZTASUNARI, FIDAGARRITASUNARI EDO EDUKIARI DAGOKIONEZ EZ DA INOLAKO BERMERIK EMATEN, EZ ESPLIZITU EZ INPLIZITUKI, SALEROSGARRITASUN ETA HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARI DAGOZKION BERMEAK BARNE, BAINA HAUETARA MUGATU GABE. NOKIA KONPAINIAK, EDONOIZ ETA AURRETIK OHARTARAZI GABE DOKUMENTU HAU BERRIKUSI EDO ERRETIRATZEKO ESKUBIDEA GORDETZEN DU.

Telefonoaren softwarearen alderantzizko ingeniaritza debekatuta dago aplikagarriak diren legeen mugen barruan. Erabiltzailearen gida honetan aipatutako Nokia konpainiaren adierazpen, berme, kalte eta erantzukizunei dagokien mugek Nokia konpainiaren baimen hornitzaileen adierazpen, berme, kalte eta erantzukizunak ere mugatuko dituzte.
Produktu zehatzak eta produktu horientzako aplikazio eta zerbitzuak eskuratzeko aukera herrialde batetik bestera alda daiteke. Jo ezazu zure Nokia hornitzailearengana dauden produktu eta hizkuntzen aukeren berri izateko. Telefono honek Amerikako Estatu Batuetako eta beste herri batzuetako esportazio lege eta arauak bete behar dituzten osagai, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debekatuta dago legea urratzea.

FCCren eta Kanadako Industria Sailaren oharra

Zure telefonoak irrati eta telebista interferentziak sor ditzake (telefonoa hargailu elektroniko batetik oso gertu erabiltzen denean, adibidez). FCCk edo Kanadako Industria Sailak zure telefonoa erabiltzeari uzteko eska diezazukete, interferentzia horiek ezabatzerik ez balego. Laguntzarik behar izanez gero, zure inguruko zerbitzu-gunera jo. Telefono honek FCC-ko araudiaren 15. atala betetzen du. Telefonoa erabiltzeko bi baldintza hauek bete behar dira: (1) interferentzia kaltegarririk ez eragitea eta (2) jasotako interferentzia guztiak onartzea, nahi ez diren eragiketak sor ditzakeenak barne. Nokiak argiro onartzen ez duen aldaketarik eginez gero, erabiltzaileak ekipamendu hau erabiltzeko baimena gal lezake.

/Argitalpena 2 EU